

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA

## XIII. legegintzaldia

Justizia eta Giza Eskubideen Saila



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA GIZA  
ESKUBIDEEN SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y  
DERECHOS HUMANOS

# AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	2
1. AURKEZPENA .....	3
2. XEDEA ETA LOTURA .....	4
3. SAILAREN ESKUMEN-ESPARRUAK .....	5
4. PLANA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK.....	6
4.1. SAILAREN PLANA EGITEKO PROZESUA .....	6
4.2. EGOERAREN DIAGNOSIA .....	8
4.2.1. Gobernu Onari lotutako esku-hartzea.....	9
4.2.2. Justizia Administrazioiko Zuzendaritzara lotutako esku-hartzea. ....	27
4.2.3. Justizia Zuzendaritzarekin lotutako esku-hartzea.....	33
4.2.4. Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea .....	43
4.2.5. Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea .....	44
4.2.6. Zerbitzuen Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea .....	47
4.2.7. Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea .....	50
4.2.8. Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritzarekin lotutako esku-hartzea .....	522
4.2.9. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarekin (Gogora) lotutako esku-hartzea .....	577
4.2.10. Aukerak-Gizarteratzearen Euskal Agentziarekin lotutako esku-hartzea .....	611
5. JUSTIZIA ETA GIZA BALIABIDE SAILAREN PLANGINTZA ESTRATEGIKOA .....	644
6. KUDEAKETA-EREDUA.....	744

# 1. AURKEZPENA



Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ekintza publikoko oinarritzko printzipioa da, eta gure sailaren konpromiso sendoa. Berdintasunerako planak justizia eta gizarte-politikaren esparrutik bultzatzen ditugun politika, programa eta esku-hartze guztietan genero-ikuspegia txertatzeko gure erabakimena berresten du.

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak beregain hartzen du gizarte bidezkoagoa, ekitatiboagoa eta diskriminaziorik gabea sustatzeko bere ardura. Konpromiso horrek berekin dakar plangintza estrategiko iraunkorra, giza eta aurrekontu-baliabideen hornidura eta sailen eta erakundeen arteko egiturekin etengabeko koordinazioa.

Erabat kontziente gara, historikoki, emakumeek eragozpen handiagoak izan dituztela justiziara iristeko berdintasun-baldintzetan. Oztupo horiek gainditzea lehentasunezko kontua da sail honentzat, eta genero-arekiko sentibera den sistema judizial irisgarria, pertsona guztien eskubideak (bereziki, zaugarritasun handiagoan daudenena) benetan babestearekin konprometitua, bermatzeko egiten du lan.

Gure xedea berdintasun gehiago izango duen Euskadi baterako urratsak ematen jarraitzea da, non emakumeek eta gizonak baldintza berdinetan parte hartuko baitute bizitza sozial, ekonomiko eta politikoko esparru guztietan.

Plan hau, finean, ibilbide-orri partekatua da, guztion eginahalaren eta egunero benetako berdintasuna errealitatera ekartzeko lanean diharduten pertsona askoren konpromisoaren ondorio.

**Alfonso Gómez Fernández**

Justiziako sailburuordea

## 2. XEDEA ETA LOTURA

Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana XIII. legegintzaldian sail honek, berdintasunaren politikarekin lotuta, sustatuko dituen gidalerroak biltzen dituen **esparru-agiria** da. Bertan, sailak berdintasunaren arloan beregain hartuko dituen helburu estrategikoak ezartzen dira, datozen urteetan garatuko diren ekintzen eta jardueren oinarriak finkatzekoak.

**Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legeak**, lege horren testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak,<sup>1</sup>, 16. artikuluan ezartzen du Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere jardueran plan propioa egingo duela legegintzaldi bakoitzean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean ezarritako esku-hartze ildoak eta gidalerroak erreferentziatzat hartuta. Lege horren xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, eta zenbait neurri arautzea bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdina izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia eta ahalduak bultzatzeko eta emakumeek jendartean, ekonomian zein politikan duten estatusa sendotzeko, egiturazko desberdintza eta sexuan oinarritutako diskriminazio modu oro ezabatzeko, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne dela. Hortaz, edozein politika eta plangintzarako erreferentziatzko gako-esparrua da berdintasunaren arloan.

Legean xedatzen dena betez, sailaren plan hau Gobernu Kontseiluak 2024ko otsailaren 13an onartutako **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiara** lotuta egongo da. 2030 Estrategiaren helburua da emakumeen eta gizonen berdintasuna Euskadiko erakunde publikoek hedatutako politiken ikuspegian, prozeduretan eta edukian zeharka lantzeko Eusko Jaurlaritzaren xedapenak ezartzea. Estrategia hori da erakunde bakoitzak, bere kompetentzia, lehentasun, ibilbide eta errealitatea aintzat hartuta, autonomiaz eta malgutasunez jorratu behar duen erreferentziatzko egungo esparru estrategikoa. Bertan, 2030erako lortzeko, arreta bereziki jarraitu beharreko 11 helburu nagusi identifikatzen dira. Horretarako, landu beharreko esparru estrategikoak identifikatzen laguntzen duten lau ardatzez gain, epe luzera begirako helburu estrategikoak ezartzen dira, eta edukiak zehazten dira helburu espezifikoaren bidez, eta horien erantzukizuna administrazio ezberdinenak da.

Berdintasunerako Legea eta 2030 Estrategia ez ezik, plan hau egiteko, kontuan izan dira **Gobernu Programan** ezarritako helburuak eta jarduerak, bereziki berdintasuna lortzearekin berariaz lotutakoak, zeinak datozen urteetarako hartutako gobernu-konpromisoak zehazten baitituzte.


---

<sup>1</sup> Aurrerantzean Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Lege modura aipatuko da.

## 3. SAILAREN ESKUMEN-ESPARRUAK

Justizia eta Giza Eskubideen Saila **eskumen-esparrutan** antolatzen da, eta horietan kokatzen dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko jarduketak. Jarduketa-eremu horiek, sarritan helburu berdinak dituztenak, kontuan izan dira Plana eratzekoan.

### Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren eskumen-esparruak



### Saileko berdintasun-planean parte hartzen duten sailburuordetzak, zuzendaritzak, erakundeak eta entitateak

- Justizia eta Giza Eskubideen Kontseilaritza
  - Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza.
  - Zerbitzu Zuzendaritza
- Justizia Sailburuordetza.
  - Justizia Administrazioko Zuzendaritza
  - Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza
  - Justizia Zuzendaritza
  - Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritza
  - Aukerak -Gizarteratzearen Euskal Agentzia.
- Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren Sailburuordetza.
  - Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritza
  - Gogora - Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua

## 4. PLANA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK

### 4.1. SAILAREN PLANA EGITEKO PROZESUA

**Diagnosia** egiteko, informazioa jasotzeko teknika kuantitatibo zein kualitatiboak uztartu dira, eta horiei esker txertatutako neurrien eta eskuratutako emaitzen arabera eman diren aurrerapausoak deskribatu eta baloratu ahal izan dira, egungo errealitatea zein den jakin, eta erronkak eta hobetzeko alderdiak identifikatzeaz batera. Zehazki, hiru lan nagusi egin dira: dokumentuen berrikuspena, elkarrizketan eta bilkurak teknikari eta politikariek. Lan-prozesuan, saileko **zuzendaritza guztiak** parte hartu dute, bai eta berdintasunerako neurriak sustatzen parte hartzen duten organismo eta entitate atxikiek ere.


Diagnosia sailaren egitura organikoa jarraituz egin bada ere, hau da, banaketa zuzendaritzen, erakunde publikoen eta entitate atxikien arabera egin bada ere, plana eratzeko aurretiaz aipatu den 2030 Estrategiako ardatzak eta helburuak oinarritzat mantentzen dituen ikuspegiaren alde egin da. Ikuspegi horren alde egiteko arrazoi nagusia, hain zuzen, diagnosiarekin jasotako informazioaren ondorioa izan da, agerian utzi baititu erronkak eta zuzendaritza ezberdinen artean **partekatutako helburuen** plangintza egiteko aukerak. Planteamendu horrek lankidetzarako eta genero-ikuspegia zeharka lantzeko aukera handiak irekitzen ditu.

Nabarmendu behar da Justizia eta Giza Eskubideen Sailak lotura berezia duela eskubideen babesarekin, bereziki zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen eskubideekin. Arrazoi hori dela medio, beren eskumenen barruan, jarduketa asko zuzenean lotuta egongo dira emakumeen eta gizonen **berdintasun formal eta materiala** lortzearekin eta **indarkeria matxistaren aurkako borrokarekin**, betiere, **sekzio arteko ikuspegi** batetik.

Plana eratzeko prozesuan zehar, zuzendaritza ezberdinek erakutsi dute berdintasunarekin eta indarkeria matxistaren aurkako borrokarekin lotutako beren jarduketa espezifikoak identifikatu eta hobetzeko prestutasuna, zein berriak diseinatzeko. Horregatik, sailaren jarduketak hedatzeko prozesua bereziki luzea da. Horren ondorioz, plan honetako helburu estrategikoek ikuspegi zabalagoa eskatu dute, helburu espezifiko gehiagori heltzeko, aldi berean, horiekin urteko plangintzan zehaztuko diren jarduketa guztiak barne hartu ahal izateko.

Lan-prozesua **bost lan-fasetan** egituratu da. Fase horiek gidatu dute Plan honen prestaketa, eta zenbait ekintza garatu dira horietan:

#### Plana prestatzeko gauzatu diren faseak eta ekintzak



FASEAK	EKINTZAK	PRODUKTUA EDO MATERIALAK	PARTE HARTU DUTEN ERAGILEAK
<b>AURRETIAZKO DIAGNOSIAREN FASEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Berdintasunaren arloko diagnosi-txostena prestatzea datu kuantitatibo eta kualitatiboekin 2022-2024.</li> <li>&gt; Saileko teknikariei eta politikariei elkarrizketa erdi-egituratuak egitea.</li> <li>&gt; Erkaketa eta zuzenketak sailekin.</li> </ul>	<p>Diagnosi-dokumentua</p> <p>Aurrerapenen eta erronken laburpen exekutiboa</p> <p>Adierazleen proposamenak jasotzen dituen taula</p>	<p>Zuzendaritzak</p> <p>Aholkularitza</p> <p>Berdintasunerako unitatea</p>
<b>PLANA DISEINATZEKO FASEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Helburu estrategikoen proposamena egitea.</li> </ul>	<p>Excel taula</p>	<p>Berdintasunerako unitatea</p>
<b>HELBURUAK ETA EKINTZAK IDENTIFIKATZEKO FASEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Helburu estrategikoak identifikatu eta diseinatzea.</li> <li>&gt; Zuzendaritzekin bilkurak egitea helburu estrategikoak eta espezifikoak adosteko.</li> <li>&gt; Jarduketa garrantzitsuenen plangintza egitea.</li> </ul>	<p>Zuzendaritza ezberdinetarako PPT-ak aurkeztea</p> <p>Excel taula</p>	<p>Berdintasunerako unitatea</p> <p>Zuzendaritza guztiak</p>
<b>PLANAREN ERKAKETA EGITEKO FASEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Teknikari/politikariekin jarduketak erkatzea</li> </ul>	<p>Planaren zirriborroa</p>	<p>Berdintasunerako unitatea</p> <p>Zuzendaritza guztiak</p>
<b>PLANA ONARTZEKO FASEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Saileko Zuzendaritza Kontseiluak plana onartzea.</li> </ul>	<p>Berdintasun Plana (Azken bertsioa)</p> <p>2026. urteko plangintza eta jarraipenera-adierazleak jasotzen dituen excel taula.</p>	<p>Berdintasunerako unitatea</p> <p>Zuzendaritza guztiak</p>

## 4.2. EGOERAREN DIAGNOSIA

XII. Legegintzaldira arte **Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila** izan denak, bere jarduketaremutik, emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna barne hartzen duten politiken garapenean lagundu du, hasiera batean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean, eta ondoren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko Legean ezarritakoarekin bat etorriz. Konpromiso hori, besteak beste, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2022-2024 Planean gauzatu da.

Azken urteotan, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean (2024az geroztik EAEn Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiak ordeztua) Emakundek planteatutako helburuen ildotik, dagoeneko desagertuta dagoen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika saila Gobernu Onarekin lotutako hainbat erronkari erantzuna ematen saiatu da (generoaren inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioarekin arauen portzentajea areagotzea; aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea; etab.) eta, aldi berean, Zuzendaritza ezberdinen bidez erkidegoko plan horretan lehentasunezko zat jotzen zituen ardatzei heldu die (emakumeen ahalduntzea, ekonomien eraldatzea eta eskubideak bermatu eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko gizarte-antolaketa).

Legegintzaldi-aldaketak Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzea eta horien egitekoak eta jardun-arloak zehaztea ekarri zuen.<sup>2</sup> Sailen egiturak berrantolatuta, 2024an Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila eta Justizia eta Giza Eskubideen Saila sortu ziren, eta horiek aurreko legegintzaldian Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailerako zehaztuta zeuden kompetentziak, egitekoak eta jardun-arloak baitaratu zituzten.

XIII. Legegintzaldi honetan, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Lege berriaren mandatuei erantzutea eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiak agindutako jarraibideak txertatzea ditu erronka berdintasunaren arloan.

Horrenbestez, jarraian aurkezten den berdintasunerako diagnostia funtsezko ariketa da berdintasunaren arloan Saileko politika publikoak garatzeko oinarriak finkatu ahal izateko, egungo arau- eta antolaketa-esparrua aintzat hartuz. Azken urteotan Zuzendaritza bakoitzak burututako jarduketan arabera azterketa bat egiteaz gain, Gobernu Onarekin lotutako esku-hartze espezifikoiari buruzko datuak bildu dira, Gobernu Ona sail osoaren zeharkako ardatza baita.

Atal bakoitzerako **diagnosi** erako informazioa eskaintzen da, etorkizunean jorratu beharko liratekeen **erronka** nagusiekin batera.

Berdintasunerako Diagnostika izeneko atal hau esparru hauen inguruan egituratzen da:

- Gobernu Onari lotutako esku-hartzea
- Justizia Administrazioaren Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea
- Justizia Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea
- Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea
- Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea
- Zerbitzuen Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea
- Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea
- Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea

<sup>2</sup> 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen.

- Gogora organismoari (organismo autonomoa) lotutako esku-hartzea
- Aukerak erakundeari (zuzenbide pribatuko erakunde publikoa) lotutako esku-hartzea

Aztertutako bloke bakoitzerako eskuragarri dagoen informazio garrantzitsua (kualitatiboki eta kuantitatiboki) eskaini nahi izan da, etorkizunean jorrazteko zenbait erroka planteatzearekin batera. Haatik, eta diagnosia errepikakorra ez izateko, Zerbitzu Zuzendaritzaren azterketa laburragoa da, izan ere, bere jarduketa gehienak dagoeneko islatuta geratzen dira Gobernu Onari lotutako esku-hartzearen atalean.

## 4.2.1. Gobernu Onari lotutako esku-hartzea

### Diagnostiko orokorra eta errokak, Gobernu Onari dagokionez

Gobernu Onari buruz hitz egiteak, berekin dakar, modu saihestezinean zeharkakotasunaz eta administrazio publikoaren jarduketa bakoitzean emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko borondatea eta konpromiso politiko esplizitua izateari buruz hitz egitea. Konpromiso politiko hori egon dadin, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzea lehentasuntzat eta norabide guztietan egin beharreko ekintza politikoaren bidez pixkanaka erdietsi beharreko helburutzat hartu behar da.

Atal honetan, sail guztietan ageri den ardatz bat jorrazten da, hots, Gobernu Ona, eta dagoeneko desagertuta dagoen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikako Sailak egindako lanari buruzko atzeranzko begirada eskaintzen da, egungo Justizia eta Giza Eskubideen Sailarentzat esparru horretan lehentasun eta garrantzia gehien duten alderdietan bereziki erreparatuz.

### 1. HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA

#### 1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA

##### **Berdintasunaren arloko berariazko araudia**

Arauari begira, aurreko legegintzaldiko mugari nabarmenena, zalantzarik gabe, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen Testu Bategina izan da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartua**. Aldaketa horrek berdintasun arloko politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak indartzea ekarri du; administrazio langileak berdintasun arloan prestatzea bultzatzen du; jarduketa jakin batzuetarako salaketa ipini behar ez izatea dakar; ikasgeletan hezkidetzeta-lana indartzen du; haur eta nerabeei indarkeria matxistaren aurrean babes gehiago ematen die; emakumeen aurkako indarkeria mota guztien biktimak artatzeko sistema hedatzen du; hautemate goiztiarrerako sistemak hobetzeari heldzen dio; neurri guztien muinean ipintzen ditu biktimaren eskubideak eta bere ahaldundetza; eta, beste aurrerapen askoren artean, biktimen erreparatzeko eskubidea aitortzea ere ahalbidetzen du.

Halaber, 2023an **02/2023 Instrukzioa onartu zen, espetxe-eremuan trans pertsonen tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, aitortu, bermatu, babestu eta sustatzeari buruzkoa**. Instrukzio horretan espetxeetan dauden trans pertsonen tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, aitortu, bermatu, babestu eta sustatzea ziurtatzeko mekanismoak, tresnak, neurriak eta jarraibideak ezartzen dira.

## Sailaren berdintasunerako plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legean ezartzen den eran, Berdintasun, Justizia eta Gizarteko Politikako Sailak berezko **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana** izan du, berdintasunaren arloko beste 3 planen ondorio zena. Justiziaren kasu zehatzean, desagertutako sailaren planaren aurretik, Lan eta Justizia Sailaren (2018-2021) planari egon da lotuta.

Desagertutako sailaren **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2022-2024)**, indarrean dagoena, eta Zuzendaritza ezberdinetako teknikariekin garatu zena, sailak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan burutzeko jarduketa gidatzeko dokumentu gisa egituratzen da, eta berdintasunaren arloan plangintzara bideratutako aurrekontu espezifikoa du. Plan horrek garapen esanguratsua izan du bere lehentasunezko helburuei so. Planean jasotzen diren **lehentasunezko 15 helburuei** begiratuz, horietako 6 Gobernu Onarekin daude lotuta, eta Zerbitzuen Zuzendaritzari dagozkie. Jarraian, helburu horien garapena deskribatzen da:

Sailaren berdintasunerako planean Gobernu Onarekin lotuta dauden lehentasunezko helburuak	Garapena
<b>1. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontuak gehitzea (GO2). Zerbitzu Zuzendaritza</b>	2021., 2022., 2023. eta 2024. urteetan berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua 30.000 eurotan mantendu da. Gaur egun, Justizia Administrazio Zuzendaritza beste 30.000 euro ditu esleituta bere berdintasun-planetik berdintasun-politikak garatzeko.
<b>2. Berdintasunerako Administrazio Unitatea indartzea (GO4) Zerbitzu Zuzendaritza</b>	Berdintasunerako Administrazio Unitatea indartu egin da, aurreko legegintzaldian, berdintasunerako teknikarirako lanpostu bat sortuta, Justizia Administrazio Zuzendaritzara atxikia.
<b>3. Saileko langileak prestatzea, politikariak barne (GO5). Zerbitzu Zuzendaritza</b>	Unitateak berdintasunaren arloko ikastaroak antolatu ditu (2024an izan ezik, legegintzaldi-aldaketaren ondorioz antolatzeke zeuden zailtasunak zirela medio) eta langileak IVAP eta Emakunde berdintasunaren arloan antolatutako ikastaroetara joatea bultzatu da (berdintasunaren arloko ikastaroak egin egin daitezkeen urteroko ikasturteen barruan ez sartzeko ekintza positiboko neurria mantenduz, horrek prestakuntza gehiago jasotzeko aukera ematen baitu).
<b>4. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea (GO9). Zerbitzu Zuzendaritza</b>	Genero-inpaktua ebaluatzeko txostenak egin dira araudiarekin bat etorritz.
<b>5. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea (GO10). Zerbitzu Zuzendaritza</b>	Urtero aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko ahalegina egin da Zuzendaritza guztien parte-hartzearekin, P-Gen inprimakiak erabiliz.
<b>6. Genero-ikuspegia txertatzea arloko eta zeharkako planetan (GO11). Zerbitzu Zuzendaritza</b>	Genero-ikuspegia txertatu da arloko eta zeharkako planetan. Dena den, ez da Berdintasunaren Administrazio Unitatearen aholkularitza modu sistematikoan izan.

1. taula: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikako Sailaren saileko Berdintasun Planaren lehentasunezko helburuak Gobernu Onarekin lotuta .

## Plangintza instituzionaleko kultura

Egin diren plan, programa edo estrategia garrantzitsuenek saila gidatzen duten plangintzak islatzen dituzte, plan horren bidez jorratzen diren alderdi ezberdinetan berdintasunaren zeharkakotasuna islatzeaz batera. Berrikusitako plan eta estrategia guztietan, modu batera edo bestera, berdintasunaren aipamenak jasotzen dira: horien printzipioetan, helburu espezifikoaren bidez, ekintza zehatzen bidez helburu estrategiko orokorren barruan... Azken legegintzaldian egungo Justizia eta Giza Eskubideen Sailarekin lotutako plan hauek onartu dira:

### Justizia Administrazio Zuzendaritza

- Funtzionarioen II. Berdintasun Plana.
- Indarkeria-epaitegietan aritzen diren langileen osagarrian aldaketa ekarri duen IV. akordioa.

### Justizia Zuzendaritza

- Justizia Errestauratiboaren EAEko Estrategia, 2022-2025

### Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza

- Justizia Digitalaren Plana, 2021-2026
- Egoitza Judizial Jasangarrien Plana, 2022-2030
- Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea errazteko plana.
- Justiziaren Plan Estrategikoa, 2022-2028

## Barneko planak eta protokoloak

### Langileei zuzendutako berdintasunerako barneko planak

2023az geroztik, Justizia Administrazio Zuzendaritzak bere barneko berdintasun-plana du: **EAEko Justizia Administrazio Zuzendutako langileentzako berdintasunerako II. plana (2022-2025)**. Plan horretan hainbat alderdirekin lotutako ardatzak eta ekintza-ildoak jasotzen dira, besteak beste: langileen prestakuntza eta sensibilizazioa gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren arloan; langileek bizitza pertsonala, familia eta lana kontziliatzeari begira duten pertzepzioari buruzko ezagutzan sakontzea, horri dagokionez dauden neurriak egokitu edota hobetze aldera; epaitegietara iristen diren indarkeria matxistako kasuen gaineko ezagutza eta, horrenbestez, biktimei emandako arreta hobetzea; EAEko Justizia Administrazio Zuzendutako langileen artean gerta daitezkeen sexu-jazarpen edo sexuan oinarritutako jazarpen kasuak desagerraraztea; dokumentuak prestatzean, zein EAEko Justizia Administrazioaren jakinarazpenetan hizkuntzaren erabilera ez sexista bultzatzea; edo justiziaren zerbitzu publikoan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna bermatzea eta sexuan oinarritutako zuzeneko edo zeharkako diskriminazioak desagerraraztea. Gainera, plan horri bultzada eta estaldura emateko xedez, **Bultzada eta Jarraipen Batzorde** bat sortu da, eta bertan Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren langileak daude ordezkatuta.

### Sexu-jazarpenaren edota sexuaren ziozko jazarpenaren protokoloa

Eusko Jaurlaritzak 2021eko irailaren 1eko Agindua argitaratu zuen,<sup>3</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren organismo autonomoen barnean sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak gertatzen direnerako jarduteko prozedura arautzekoa. Protokolo hori zehazten duen prozeduraren bidez, Administrazio Orokorren eta haren organismo autonomoen zerbitzura dagoen edonork, edo administrazioaren esparruan jazarpena izan daitezkeen edozein portaera ohartarazten duen edonork, aukera izango du

<sup>3</sup> <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/09/2104613a.pdf>

Aholkularitza Konfidentzian erreferente diren pertsonen harremanetan jartzeko, bere egoerari eta, hala badagokio, jarduketara eta neurri egokiei buruzko aholkularitza egokia jasotzeko.

Sail guztiak, sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak gertatzen direnerako jarduteko prozedura arautzen duen Aginduari lotuta badaude ere, **Justizia Administrazio Zuzendaritzak berezko protokoloa garatu du**, bere zerbitzura dauden langileen premiak asetzeko xedez. Protokolo hori Zuzendaritzaren baterako lan bati esker diseinatu da, EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen Berdintasunerako II. Planeko jarduketak garatzearen barruan. Arlo judizialeko izapidetze, kudeaketa eta laguntza arloan aritzen diren langileen zein Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko medikuntzako profesionalen premia espezifikotara egokituta dagoen tresna da. Halaber, **aholkularitza konfidentziala eta ikerketa batzorde bat** sortu dira, protokoloa abiaraziz gero, jasotzen diren mekanismoak behar bezala hedatzeko.

## **2. ILDOA. ANTOLAKETA-BALIABIDEAK: BERDINTASUNERAKO UNITATEAK**

**Berdintasunerako Administrazio Unitatea** da saileko Berdintasun Plana gauzatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko, zein saileko organo eta langileei aholkularitza eskaintzeko arduraduna Eusko Jaurlaritzako sailetan, organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten administrazio unitateak arautzeko azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak ezartzen duen eran.

Desagertuta dagoen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika sailak, 2008az geroztik, teknikari-lanpostua izan du berdintasunerako Administrazio Unitatean. Lanpostu horretarako, lanaldi osorako pertsona bat zegoen kontratatuta, berdintasunaren arloan prestakuntza eta esperientzia egiaztatua zuena. Sail berrian, Justizia eta Giza Eskubideen Sailean, lanpostu hori mantendu egiten da, eta Zerbitzu Zuzendaritzan kokatua dago, berdintasunaren alorreko eskumenak zuzendaritza horri dagozkiolako, Justizia eta Giza Eskubideen Sailean egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuan ezartzen den eran.

Legegintza aldatu eta saila berregituratu arte, gainera, beste bi plaza zeuden Berdintasun Unitatearen zereginean laguntzeko: Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzara atxikitako berdintasunerako teknikari bat (gaur egun, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailean egiten du lan) eta LPZn ageri dena (emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan), eta berdintasunerako beste teknikari bat, 2023an kontratatua, eta Justizia Administrazio Zuzendaritzara atxikia.

Horrenbestez, Justizia eta Giza Eskubideen Sail berriak **berdintasunerako teknikari-plaza bat du Administrazio Unitatean** (Zerbitzuen Zerbitzu Zuzendaritza barruan) eta **Justizia Administrazio Zuzendaritzara atxikitako berdintasunerako teknikaria** ere bai.

Diagnosi hau egin zenean, sail honetara atxikitako organismo autonomoan eta erakunde publikoan (Aukerak eta Gogora) edo dago, oraindik, Berdintasunerako Administrazio Unitaterik.

XXI. Legegintzaldian, Berdintasunerako Administrazio Unitateak hainbat dokumentu egin ditu saileko teknikari eta politikariei aholkularitza edota laguntza metodologikoa emateko; gainera, aholkatzeko, koordinatzeko eta laguntza metodologikoa emateko bilera edo saioak egin ditu saileko teknikari eta politikariek nahiz beste erakundeetako ordezkariekin, sailaren eginkizunetan genero-ikuspegia integratzeari buruzko aholkuak emateko, prozesua berrikusteko, elementuak gehitzeko eta, azken finean, integrazio-maila hobetzeko. Zehazki, honako hauek dira Berdintasunerako Administrazio Unitatearen eskumeneko zeregineko orokorretako zenbait:

- Sailak, berdintasunaren plangintzari dagokionez, egin beharreko dokumentuak prestatzea.
- Saileko araudian eta genero-inpaktua neurtzeko egiteko ebaluazioetan genero-ikuspegia barneratzea.
- Dirulaguntzetan berdintasunarekin lotutako klausulak barneratzeko proposamen teknikoak egitea.
- Sailak egindako jarduketan urteko emaitzen ebaluazioa egitea.

- Ebaluazio-eredua hobetzeko proposamenak aztertzea, urteroko erkaketak egitea eta Eusko Jaurlaritzako sailetan berdintasunaren arloko jardunari buruz Emakundek egiten dituen jarraipenerako txostenetan ekarpenak egitea.
- Aholkularitza eskaintzea aurrekontu-programetako generoaren (PGEN) inguruko azterketen inprimakiak betetzean.

### **3. ILDOA. BALIABIDE TEKNIKOAK: TREBAKUNTZA**

#### **Genero-ikuspegia barneratzen duten prestakuntza-ekintzak**

Eusko Jaurlaritzaren prestakuntza-jarduera, berdintasunaren arloan, Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren, Emakunderen eta IVAPen artean egiten da 2008az geroztik, prestakuntza-plan baten bidez. Plan horrekin Eusko Jaurlaritzako langileei beren zereginetan aritzeko trebakuntza egokia eskaini nahi zaie. XII. legegintzaldian Berdintasunerako Administrazio Unitateak ikastaro, mintegi eta jardunaldien hedapen hautazko eta espliziturako hainbat ekintza burutu ditu Plan horren esparruan.

Berdintasunaren arloan langileen trebakuntza sustatzeko neurri nagusietako bat desagertutako saileko Zerbitzu Zuzendaritzak bultzatutako **ekintza positiboko neurria** da, aukera ematen duena **urtean gehienez egin daitezkeen bi prestakuntzetatik aparte uzteko Emakundek, IVAPek edota Eusko Jaurlaritzako sailek berdintasun arloan antolatutako ikasturteak**. Oraindik indarrean dagoen Instrukzio horri esker, arlo horretako prestakuntza areagotu daiteke, beste prestakuntza zenbait egiteari muzin egin beharrik gabe.

Langileek, gainera, berdintasunaren arloko edo emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako beste prestakuntza-ekintza batzuetan (jardunaldiak, mintegiak, etab.) parte hartu dezakete, IVAPek, Emakundek edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek (tokiko erakundeak, Aldundiak, Unibertsitateak, etab.) bultzatutakoetan parte hartzea gorabehera. Sailak baimena ematen du jardunaldi edo mintegi horietara lan-orduetan parte hartzeko, edukiak lanpostuarekin duen lotura, zerbitzuaren premiak eta horretarako aurrekontu-zuzkidura kontuan izanik.

Desagertutako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzak 2020an **berdintasunaren arloko prestakuntza-premien diagnostia** egin zuen, eta 2021ean lau urtera begirako **Prestakuntza-plan** bat hedatu zuen, guztiz gauzatu ez dena sailak berregituratzean izan diren egiturazko aldaketa eta antolaketarako zailtasun batzuen ondorioz.

Berdintasunerako Administrazio Unitateak berdintasunaren arloan sustatutako barneko prestakuntzaren datuei erreparatzen badiegu, azken legegintzaldian 13 prestakuntza-ekintza egin dira (2022. eta 2023. urteetarako eskuragarri dauden datuen arabera), hala euskaraz, nola gaztelaniaz. Horietan 53 pertsonak parte hartu dute (% 80 emakumeak). Prestakuntza horietan saileko teknikari zein administrarietako parte hartu dute.

Urtea	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Prestakuntza-ekintzak
2021	-	-	-	-
2022	42	11	53	6
2023	43	10	53	7
2024	-	-	-	-

2. taula: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren prestakuntza-datuak, sexuaren arabera banakatuta.

Barneko prestakuntzaz gain, zenbait datu jaso dira langileek IVAPek eskainitako prestakuntzan izandako parte-hartzearekin lotutako datu-basearen bidez.

	2021	2022	2023	2024 <sup>4</sup>
Saileko langileek parte hartu duten eta IVAPek kudeatu dituen berdintasunaren arloko prestakuntza-kopurua	-	6	2	5
IVAPek kudeatutako berdintasunaren arloko prestakuntzetara bertaratu den pertsona-kopurua	-	12	4	10

3. taula: IVAPek azken legegintzaldian berdintasunarekin lotuta emandako prestakuntzan desagertuta dagoen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Zuzendaritzako langileek izandako parte-hartzeari buruz Zerbitzu Zuzendaritzak emandako datuak.

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak berezko erregistroa egin du berdintasunarekin eta indarkeria matxistaren aurkako borrokarekin lotuta Zuzendaritza Zerbitzuan ari diren langileek jasotako prestakuntzari buruz. Prestakuntza horietako batzuk IVAPek antolatu ditu Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) lankidetzarekin; beste batzuk erakunde eta entitate pribatuek emandakoak dira, eta espezializazio-maila handia eskaintzen dute; azkenik, Zuzendaritzak berak antolatutako barneko prestakuntza jaso du hirugarren talde batek. Besteak beste, genero-indarkeriari, sexu-indarkeriari, haur eta gazteen aurkako indarkeriari eta trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko 4/2023 Legearekin lotutako sentsibilizazioari buruzko prestakuntzak egin dira, eta emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegien berezitasunei buruzko ikastaro espezifikoak ere bai.

Urtea	AMEI		Epaitegiak <sup>5</sup>		Talde psikosozialak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
2021	5	0	129	24	4	1
2022	11	2	347	68	17	2
2023	9	1	269	76	14	1
2024	4	0	511	98	8	2

4. taula: Azken legegintzaldian Justizia administrazioan aritzen diren langileek berdintasunarekin lotutako aurrez aurreko eta online prestakuntzetan (IVAP, EHU, besterik) izandako parte-hartzeari buruzko datuak, sexuaren arabera banakatuta.

	2023		2024	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen Berdintasunerako II. Plana Bultzatu eta Jarraipena egiteko Batzordea trebatzeko prestakuntza <sup>6</sup>	8	1	16	12

5. taula: EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen Berdintasunerako II. Plana Bultzatu eta Jarraipena egiteko Batzordea trebatzeko prestakuntzan izandako parte-hartzeari buruzko datuak, sexuaren arabera banakatuta.

Prestakuntza arlo honen azterketan datuen bilketa egiteko koordinazioan zailtasunak ikusi dira oro har langileen prestakuntzan esku-hartzen duten eragileen artean, eta ez dago adostasun argirik prestakuntzetarako plazak esleitzeko irizpideei edo beharrezkoa den prestakuntza motari buruz. Saileko langileen trebakuntzari buruzko datuen bilketan informazioa eta sistematizazioa mugatua da, eta horrek baldintzatu egiten du azterketa sakonagoa egin ahal izatea prestakuntzarekin lotuta langileen duten benetako egoerari eta dituzten premiei buruz. Halaber, nabarmendu behar da azken ekitaldian langileen artean izan diren aldaketen eta egiturak

<sup>4</sup> Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren parte-hartzeari buruzko datuak jasotzen ditu soilik.

<sup>5</sup> Arlo judizialeko kudeaketa, izapidetze, eta laguntza arloan aritzen diren langileak.

<sup>6</sup> Batzordean Justizia administrazioiko langileen ordezkariak parte hartzen dute.

berriro konfiguratzearen ondorioz, langileen prestakuntzari buruzko datu garrantzitsuak galdu direla. Beraz, arlo horretan erronka handi samarra dagoela hautematen da.

#### 4. ILDOA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legean zenbait mandatu ezartzen dira<sup>7</sup> aurrekontu publikoetan genero-ikuspegia txertatzearekin lotuta, berdintasun-politiketara bideratutako aurrekontuetan % 1era iristeko edo Berdintasunerako Unitateetara aurrekontuan esleipen egokia bideratzeko xedez. Haatik, 2030 Estrategian, epe luzearako helburu gisa, aurrekontuaren % 1,5 (gutxienez) berdintasun-politiken garapenera bideratzea proposatzen da.

Sailari dagokionez, berdintasunaren arloko gastu espezifikoarekin lotutako aurrekontuari buruzko datuak zuhurtziaz begiratu behar dira, berdintasunaren arloan eskusiboki egindako gastua zehazki jakitea zaila baita, zeharkako gaia delako. Zenbait kalkulatu egin dira Eusko Jaurlaritzako sailen eta Emakunderen Organismo Autonomo/Erakunde Publiko eta Enpresa Pribatuen jardueraren jarraipenerako Memoretatik, eta Ogasun eta Ekonomia Sailaren txostenetatik abiatuz. Datu hori oinarritzat hartuta, orientagarri gisa eta dagokion zuhurtziarekin, esan liteke desagertutako Sailak aurreko legegintzaldian sailak egindako gastuaren % 1 eta % 1,2 artean berdintasunera bideratu ahal izan duela.

Berdintasunerako Administrazio Unitateak **berdintasunaren arloko jarduketetarako aurrekontu espezifiko bat** izan du XII. Legegintzaldian Zerbitzu Zuzendaritzako aurrekontu-partidaren barruan, berdintasunaren arloan egindako gastutik haragoko jardueretarako. Zehazki, 2021etik gaurdaino, urtean 30.000 euroko zenbateko espezifiko du bideratuta jarduketak garatzeko (2021ean zenbatekoa bikoiztu egin zen aurreko urtearekin alderatuz). Legegintzaldiaren aldaketarekin eta sail berriaren sorrerarekin ez da zenbateko hori aldatu, eta aurrekontua Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren eta Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren artean ere ez da banatu. Aitzitik, bi sailei aurretiaz esleitzen zitzaien aurrekontu bera esleitu zaie. Horrek igoera esanguratsua dakar Berdintasuneko Administrazio Unitateek beren urteko jarduna garatu ahal izateko. Halaber, Justizia Administrazioko Zuzendaritzak beste 30.000 euro ditu esleituta berdintasun-politikak garatzeko.

Aurrekontua	2021	2022	2023	2024
BAUK berdintasunaren arloan jarduketak egiteko duen aurrekontua	30.000 €	30.000 €	30.000 €	30.000 €
Justizia Administrazioko Zuzendaritzak berdintasunerako II. Planeko jarduketak garatzeko duen aurrekontua.	-	-	30.000 €	30.000 €

6. taula: Azken legegintzaldian berdintasunerako unitatearen jarduketetara edo Justizia Administrazioko berdintasunerako II. Planeko jarduketara bideratutako urteko aurrekontu espezifikoak.

Desagertutako sailaren berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloekin zuzenen lotutako **jorrazteko gai espezifiko**en artean, nabarmendu behar da aurrekontu adierazgarria izan dela prozedura horiek beregain

<sup>7</sup> Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legeak ezartzen duenez, EAEko administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dutela aurrekontu publikoetan, bereziki haiek taxutzeko fasean, emakumeen eta gizonen premia diferentek kontuan izateko eta berdintasuna sustatzen eta sexuan oinarritutako desberdintzak desagerrarazten laguntzeko. Bestalde, 11. artikuluan ezartzen denez, Administrazio Unitateek beren helburuak behar bezala betetzen direla bermatzeko aurrekontu-esleipen egokia izan behar dute.

hartzen dituzten **Emakumearen aurkako Indarkeriako Epaitegiak eta Epaitegi Mistoak** egokitzeko, justizia-zerbitzua behar bezala ematea eta biktimak eta horien ardurapeko adin txikikoak babesteko eta haien intimitatea eta erosotasuna bermatzeko espazioak eta ekipamenduak izan ditzaten.

Bestalde, **Biktima Laguntzeko Zerbitzuan (BLZ)** arreta emateko profesional-kopurua handitu egin da. Horrekin, arreta-ahalmena handitzea lortu da, eta horrek erabiltzaileentzako itxarote-zerrenda murriztea eta esku-hartzea arinagoa izatea ahalbidetu du.

Gainera, **Doako Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzuak** egindako gastua eta, besteak beste, genero-indarkerian eta sexu-indarkerian txanda espezifikoak betetzen dituzten profesionalen prestakuntzarako gastua mantendu egin da.

Gainera, 2010. urteaz geroztik, Saila laguntzen ari da Eusko Jaurlaritzako **urteko aurrekontuetan generoak duen eraginari buruzko aurretiko ebaluazio-txostena egiteko prozesuan**, Ogasun eta Ekonomia Sailari informazioa emanez emakumeek eta gizonak Sailean eta haren esku-hartze esparruan bizi duten egoerari buruz, baita berdintasunaren alorrean aurrekontu-programek barne hartzen dituzten jarduketei buruzkoa ere.

2017tik aurrera, Aurrekontu Orokorrak zehazteko Gidalerro Ekonomikoetan eta Arau Teknikoetan adostutakoaren arabera, Sailak **aurrekontu-programak genero-ikuspegitik aztertzeo inprimakiak** bete ditu. Berdintasunerako Administrazio Unitateak Saileko Zuzendaritza guztien partaidetza eta lankidetzatza duen prozesu bat koordinatzen du, eta inprimaki horiek betetzeko aholkularitza eskaintzen du.

Jarraian, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA helburu estrategikoari lotutako erronka nagusiak aurkezten dira, Berdintasunerako 2030 Estrategian zehaztutakoaren arabera.

<b>1. HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA</b>	
LERROA	ERRONKAK
<b>1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Berdintasunarekin lotutako araudi espezifikoak garatzen jarraitzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategian ezartzen denari jarraituz.</li> <li>➤ Berdintasun-planetako datuen bilketan sistematizaziorako urratsak ematea, datu horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta datuak biltzeko tresnak eta adierazleak hobetzeko.</li> <li>➤ Zuzendaritzak modu aktiboan inplikatzeko saileko berdintasun-planen jasotzen diren neurriak eta jarduketak txertatzeari begira.</li> <li>➤ II. Berdintasun Planaren eta Justizia Administrazio Unitatearen Zuzendaritzatik ematen den sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko protokoloaren jarraipena egitea.</li> <li>➤ Sailak gaikako arlotan dituen jarduketak bideratzeko indarrean dituen estrategiak eta planak berrikustea, genero-ikuspegiaren zeharkakotasunean lagunduko duten helburuak hobetu edota berriak garatzeko.</li> <li>➤ Genero-ikuspegia planen eta estrategian garapenean sartzen dela bermatzea arloan prestatutako pertsonen parte-hartzearekin.</li> </ul>
<b>2. ILDOA. ANTOLAKETA- BALIABIDEAK:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Berdintasunerako Administrazio Unitatearen 30.000 euroko aurrekontua mantentzea.</li> <li>➤ Berdintasunerako Administrazio Unitateak gainerako Zuzendaritzekin kontaktuan eta harremanetan izateko bideak indartzea ohiko koordinazioa eta aholkularitza ahalbidetzeko, eta ikuspegi feminista sartzen laguntzeko.</li> </ul>



<p><b>BERDINTASUNERAKO UNITATEAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Berezko berdintasun-unitatea duten zuzenbide pribatuko erakunde eta entitate publikoen kopurua handitzea.</li> <li>➤ Berdintasunerako Administrazio Unitatera atxikitako langile kopurua handitzea saileko jarduketan gaineko jarraipen hobea egiteko, eta arloko gaien aholkularitzan sakondu ahal izateko.</li> </ul>
<p><b>3. ILDOA. BALIABIDE TEKNIKOAK: TREBAKUNTZA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ IVAPek berdintasunaren arloan eskainitako prestakuntzan langileen parte-hartzea bultzatzea (bereziki, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako oinarritzko prestakuntzan), prestakuntza-jardueren bikoizketarik egon ez dadin.</li> <li>➤ Langileek berdintasunaren arloan egiten dituen ikastaro guztien, Berdintasunerako Administrazio Unitateak eskainitakoena zein IVAPek edo beste erakunde batzuek eskainitakoena, informazioa izatea (prestakuntzaren izena, parte-hartzaileak sexuaren arabera banakatuta eta prestakuntza-orduak).</li> <li>➤ Sailean berdintasunaren arloko prestakuntza-plan espezifiko bat izatea, Politikariei, teknikariei eta administrariei zuzenduta.</li> <li>➤ Saileko langileek berdintasunaren arloan duten prestakuntza mota zein den jakiteko aukera ematen duen datu-bilketarako sistema bat txertatzea.</li> <li>➤ Saileko teknikari eta politikari guztiek berdintasunaren arloan derrigorrezko oinarritzko prestakuntza izan dezatela bermatzea Berdintasunerako Legea betetze aldera.</li> <li>➤ Zuzendaritza bakoitzaren premietara egokitutako prestakuntzak eskaintzea.</li> </ul>
<p><b>4. ILDOA. BALIABIDE EKONOMIKOAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua areagotzen jarraitzea (% 1,5etik gorakoa izan dadin).</li> <li>➤ Langileak prestatzea, genero-ikuspegia aurrekontuetan gaineratu ahal izateko.</li> <li>➤ Berdintasunaren alorreko jarduketei buruzko aurrekontu-esleipenean Zuzendaritzen aurrekontu-memoriak zehazteko lanean aurrera egitea.</li> </ul>

## 2. HELBURU ESTRATEGIKOA: ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA

### 5. ILDOA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek ibilbide luzea dute garatzen dituzten **baterako administrazio-jarduketa, -prozedura eta -prozesuetara** genero-ikuspegia gaineratzeko. Haatik, genero-ikuspegia intentsitate ezberdinarekin txertatzen da administrazioaren jardunean lan-prozedura motaren eta administrazio publikoaren mailaren arabera.

EAEEn Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiak ezartzen dituen helburu estrategikoak eta ildoak jarraituz, atal honetan genero-ikuspegia honako gai hauekin lotuta administrazioaren jardunean zer neurritan gaineratu den aztertzeke ahalegina egin da: genero-ikuspegia duten estatistikak eta azterketak; komunikazio ez sexista; araudiaren ebaluazioa; auzitegietako, epaitegietako eta antzeko organoetako hautaketa-prozesuak; emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatua; kontratazioa, dirulaguntzak, hitzarmena eta laguntzak, zein plan estrategikoak eta arlokoak.

#### Genero-ikuspegia duten estatistikak eta azterketak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legeko 17. artikuluan estatistikak eta azterketak egiteko jarraibide espezifikoak ezartzen dira. Jarraibide horien artean, datu-bilketan, inkestetan, sexuaren aldagaia gaineratzearen, diskriminazio anitza aztertzeke estatistika-eragiketetan adierazle berriak sartzearen eta balioei, rolei, egoerei, baldintzei, nahimenei eta premiei dagokienez bi sexuen artean dauden aldeak hobeto ulertzearen garrantzia azpimarratzen da. Gainera, emakumeen lana aitortzeke eta baloratzeko aurretiaz dauden definizio estatistikoak berrikusteko eta egokitzeko, eta emakumeen talde jakin batzuk estigmatizatzea prebenitzeko premia nabarmentzen da.

Desagertuta dagoen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak aurreko legegintzaldian berezko unitate espezifiko bat izan du, hain justu, **Saileko Estatistika Organoa**<sup>8</sup>, gaur egun, bere jarduna Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren barruan garatzen duena. Bere helburua estatistikak eta azterketak koordinatzea, eratzea eta hedatzea izan da. Organo horrek sexuaren aldagaia sartu du sistematikoki Sailak emandako estatistiketan, inkestetan eta datu-bilketetan, eta informazioa ustiari eta interpretatzean, ahal izan den heinean, kontuan izan ditu sexuaren arabera banakatutako datuak. Halaber, sexuaren aldagaiaren eta desberdintza anitzeko egoerak dakartzaten beste aldagai batzuen (adibidez, adina, errenta, jatorria, desgaitasuna, etab.) arteko erkaketa erabili du emaitzak ustiari eta interpretatzean.

Honax aurreko legegintzaldiko zenbait estatistika eta azterketa ofizial:

- Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Inkesta (GZGEI)
- EAEko Gizarte Zerbitzuetarako Gastu Publikoari buruzko Ikerketa (GZGP)
- Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika – Gizarte Premiei buruzko Inkesta (GZEE-GPI)
- Zahartze aktiboaren indizea (ZAI)
- Euskal familien eta familia-etxeetako arazo sozialak (EFE).
- Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkesta (PGDI)
- Atzeritar Jatorriko Biztanleen Estatistika (AJBE).
- Emakumeen aurkako indarkeriari eta pertsonen arteko beste indarkeria mota batzuei buruzko inkesta
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) Administrazio Estatistika
- GLL-BGL laguntzen Onuradun diren Herritarren Estatistika
- Presoen hileko estatistika
- Gazteriaren panorama (legegintzaldiaren erdira arte; izan ere, ondoren Lehendakaritzara eraman zen)

<sup>8</sup> Garrantzitsua da nabarmentzea Estatistika Organoaren zeregina Sailak behar dituen estatistikak egitea dela, garapen-txostenak egitea baino gehiago; azken zeregin hori arloko eremuei dagokie, aldeek besterik eskatu ezean.

**Emakumeen aurkako indarkeriari eta pertsonen arteko beste indarkeria mota batzuei buruzko inkesta** izan da aurreko legegintzaldian berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren arloan egindako jarduketa garrantzitsuenetako bat. Lau urtean behin egiten den inkesta horren helburua da EAEko emakumeek esparru publikoan zein pribatuan, gaur egun eta iraganean, jasandako indarkeria-modu ezberdinen eragina eta neurria zein den jakin, ikertu eta ebaluatzea. Sailen berregituraketa eta eskuduntzen esleipen berriaren ondoren, jarduketa horrekin Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak jarraituko du, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak beregain hartuko dituen estatistika-eragiketak alde batera utziz.

**El Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren Estatistika Organo Espezifiko**a berriki sortutako organoa da(2025), eta Justizia Zuzendaritzarekin lotuta, aurretik egiten ziren estatistikei, esate baterako, Presoen hileko estatistikari, jarraipena emango die<sup>9</sup>. Bertan askatasunaz gabetutako pertsona-kopuruari buruzko informazioa jasotzen da pertsonen sexuaren eta Lurralde Historikoaren, jatorriaren eta adinaren arabera banakatuta; era berean, baldintzapeko askatasunean dauden pertsona-kopuruari buruzko informazioa jasotzen da sexuaren arabera banakatuta<sup>10</sup>.

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak, gainera, honako informazio hau jasotzen du, zuzendaritza ezberdinetako zerbitzuetako memorien bidez:

- **Biktima Artatzeko Zerbitzuaren**<sup>11</sup> urteko memoria: artatutako pertsona-kopuruaren berri ematen du sexuaren, izapidetutako espedienteen, biktimizazio-motaren, delitu-kopuruaren eta arreten arabera banakatuta.
- **Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzuaren**<sup>12</sup> (ZKEZ) urteko memoria: ZKEZri betearazteko igorritako neurri penalei buruzko datu orokorrak, eta ZKEZk egin eta kudeatu dituen betearazpen-planak biltzen dira. Espetxeaz aparteko neurri buruzko datuak eskaintzen ditu pertsonaren sexuaren edo neurriaren arrazoiaren arabera (horien artean daude genero-indarkeria, familia barneko indarkeria edo sexu askatasunaren aurkako indarkeria). Esku-hartze planei buruzko datuak jasotzen ditu, pertsonaren sexuaren eta neurriaren arrazoiaren arabera.
- **Justizia Errestauratiboko Zerbitzuaren**<sup>13</sup> urteko memoria: artatutako auziei, eratorpenei, itxitako eta itzulitako espedientei eta erabilitako bitartekaritza-prozesuei buruzko datuak jasotzen dira. Sexuaren arabera banakatzen da itxitako espedienteetako pertsona esku-hartzaileen profila.
- **Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen**<sup>14</sup> estatistika: zuzendariordetza bakoitzaren memoria aurkezten da, banaka helarazitako datuekin (ez dago hiru probintzietarako txantilo bateratu bat). Patologia egonez gero, hurbilketa egiten da Institutu modura egindako lan orokorra eta interesgarriak izan daitezkeen jarrerak ikusteko. Ez da sexuaren arabera banakatutako daturik eskaintzen espedienteen arabera, baina bai genero-indarkeria, etxeko indarkeria edo sexu-indarkeriaren ondoriozko erasoei buruzko informazioa.
- **Gazteria Justizia**<sup>15</sup> Zerbitzuaren memoria: urtero, Kriminologiaren Euskal Institutuaren (KUI) lankidetzarekin, zerbitzuaren memoria bat prestatzen da. Horretarako, urtean zehar EAEko adin txikikoen Epaitegitik Justizia Zuzendaritzan sartu diren neurrien eskaera hartzen da erreferentzia modura, sexuaren arabera banakatutako datuekin neurri motaren arabera.

<sup>9</sup> <https://www.euskadi.eus/estadistica/tablas-estadisticas-de-la-estadistica-mensual-de-la-poblacion-reclusa-febrero-2025/web01-s2enple/es/>

<sup>10</sup> Askatasunaz gabetutako pertsona-kopurua Lurralde Historikoaren eta egoera penalaren arabera Baldintzapeko Askatasunean dauden pertsona-kopurua Lurralde Historikoaren eta sexuaren arabera. Askatasunaz gabetutako pertsona-kopurua Lurralde Historikoaren eta espetxe-sailkapenaren arabera. Askatasunaz gabetutako atzerriko pertsona-kopurua Lurralde Historikoaren eta sexuaren arabera. Askatasunaz gabetutako pertsona-kopurua adinaren eta sexuaren arabera.

<sup>11</sup> <https://www.justizia.eus/servicio-de-atencion-a-la-victima/webj00-contentgen/es/#memorias>

<sup>12</sup> <https://www.justizia.eus/servicio-vasco-de-gestion-de-penas/webj00-contentgen/es/#memorias>

<sup>13</sup> <https://www.justizia.eus/servicio-de-justicia-restaurativa/webj00-contentgen/es/#estadisticas>

<sup>14</sup> <https://www.justizia.eus/instituto-vasco-de-medicina-legal/webj00-contentgen/es/>

<sup>15</sup> [justizia.eus/contenidos/informacion/jus\\_srv\\_justicia\\_juvenil/es\\_def/adjuntos/Informe-Evaluativo-del-Servicio-de-Justicia-Juvenil-2023.pdf](https://www.justizia.eus/contenidos/informacion/jus_srv_justicia_juvenil/es_def/adjuntos/Informe-Evaluativo-del-Servicio-de-Justicia-Juvenil-2023.pdf)

## Komunikazio ez-sexista

Dokumentu eta euskarrietan komunikazio ez-sexistaren (lengoaia, irudiak eta edukiak), eta ez-androzentrikoaren, erabilerarekin lotutakoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan gehien hedatu eta indartu den lan-esparruetako bat.

EAE En Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiari dagokionez, sailak I-2.2 helburu espezifikoak landu du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio publikoetako komunikazio-euskarrietan berdintasunaren arloan egin diren aurrerapausoak ikusarazten dituzten **eduki-kopurua** handitu egin da, emakumeak eta gizonak estereotiporik gabe aurkeztuz, eta lengoaiaren eta irudien gainean erabilera ez-sexista aplikatuz. Halaber, Berdintasunerako Administrazio Unitateak hizkuntzaren eta komunikazioaren erabilera ez-sexistari buruzko **gidak eta materialak** banatu ditu sailaren barnean, edota euskarri eta dokumentu ezberdinetan hizkuntzaren erabilera egokiari buruzko aholkuak eman ditu.

Komunikazio Zuzendaritzak **publizitate-kanpainak** egiten ditu saileko arloetatik zabaldu nahi diren balioak ezagutarazteko eta horien inguruan sentsibilizatzeko, eta Emakundek bultzatutako kanpaina instituzionalekin koordinatu da, hala nola azaroaren 25eko edo martxoaren 8ko kanpainekin. Sailak kontratatutako kanpainetan genero-ikuspegia gehitzea eta argitalpenen kudeaketa landu dira, eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista modu sistematikoan zaindu da eduki guztietan. Horri dagokionez, Komunikazio Zuzendaritzak hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistari buruzko prestakuntza jaso zuen, hedabideekin estereotiporik gabeko harreman ez-sexistak bermatzeko, desagertutako sailaren prestakuntza-planaren barruan.

Sailak berak egindako dokumentuak badira, Berdintasunerako Administrazio Unitateak **tresnak eta aholkularitza eskaintzen ditu, edota dokumentuak berrikusten ditu** hizkuntzaren erabilera egokia bermatzeko. Dokumentuak kanpoko eragileek egiten badituzte, hizkera ez-sexista erabili behar da. Betebehar hori, gehienbat, **kontratuak** formalizatzeko **klausulak** ezarritik gauzatzen da.

## Araudiaren ebaluazioa

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legeko 20. artikuluan **generoaren araberako inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazio** egiteko betebeharra, eta emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen inpaktu negatiboa neutralizatzeko, hautemandako desberdintzak gutxitu edo desagerrarazteko eta berdintasuna bultzatzeko neurriak gaineratzeko premia ezartzen da.

Berdintasun, Justizia eta Gizarteko Politiken Sailaren XII. Legegintzaldian, sailean guztira onartutako arauen artean (312 arau), 24 (% 7,7) arauzko xedapen orokorrak izan dira; hau da, Legeko 20. artikuluan zentzu hertsian aipatzen diren arauak, eta gainerakoak administrazio-egintza modura geratzen dira, txosten horren premiatik salbuetsita daudenak.

Ebaluatu daitezkeen aipatutako arauzko xedapenen artean, % 67ak gaineratu du (arauzko 16 xedapen) generoaren araberako inpaktua ebaluatzeko txostena. Gainerako kasuetan arauaren neutraltasunagatik garrantzirik ez dagoela adierazteko dagokion txostena egin da (azken horien kasuan, Emakunderi zuzendutako jakinarazpena gaineratu da, salbuespena egokia dela egiaztatu dezan). Gainerako arauen kasuan txostena egiteko premia salbuetsita geratzen dela ulertu da, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 erregulazioaren 2. artikuluan jasotzen diren ezaugarrietako zenbait betetzen baitira. Horren bitartez xedatzen da argitara eman dadila Gobernu Kontseiluaren erabakia, “genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzekoa”.

Urtea	Arau orokorren kopurua (legeak, dekretuak...)	Inpaktuaren aurretiko ebaluazioa eskatu dezaketen xedapen orokor kopurua	Genero-inpaktua neurtzeko txosten kopurua	Araua neutro dela jo duten txostenak	Berdintasun-neurriak gaineratzeko premia jo duten txostenak
2021	198	5	2	3	1
2022	34	5	2	3	1
2023	44	12	10	2	3
2024	36	2	2	0	2
GUZTIRA	312	24	16	8	7

7. taula: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin lotutako araudiari buruzko datuak.

Generoaren arabera inpaktuaren ebaluazioa gaineratu duten arauetan berdintasuna lortzeko **sartutako neurri motak** izan dira, funtsean, arauaren diseinuan bertan genero-ikuspegia gaineratzea, emakumeen eta gizonen arteko parte-hartze eta ordezkagarritasun orekatua sustatzea, eta ekintza positiboak abiaraztea. Ere berean, horren ohikoa ez bada ere, debekatzeko eta zigortzeko neurriak, itxuraz neutroak diren eta inpaktua duten neurriak eta diskriminazio anitza pairatzen duten emakumeei zuzendutako neurriak.

### Hautaketa-prozesuak

Enplegu publikora<sup>16</sup> sartzeko **hautaketa-prozesuekin** lotuta aktibatuta neurriak emakumeen ordezkariak txiekia den espazioetan haien presentzia indartzera eta auzitegiatan emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatua egon dadila bermatzera daude bideratuta.

Garrantzitsua da, enplegu publikora sartu eta bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan berdintasunarekin lotutako edukiak txertatzeari dagokionez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Funtzio Publikoak duela, gehienbat, Eusko Jaurlaritzako prozesuen eskumena. Sailaren ardura hauetara mugatzen da: barne-promozioko, zerbitzu-eginkizunak hornitzeko eta izendapen askeko postuak betetzeko prozesuak. 2015etik hautapen-prozesu guztiek berdinketa hausteko klausula bat dute, emakumeen ordezkariak % 40 baino gutxiagokoa duten kidego, eskala, maila edo kategoriatan emakumeen alde egiten zuena.

### Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua zuzendaritza-organismoetan, auzitegiatan eta epaitegiatan

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarak Gabe Bizitzeko Legeko 21. artikuluko hainbat ataletan Administrazioko auzitegi eta epaitegiatan emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak ekitatiboaren gaia jorratzen da<sup>17</sup>.

Saria emateko **epaitegien** kasuan, 4 epaitegi deitu ditu desagertutako sailak 2021-2024 bitartean, eta horien osieran emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan da (% 40-60)(René Cassin Sariak 2021, 2022, 2023, 2024).

Enplegu publikoan sartzeko, plazak betetzeko eta mailaz igotzeko **auzitegiei** dagokienez, ez dago Sailak deitutako auzitegiei buruz behar adina datu azken legegintzaldian. Haatik, Zerbitzu Zuzendaritzak emandako informazioetik

<sup>16</sup> Neurri horiek, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari langileak gaitzeari buruzko Berdintasun Legeko 18. artikuluan zehazten dira, non, lehenik eta behin, ezartzen baita ezinbestekoa dela berdintasuna bultzatzearekin zerikusia duten zereginak dituzten pertsonak berdintasun gaietan esperientzia edota prestakuntza espezifikoak izan dezatela bermatzea. Gainera, hautaketa-prozesuetako gaietan genero-berdintasunaren printzipioarekin lotutako edukiak gaineratu behar direla eta horiek administrazioaren zereginetan aplikatu behar direla ezartzen da. Aldi berean, 21. artikuluan ezartzen da enplegu publikoan sartzeko eta enplegu hori betetzeko zein bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan klausula jakin bat gaineratu behar dela, izangaien artean gaitasunari dagokionez berdintasuna izanez gero, emakumei lehentasuna emateko, baldin eta Administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietako ordezkariak % 40tik beherakoa bada.

<sup>17</sup> Enplegu publikoan sartu, bertako plazak betetzeko eta mailaz igotzeko prozedurei dagokienez, hautaketa-auzitegiatan gaitasun, eskumen eta prestaketa egokia duten emakumeen eta gizonen artean ordezkariak orekatua bermatzeko klausula bat gaineratzeko premia ezartzen da. Artikuluan, era berean, neurri espezifikoak gaineratzen da, oinarritzat duena, Administrazioak sustatutako edo diruz lagundutako edozein sari emateko, eta funts kultural edota artistikoak eskuratzearekin lotutako organoetarako, klausula jakin bat gaineratzeko premia, hautaketa-epaitegi eta -auzitegiatan gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak ekitatiboa ziurtatzeko.

ondorioztatzen da ordezkariak orekatua mantendu nahi dela, betiere, ebaluatzen den arloan behar beste langile aditu badaude.

**Erabakitze-postuetan** emakumeen eta gizonen artean ordezkariak orekatua izateari dagokionez, aipatu behar da egungo Justizia eta Giza Eskubideen Saila emakumezko sailburu batek zuzentzen duela, eta emakumezko sailburuorde bat eta gizonetzko beste bat izendatu direla. Zuzendaritza lau emakumek eta hiru gizonek gidatzen dute. Diagnosi hau egin zenean erabilgarri zeuden datuei so erantzukizun politikoko postuetan ordezkariak orekatua dela ondorioztatu daiteke.

### Kontratazioa, dirulaguntzak, hitzarmenak eta laguntzak

**Kontratazioari** dagokionez, aipatu behar da egin diren kontratu guztietan berdintasun-irizpideak gaineratu direla, zehazki, kontratatutako jarduera burutzeko baldintza bereziak zehaztean.

**Dirulaguntzen** kasuan, dirulaguntzak ematerakoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako irizpideak aintzat hartu dira, funtsean, dirulaguntzetara iristeko betekizun jakin batzuk ipiniz. **Aztergai den aldian 647 dirulaguntza onartu zituen desagertuta dagoen Sailak.** Horietan, berdintasunarekin lotutako sarbide-irizpide bat gaineratu zen gutxienez.<sup>18</sup> Berdintasunarekin lotutako beste irizpide batzuk ez dira horren ohikoak, esate baterako: pertsona edo erakunde eskatzaileak baloratzeko irizpideak, diruz lagundutako jarduera burutzeko baldintzen zehaztapena, diruz lagundutako proiektua edo jarduera baloratzeko irizpideak edo balorazio- edota esleipen prozesuak.

**Hitzarmenei** dagokionez, aztergai den aldian, Sailak 148 hitzarmen formalizatu ditu, eta 101 hitzarmenetan (% 76) berdintasun-klausulak gaineratu dira, hala hitzarmenaren helburuan, nola hitzartutako jarduera burutzeko baldintza berezien zehaztapenean.

Halaber, nabarmendu behar da, 2022. eta 2024. urteetan (ez dago 2021eko eta 2023ko daturik), 120 **beka** argitaratu zirela, eta guztietan berdintasun-klausulak gaineratu ziren.

Urtea	KONTRATUAK		HITZARMENAK		DIRULAGUNTZAK		BEKAK	
	Kopurua	Berdintasun-irizpideak sartuta	Kopurua	Berdintasun-irizpideak sartuta	Kopurua	Berdintasun-irizpideak sartuta	Kopurua	Berdintasun-irizpideak sartuta
2021	56	56	34	3	170	170	-	-
2022	86	86	86	86	86	86	86	86
2023	104	104	12	12	206	206	-	-
2024	88	88	16	14	185	185	34	34 <sup>19</sup>
GUZTIRA	334	334	148	146	647	647	120	120

8. taula: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren kontratuei, hitzarmenei eta dirulaguntzei buruzko datuak.

### Sektoreko Plan Estrategikoak:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legeko 3. artikuluan bultzatu egiten dira botere publiko guztiak haien politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzera, horietako bakoitzean desberdintzak desagerrarazi eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko funtsezko helburua ezartzen dela ziurtatuz. Modu berean, Lege horretan bertan, 19. artikuluan, ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek aktiboki aintzatetsi behar dutela erregulazioak sortu eta aplikatzean, eta planak, programak eta politika publikoak eratzeko beste tresna batzuetan genero-berdintasuna lortzea.

<sup>18</sup> Dirulaguntza guztietan honako klausula hau gaineratu da: *Ezin izango zaie inolako laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten jarduerari, ez eta sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian. Era berean, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, bai eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak estatu-legeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan agintzen duen moduan ezarri izana egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak ere.*

<sup>19</sup> 2024an beka modura 2024ko ekitaldirako Karrera Judizial eta Fiskalera eta Justizia Administrazioiko Letraduen Kidegora sartzeko prestaketa-laguntzak jasotzen dira soilik, gaur egun Justizia eta Giza Eskubideen Sailari dagozkionak.

Genero-ikuspegia Saileko plan sektorial eta zeharkakoetan txertatzeari dagokionez, ohikoa da jadanik planetan sexuaren arabera berezitateak jasotzea eta ebaluazioetan zenbait genero-adierazle agertzea. Hala eta guztiz ere, material horiek prestatzeko garaian ez dago sistematizazio argirik, eta ez dago inertzia jakin bat berdintasunaren arloko ezagutzak dituzten erreferentziako pertsonekin baterako lana egiteko. Sistematizaziorik ez egotearen ondorioz, malgutasun handiagoa dago materialetan berdintasunaren arloan inpaktu edo garrantzia gehiagoko neurriak gaineratzeko orduan, izan ere, neurrietako batzuk *a posteriori* neurriak dira, eta ez eraketa-prozesuan zehar *ad hoc* sortutako neurriak. Horregatik, planak eta estrategiak aztertzean, berdintasunaren arloko irizpideak, helburuak eta adierazleak gaineratzeari dagokionez asimetriak hauteman direla aipatu dezakegu.

Aztergai den aldiaren, honako datu hauek jaso dira:

Urtea	Onartutako planak	Berdintasun-diagnosia	Berdintasuneko helburuak	Berdintasun-ekintzak	Eraketan parte hartu duten adituak	Jarraipenean parte hartu duten adituak	Genero-adierazlea gaineratu duten ebaluazioak
2021	-	-	-	-	-	-	-
2022	9	6	6	6	4	-	-
2023	5	5	5	1	1	1	1
2024	1	1	2	1	2	1	1
GUZTIRA	15	12	13	8	6	2	2

9. taula: Onartutako planak eta berdintasun arloko adituen parte-hartzea Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailean.

Berdintasunerako Administrazio Unitateak aholkularitza eskaini du desagertuta dagoen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko planak, estrategiak edo programak eratzeko prozesu batzuetan genero-ikuspegia txertatzeari buruz. Honatx aholkularitza horietako zenbait: Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2021-2024, **Justizia Digitalerako Plana 2021-2026**, Bizikidetzaren, Giza Eskubideen eta Aniztasunaren Udaberri 2024 Plana, Altxor 7.0 proiektua. Adin nagusiko pertsonen bizitza-proiektuetan laguntzeko Zerbitzu Pilotua eta Herritartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren kulturarteko VI. Plana 2022-2025.

Azken legegintzaldian, egungo Justizia eta Giza Eskubideen Sailarekin lotutako plan hauek onartu dira: Funtzionarioen II. Berdintasun Plana, Justizia Digitalerako Plana 2021-2026, Egoitza Judizial Jasangarrien Plana 2022-2030, Desgaitasuna duten Pertsonen Justiziarako Sarbidea Errazteko Plana, Justiziaren Plan Estrategikoa, 2022-2028 eta Justizia Errestauratiboaren EAEko Estrategia 2022-2025. Haatik, soilik plan horietako bitan izan da berdintasunerako teknikari baten aholkularitza edo gainbegiratzea (Berdintasun Planean eta Justizia Digitalerako Planean). Dena den, guztietan aipatzen da jarraibideen artean genero-ikuspegia txertatzea.

Jarraian, ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA helburu estrategikoari lotutako erronka nagusiak aurkezten dira, Berdintasunerako 2030 Estrategian xedatutakoaren arabera.

2. HELBURU ESTRATEGIKOA: ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA	
LERROA	ERRONKAK
5. ILDOA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Estatistikak zein Sailak egiten dituen memoriak eta txostenak genero-ikuspegia kontuan izanik aztertzeke egokiak diren aldagai guztiak hobeto identifikatzea.</li> <li>➤ Sektorean genero-indarkeriaren sistematizazioan aurrera egiten jarraitzea.</li> <li>➤ Azterketa- eta ikerketa-esparru berriak zehaztea, Sailaren esku-hartze sektoreetan emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunekin zerikusia duten berariazko ikerketak egiteko.</li> <li>➤ Berdintasun-klausula espezifikoak jasotzen dituzten kontratuen, dirulaguntzen eta hitzarmenen ehunekoa areagotzea, Berdintasunerako Legeak derrigorrez betetzeko xedatutako klausulez harago.</li> <li>➤ Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak betetzeari dagokionez egiten</li> </ul>

	<p>den jarraipena bizitzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Berdintasunaren, jardun onen, araudien eta herritarrei zuzendutako jardunaldien arlotan garatzen diren jarduketak ikustarazteko pausoa ematea.</li> <li>➤ Enplegu publikora sartu, bertan plazak eskuratu eta mailaz igotzeko prozesuei (gaietan berdintasunarekin zerikusia duten edukiak gaineratzearekin eta % emakumeen ordezkartza 40 baino gutxiagokoa den kidego, eskala, maila edo kategoriatan berdinketa emakumeen alde hausteko klausulak ezartzearekin lotutakoak) buruzko informazio-bilketa sistematizatzea.</li> <li>➤ Berdintasunaren arloan aditua den gutxienez pertsona batek parte hartu dezala bermatzea planetan eta estrategietan genero-ikuspegia txertatze aldera.</li> </ul>
--	---

### 3. HELBURU ESTRATEGIKOA: ERAKUNDEEN GOBERNANTZA-EREDUA ALDATZEA

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek gero eta konplexuagoa den gizarteari erantzuteko gaitasuna indartu behar dute, gero eta interdependente eta adimentsuagoa den testuinguru orokor batean. Beste hamarkada batzuetako eredu burokrazia eta hierarkia gehiago zegoen, eta eredu horrek ez die behar bezalako erantzuna ematen administrazio publikoetan berdintasuna bultzatzeko eta kudeatzeko sortzen diren premiei; irtenbide partekatu berriak behar dira eta, horretarako, ezinbestekoa da eragile publiko eta pribatu ezberdinen parte-hartzea eta adostasuna.

### 6. ILDOA. KOORDINAZIOA, LANKIDETZA ETA INTERNAZIONALIZAZIOA

Desagertuta dagoen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak berdintasunarekin lotutako hainbat koordinazio-egituretan parte hartu du, berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzak indartzeko xedez.

Egitura	Aurreko saila eta egungo ordezkatu duen kargua
<b>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea</b>	Gizarte Politiketako Sailburuordetza (gaur egun, Justizia Sailburuordetza)
<b>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Talde Teknikoa</b>	Zerbitzu Zuzendaritzako BAUko teknikaria eta Justizia Administrazio Zuzendaritzako berdintasunerako teknikaria (berdin mantentzen da)
<b>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.</b>	Gizarte Politiketako Sailburuordetza (gaur egun, Justizia Sailburuordetza)
<b>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Talde Teknikoa.</b>	Zerbitzu Zuzendaritzako Berdintasunerako Administrazio Unitateko teknikaria eta Justizia Administrazio Zuzendaritzako berdintasunerako teknikaria (berdin mantentzen da)
<b>Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arretaren koordinazioa hobetzeko Erakundearteko III. Akordioaren jarraipenerako batzordea</b>	Gizarte Politiketako Sailburuordetza (gaur egun, Justizia Sailburuordetza)
<b>Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arretaren koordinazioa hobetzeko Erakundearteko III. Akordioaren Talde Teknikoa</b>	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako eta BAUko teknikariak (gaur egun, Justizia Zuzendaritzako teknikariak)

10. taula. Desagertuta dagoen Berdintasun, Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren parte-hartzea izan duten egiturak. Parte-hartze horrek jarraitu egingo du Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren barruan.

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea** da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Eusko Jaurlaritzaren jarduketak koordinatzen dituen organoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea arautzen duen abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuak arautua. Batzorde hori Emakunderi atxikita dago, lehendakaria da buru, eta Eusko Jaurlaritzaren jarduketak koordinatzeko organoa da. Batzorde horren eginkizun nagusia Eusko Jaurlaritzako Sailen artean emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko elkarriketak erraztea da. Bere eginkizunak betetzeko behar den laguntza eta aholkularitza teknikoak du **Sailarteko Talde Teknikoaren bidez**. Talde horretan teknikari bat izango da Sailarteko Batzordeko kide bakoitzeko eta dagokion erakundearen emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloa sustatzen duen eta aholkuak ematen dituzten teknikarien artean izendatuko da, ahal dela.

**Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako sailarteko Batzordea** urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuak arautzen du, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan erkidegoko, foru eta toki administrazioek egiten dituzten politikak eta programak koordinatzen dituen organoa da. Batzordeak laguntza eta aholkularitza jasotzeko Talde Tekniko bat du, **Sailarteko Talde Teknikoa** izenekoa.

**Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arretaren koordinazioa hobetzeko Erakundearteko III. Akordioaren jarraipenerako Batzordearen** helburua da Akordioko konpromisoen jarraipena eta ebaluazioa egitea, betetzen diren jakiteko. III. Akordioaren **Erakundearteko Talde Teknikoa** da Jarraipen Batzordeari laguntza teknikoa emateaz arduratzen den espazioa. Akordioa sinatu duten erakundeetako ordezkari teknikoek osatuta dago.

Nabarmendu behar da Berdintasunerako Administrazio Unitateak **Soldata-arrakala murrizteko estrategia txertatzeko taldean** parte hartu duela beste Zuzendaritza batzuetako eta Emakundeko langileekin batera, plangintza-taldean parte hartzeaz gainera. Gaur egun, estrategia horretan parte hartzen jarraitzen du, orain Justizia eta Giza Eskubideen Sail modura. Eta gainera Zerbitzu Zuzendaritzako egungo zuzendariak ere arlo politikoan parte hartzen du.

Deskribatu diren egitura horiez gain, desagertuta dagoen Sailak berezko taldea ere izan du berdintasunaren arloko sailarteko koordinaziorako. **Saileko Talde Teknikoaren (STT)** helburua da Saileko Zuzendaritzek berdintasunaren arloan garatu behar dituzten ekintzak koordinatzea, eta berdintasun-politikak garatzeko prozesuko fase bakoitzean (plangintza, gauzatzea, ebaluazioa eta komunikazioa) laguntzea. Talde hori Berdintasunerako Administrazio Unitateak koordinatzen du, eta bertan parte hartzen dute Saila osatzen duten Zuzendaritza bakoitzeko teknikariek.

Saileko egiturazko aldaketen, langileen joan-etorri ohikoen eta sail berrien sorreraren ondorioz, STTaren egitura modu agerikoan ahuldu da legegintzaldiaren azken txanpan. Zailtasunak hauteman dira Zuzendaritza bakoitzean berdintasunaren arloan prestakuntza egokiz hornitutako erreferente egonkorrak finkatzeko, eta horiek denbora jakin batean mantentzeko, berdintasunaren arloko jarduketak txertatzen eta horien jarraipena egite aldera. Haatik, 2025ean izendapen berriak egin dira egitura horri jarraipena eman asmoz.

## **7. ILDOA. PARTE-HARTZEA. BERRIKUNTZA. GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legeko printzipioen artean jasotzen dira **berrikuntza, gardentasuna eta herritarrei kontu ematea**, baliabide publikoen bidez emakumeen eta gizonen berdintasunari nola laguntzen zaion azaltzeko. Administrazio orokorraren esparruan elkarteen eta instituzioen arteko harremana eta trukea bultzatzeko mekanismoak identifikatzea datozen urteetan jorratu beharreko erronka da.

XII. legegintzaldian, **Emakundek** desagertuta dagoen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailean parte hartu du. **Organismo autonomo horrek Aholku Batzorde<sup>20</sup>** bat du, emakumeen elkarteen eta Erakundearen arteko komunikaziorako bide izateko. Batzorde hori egitura instituzional ezberdinetan ere ordezkaturik dago: Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluan; Begira Batzordean, Berdintasunerako Emakunde Sarietan eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan. Haatik, adierazi den eran, dagoeneko ez du inolako loturarik Justizia eta Giza Eskubideen Sailarekin.

Halaber, aurreko legegintzaldian, BAUK Berdintasun Batzordean parte hartu du **Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroaren** barruan. Kide anitzeko kontsulta-, informazio- eta aholkularitza-organo plurala da, xede honekin: atzerriko etorkinen gizarteratzean eta haien eskubideen erabileran oinarritutako immigrazio-politika oso eta aktibo bat garatzen laguntzea. Foroan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek gain, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateek, gobernuz kanpoko antolakundeek, elkarrekin, sindikatuek eta enpresaburuek hartuko dute parte. Haatik, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak ez du ordezkariarik foroan. Beraz, BAUK dagoeneko ez du bertan parte hartzen.

<sup>20</sup>103/1998 Dekretua, ekainaren 9koa, Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordea sortzen duena.

Berdintasunaren arloko **gardentasunari eta kontu-emateari** dagokienez, Sailak bere webgunean jasotzen ditu planak eta proiektuak, eta Zuzendaritza bakoitzetik bultzatzen diren erreferentziazko dokumentuak eta argitalpenak. Gainera, Sailaren web-atarian, berdintasunaren atal espezifiko bat dago, Berdintasunerako Administrazio Unitatetik bultzatzen dena. Espazio horretan berdintasunerako planak ez ezik, saileko programak, eta Sailak edo beste erakunde batzuek eratutako materialak eta gidak jasotzen dira. Programa eta zerbitzu bakoitzeko webgune espezifikoetan planak eta programak ez ezik, horien ebaluazioaren ondoriozko emaitzak jasotzen dira. Halaber, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak berezko Intraneta du, berdintasunari buruzko edukiarekin.

Sailak Emakunderi emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloarekin lotutako Eusko Jaurlaritzako sailen eta Organismo Autonomo/Erakunde Publiko eta Enpresa Pribatuaren jardueraren jarraipenerako Memoria garatzeko urtero helarazitako informazioa ere Sailak arlo horretan garatzen duen jardunari buruzko kontuak emateko modu bat da.

Administrazio orokorraren, eta zehazki, Sailaren berdintasun-politiketan berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzeko abian jarritako neurrien ehunekoa handitzea jorratzeke dagoen erronka da oraindik. Sailaren berdintasun-politikek EAEn emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina zein den jakin, eragin hori ebaluatu eta kontuak emateko tresna-kopurua handitzea, eta tresna horiek garatzea ere (tresna horiek nazioarteko beste esparru eta indize batzuekin lerrotatuz) jorratzeke dagoen erronka da.

## **8. ILDOA. BERDINTASUNAREN IKUSPEGI KONPLEXUAGOA POLITIKA PUBLIKOETAN**

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiak politika publikoen garapenean gaineratu beharreko zenbait alderdi finkatzen ditu. Horien artean nabarmentzen dira intesekzionalitatea, maskulinitasunaren ikuspegia eta gizonen berdintasunean duten inplikazioa, euskararen biziberritzea, edo ingurumena edo klima-larrialdia. Zalantzarik gabe, arreta berezia jarri behar da lan-ikuspegi berri horietan Administrazio publikoaren eta, bereziki, Berdintasunerako Administrazio Unitateen ohiko jardunean txerta daitezen.

**Intesekzionalitatearen** kasuan, berdintasun-politiken eta bestelako politiken diseinuan hautemandako erronka nagusietako bat gure herritarren errealitate guztiei erantzun eraginkorra ematen saiatzeko printzipio guztiak gaineratzen den konplexutasuna da. Horregatik, Saila (aurrekoa eta oraingoa) intesekzionalitatearen ikuspegia bere politiketan pixkanaka txertatzen saiatu da, oso kontuan izanik sexuaren eta generoaren aldagaiak elkarrekintzan daudela botere eta jazarpeneko beste ardatz batzuekin (maila sozioekonomikoa, arraza- edo etnia-jatorria, adina, desgaitasuna, hizkuntza, sexu- edo genero-orientazioa, genero-adierazpena, etab.). Haatik, oraindik zailtasunak daude ikuspegi horretatik emaitzak aztertzeke. Beraz, hobetzeko alderdi modura mantentzen da.

Deskribatu denaz gain, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak **maskulinitasunaren ikuspegia** gaineratu du azken legegintzaldian gizonen berdintasun arloan inplikazio gehiago izan dezaten eta berdinzaleak ez diren maskulinitasunak desagerrarazteko. Jardute-ildo hori hainbat modutara gauzatu da, esate baterako, Gizonduz programarekin (Emakunden ibilbide luzea duena), eta enpresetan eta familietan kontziliazio erantzunkidea bultzatzeko zeharkako edo berariazko neurriekin<sup>21</sup>. Haatik, gaur egun, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak ez ditu laguntza-ildo horiek garatzen.

---

<sup>21</sup> Hona hemen neurri horiek:

- Erakundeetako zuzendutako laguntza-ildoak, diagnostia eta kontziliazio-plan bat egiteko aholkularitza bat kontratatzeke.
- Seme-alabak, mendekotasun-egoeran dauden senideak edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko lan-eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duen langile baten ordezkia lortzeko enpresei zuzendutako laguntza-ildoak.
- Seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketan (gutxienez % 33) edo lan-eszedentzian dauden langileei zuzendutako laguntzak.
- mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko lanaldi-murrizketan (gutxienez % 33) edo lan-eszedentzian dauden langileei zuzendutako laguntzak.
- Haurtxoak urtebete egin arte haurtxoa zaintzeko eszedentzia-egoeran dauden langile guraso bakarrei (amak edo aitak) zuzendutako laguntzak.

**Euskarra biziberritzeari** dagokionez, adierazi behar da Saileko dokumentazio ofiziala bi hizkuntza ofizialetan prestatzen dela beti. Egungo Saileko berdintasunerako teknikariak zein Justizia Administrazioiko Zuzendaritzako berdintasunerako teknikariak euskararen erabilera lehenesten dute beren komunikazio guztietan, eta bi hizkuntzetan egin behar badute, euskarari leku nabaria ematen diote beti. Halaber, azpimarratu behar da Sail ezberdinetako berdintasunerako teknikarien arteko komunikazioa euskaraz garatzen dela beti (idatziz zein ahoz). Dena den, egia da Sailaren barnean ezin dela beti euskararen erabilera lehenetsi.

**Ingurumenari eta klima-larrialdiari** dagokienez, Sailak Egoitza Judizial Jasangarrien Plana (2022-2030) <sup>22</sup> du martxan, Euskadin sistema judizialak behar dituen espazio judizial berriak baitaratzeko neurriak jasotzen dituena. Plan horrek hainbat alderdiri erreparatzen die, adibidez, egungo espazio judizialean jasangarritasunaren, irisgarritasunaren eta biktimentzako bermeen estandarrak egokitzeari. Informazio orokorra eskaintzen du Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan egiten dituzten egokitzapen-proiektuei buruz (aretoak antolatzeko espazioak, edo intimitatearen bermea eta biktimen babesia). Haatik, ez dira jasotzen genero-ikuspegi batetik emakumeen premia espezifikoak asetzeko ekintza edo proiektu zehatzak, bereziki, irisgarritasunari eta segurtasun-baldintzei dagokienez.

Ingurumenarekin lotutako lan-ildo horrek datozen urteetan ibilbide luzeagoa izatea eta genero-ikuspegia gaineratzen duten ekintzak jorratu ahal izatea aurreikusten da.

Jarraian, ERAKUNDEEN GOBERNANTZA-EREDUA ALDATZEA helburu estrategikoari lotutako erronka nagusiak aurkezten dira, Berdintasunerako 2030 Estrategian zehaztutakoaren arabera.

LERROA	ERRONKAK
<b>6. ILDOA. KOORDINAZIOA, LANKIDETZA ETA INTERNAZIONALIZAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Saileko Talde Teknikoan langileen parte-hartzea egonkortzea, eta berezko agenda duen laneko plan bat finkatzea STTa osatzen duten pertsonentzat.</li> <li>➤ Berdintasun Unitatearen parte-hartzea mantentzea orain arte parte hartzen zuen koordinazio-egitura eta lantalde guztietan.</li> <li>➤ Lankidetzarako eta elkarrizketarako espazioak ugaritzea berdintasun-politikak bultzatzeko ardura duten arloetan zein beste politika sektorial batzuk bultzatzeko ardura duten arloetan.</li> </ul>
<b>7. ILDOA. PARTE-HARTZEA, BERRIKUNTZA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politiken eragina zein den jakitea, eragin hori ebaluatzea eta kontuak ematea bultzatzeko sistematika bateranzko pausoak ematea.</li> <li>➤ Politika publikoetan talde feministen eta emakumeen, gizarte-eragileen eta herritarren parte-hartzea eta elkarrizketa areagotzen jarraitzea.</li> </ul>
<b>8. ILDOA. BERDINTASUNAREN IKUSPEGI KONPLEXUAGOA POLITIKA PUBLIKOETAN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Genero-ikuspegia eta intesekzionalitatearen ikuspegia gaineratzen dituzten politika publikoen kopurua handitzea: premiak hauteman eta erantzun eraginkorrak prestatzeko garaian, konplexutasuna kontuan izatea sexuaren eta generoaren aldagaien eta botere eta jazarpeneko beste ardatz batzuen (maila sozioekonomikoa, arraza- edo etnia-jatorria, adina, desgaitasuna, hizkuntza, orientazio sexuala, sexu- edo genero-identitatea, genero-adierazpena, etab.) arteko elkarrekintzan sortzen diren desberdintzetan.</li> <li>➤ Maskulinitasunen ikuspegia gaineratzeko jarduketa kopurua handitzea, gizonen berdintasunaren arloan inplikazio gehiago izatera eta berdinzaleak ez diren maskulinitasunak desagerraraztera bideratutako ekintzen bidez, gizonen zuzenduta.</li> </ul>

## 4.2.2. Justizia Administrazioiko Zuzendaritzara lotutako esku-hartzea.

### Diagnosi orokorra eta erronkak Justizia Administrazioiko Zuzendaritzarekin lotuta

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzari dagokio Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen kudeaketa organikoa (haien prestakuntza eta prebentzioa eta laneko arriskuen prebentzioa barne). Bulego Judizialaren eta Bulego Fiskalaren hedapen eta ezarpenaren diseinua, plangintza eta koordinazioa ere Zuzendaritza honek eramaten du. Halaber, horiek eguneratu eta arauetan izaten diren aldaketetara egokitzez arduratzen da, bai eta Auzitegi Medikuntzako Euskal

<sup>22</sup> [https://www.justizia.eus/contenidos/informacion/jus\\_plan\\_justi\\_21\\_26/es\\_def/adjuntos/cae-plan-sedes-judiciales-sostenibles-22-30.pdf](https://www.justizia.eus/contenidos/informacion/jus_plan_justi_21_26/es_def/adjuntos/cae-plan-sedes-judiciales-sostenibles-22-30.pdf)

Erakundearen eta bake-epaitegien antolamendu eta funtzionamenduarekin lotutako gai guztiez, zein Botere Judizialarekiko eta Zerga Ministerioarekiko harremanez ere.

Zuzendaritzako Langileen Zerbitzua arduratzen da **EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioen kudeaketaz**. Funtzionario horiek dira bulego judizialetako kudeaketa, izapidetze, eta laguntza arloan aritzen diren langileak eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko auzitegiko medikuak.

EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren langileak.	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Laguntza Judiziala	348	160	508
Izapidetze Prozesal eta Administratiboa	1028	196	1224
Kudeatzaileak	529	153	682
Auzitegiko medikuntza orokorra	19	8	27
Auzitegiko medikuntza espezialista	11	4	15
Auzitegiko Medikuntzako buruzagitzak	3	1	4
Kudeaketa-arduradunak	18	8	26
Zuzendariordetza-AMEE	2	1	3
Zuzendaritza-AMEE		1	1
	1958	532	2490

11. taula: EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileei buruzko datuak. Data: 2025eko uztaila.

Langile horiek Administrazio Orokorreko langileak ez direnez, eta bi mila baino gehiago direnez, 2021ean berdintasunaren arloko diagnosi bat egin zen eta, ondoren, arestian aipatutako **Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen Berdintasunerako II. Plana (2022-2025)** eratu zen.

Plana garatu eta txertatzearen, eta **Zuzendaritzaren barruan Berdintasuneko Administrazio Unitate bat sortzearen (2023tik)** ondorioz, honako hauek izan dira, gaur egun, berdintasunaren arloan, eta baliabideak optimizatzekeo helburuarekin lotuta, garatu diren jarduketak azpimarragarriak:

- EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen kontziliatzeko premiei buruzko Diagnostika egitea.
- EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen lansarien politikaren genero-ikuspegitik aztertzea.

**EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen ordainsarien erregistroaren** aztertu ondoren, EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen Berdintasunerako II. Planeko neurrien garapenaren barruan egin zena, honako ondorio hauek atera dira:

- **Lantaldean emakumeak dira gehienak** (% 73 emakumeak eta % 23 gizonak). Datuak langileak banatzeko 4 multzotan banakatuta ikus daitekeenez, guztietan emakumeen presentzia nabarmen handiagoa da gizonena baino. Dena den, nabarmendu behar da alde hori modu nabarian handitzen dela 3. Multzoan (Kudeaketa Prozesal eta Administratiboa) eta 2. Multzoan (Izapidetze Prozesal eta Administratiboa). Horietan emakumeen presentzia % 77koa eta % 83koa da, hurrenez hurren. Interesgarria izango litzateke datu horietan eragina izan dezaketen barneko edota kanpoko arrazoiak zein diren jakitea (esate baterako, lanpostuaren ezaugarriak, baldintzak...).

- Karrerako langileen kasuan, sexuaren arabera banakatuta, gizonen eta emakumeen arteko banaketa orokorra mantentzen da, nahiz eta nabarmendu behar den bitarteko funtzionarioen artean aldea handitu egiten dela (gizonak % 17, eta emakumeak % 83).
- **Ordainsari-arrakala orokorrari** dagokionez, batez beste, arrakala % 1ekoa da (efektiboa zein alderatua). Datu efektiboen eta alderatuen artean ez da alderik ikusten, eta horrek adierazten du ez dagoela inpakturik kontratuaren denborari eta iraupenari dagokienez. Estatistikako Institutu Nazionaletik (EIN) ateratako Estatuko arrakalei (% 17,01) eta EAEkoei (%16,47) buruzko datuak kontuan izanik<sup>23</sup>, eta zehazki Estatuaren Sektore publikoan (%8,2), Justizia Administrazioiko langileen artean oso arrakala apalak identifikatzen dira.
- **Lansari osagarrien** arrakala orokorra %4koa da. Osagarriak xehetasun gehiagoz aztertuz gero, arrakala orokor handienak Nekagarritasuneko (% 62) eta Guardietako (% 33) osagarrietan ikusten dira.
- **Lantaldeak** kontuan izanda arrakala orokorrak apalagoak badira ere, handienak 1. Multzoan (% 7) eta 4. Multzoan (% 7) ikusten dira, hau da, emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatuagoa den multzoetan.

Aurrez aipatu den eran, kasu horietan interesgarria izango litzateke eskuratutako datuetan eragina izan lezaketen barneko edota kanpoko arrazoiak ikertzea.

Langileen kudeaketa ez ezik, Zuzendaritzako Langileen Zerbitzuak pertsonen gehiago begiratzen dien sistema judizial modernoago bat txertatzeko konpromisora bideratzen ditu bere jarduketak. Horretarako, beste alderdi batzuen artean, **EAEko Justizia Administrazioiko funtzionarioak EAEko Administrazio Orokorreko funtzionarioekin parekatzea arautzeko IV. Akordioan** xedatzen dena garatzen du, bertan langile horien lansariak parekatzeari buruz jasotako klausulak betetz. Akordio hori 2010eko da. Haatik, 2023an aldatu egin zen, eta berekin ekarri zuen **Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan lan egiten duten langileentzako osagarri berria txertatzea**.

Lanpostuak berrantolatzea edo birbanatzea, zein araudia aztertzea eta eguneratzea, Zerbitzu horrek aurretiaz dauden giza baliabideak optimizatu eta indarreko araudira egokitzeko garatu beharreko jarduketa da. Horri dagokionez, lehen aipatu den Berdintasunerako Plana Bultzatu eta Jarraipena egiteko Batzordeak EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzura izapidetze, kudeaketa eta laguntza arloan aritzen diren langileen lan-sustapena aztertu du, **hautaketa-prozesuetan generoaren heina** identifikatzeko azken helburuarekin. Txostenetik ondorioztatu zen Justizia Administrazioaren zerbitzura auden langileen artean emakumeak gehiago direla (% 77 eta % 23, 2022an). Haatik, proportzioan, karrera-funtzionarioen artean gizonak gehiago direla ikusi zen (gizonak % 63, eta emakumeak % 51). Haatik, datuen arabera, horrek ez du sustapenean eraginik, eta emakume funtzionarioak dira oraindik, proportzioan, lan-sustapen handiena dutenak.

**EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren langileen prestakuntza** da Langileen Kudeaketa Zerbitzuari dagokion beste arlo bat. Hori bi prestakuntza-planen bidez garatzen da; lehenbizikoa Bulego Judizialeko eta Bulego Fiskaleko langileentzat (laguntza, kudeaketa eta izapidea), eta bigarrena Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen (AMEE) lanean ari diren langileentzat. Bi planetan berdintasunarekin edota emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako prestakuntza eskaintzen da urtero.

Prestakuntza-eskaintza hobeto doitzeko, gaur egun, **berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan prestakuntza-premien diagnostia** egiten ari dira prestakuntza-plan bakoitzaren hartzaile diren bi kolektiboentzat; alde batetik, laguntza, kudeaketa eta izapide arloko langileentzat, eta beste alde batetik, AMEEko berezko langileentzat. Behin emaitzak eskuratu eta aztertuta **prestakuntza-ibilbide bat prestatzea aurreikusten da**, langile eta postu bakoitzaren premietara eta zereginetara egokitua, berdintasunari eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta neskatoak artatzeari dagokienez, EAEko Justizia Administrazioiko langile guztien prestakuntzari buruz Europako, Estatuko eta Erkidegoko araudian jasotzen diren betebeharrak betetzeko xedez.

<sup>23</sup> 2022ko SOLDATA-EGITURAREN INKESTATIK ateratako azken datuak, 2024ko irailean argitaratua.

**Prebentzio Zerbitzua** da, Justizia Jauregietako eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko lanpostuetako laneko arriskuaren ebaluazioaren barnean arriskuak eta neurketak egiteaz arduratzen dena. Zerbitzu horrek burutu beharreko ekintzetako bat lan-istripuak eta lan-gatazkak kudeatzea da. Horretarako, laneko istripuak eta gorabeherak erregistratu eta ikertu, edo jarduketa-protokoloak berrikusi behar dira. Jarduketa horien barnean dago **gatazka-, jazarpen- eta indarkeria-egoeretako esku-hartzea**. Aurretiaz aipatu den moduan, Administrazio Zuzendaritzak **sexu-jazarpenari eta sexu arrazoiaren ondoriozko jazarpenari, sexu-orientazioari, sexu- edo genero-identitateari edo genero-adierazpenari dagozkion alderdietan prebentziorako eta jarduketarako protokoloa** eratzea izan da aurreko legegintzaldian arlo horretan egin den aurrerapauso nagusietako bat. Protokoloak helburu hauek ditu: sexu-jazarpeneko, sexu arrazoiaren ondoriozko jazarpeneko, sexu-orientazioari, sexu- edo genero-identitateko edo genero-adierazpeneko portaerak prebenitzea; EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak informatu, prestatu eta sentsibilizatzea sexu-jazarpeneko, sexu arrazoiaren ondoriozko jazarpeneko, sexu-orientazioari, sexu- edo genero-identitateko edo genero-adierazpeneko portaerak hautematea eta identifikatzea ahalbidetzeko; aipatutako portaerekin zerikusia duen komunikazio baten aurrean jarduteko jarraibide zenbait finkatzea eta, hala badagokio, prebentziozko neurri edota neurri zuzentzaile egokiak hartzea, pertsona kaltetuen segurtasuna, osotasuna eta duintasuna bermatzeko eta kaltetutako pertsonak lagundu eta haren alboan egoteko neurriak ezartzeko pertsona kaltetuak protokolo honetaz aparte beste bide administratibo edo judicial batzuk hartzeko aukeraren kalterik gabe.

Justizia Administrazioarekiko Harreman Zerbitzuak **Laguntzen deialdi bat du, Karrera Judicial eta Fiskaletan eta Justizia Administrazioako Letradunen Kidegora sartzeko oposizioak prestatzeko**. Horren helburua da Zuzenbidean lizentzia edo graduatua duten pertsonak motibatzea, lanbide-asmoak Karrera Judicial eta Fiskalerantz eta Justizia Administrazioako Letradunen Kidegoan sartzera bideratu ditzaten. Hautagaitzak balioesteko, eskaerak ebaluatzeko Batzorde bat sortzen da, eta asmoa batzorde horretan emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatua izatea da. Azken legegintzaldiko datuetan laguntzak eskatu eta jasotzen dituzten emakumeak gehiago direla erakusten dute argi. Haatik, onartutako kopuruak ez du sartzen diren emakumeen eta gizonen kopuruan egon daitezkeen aldeak aztertzeke behar beste datu ematen.

Deialdiak	2022			2023			2024			2025		
	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira
Eskaerak	36	4	40	45	7	52	34	7	41	32	6	38
Ukatutakoak	5	2	7	10	2	12	5	1	6	2		2
Onartuak	31	2	33	35	5	40	28	7	35	28	6	34
Atzera egiteak	4		4	1		1	3	2	5	2		2
Onartuak						0		1	1			

12. taula: Karrera Judicial eta Fiskaletan eta Justizia Administrazioako Letradunen Kidegora sartzeko oposizioa prestatzeko laguntzen urteko deialdiaren datuak.

Zuzendaritzak **indarkeria matxistaren aurkako borrokan Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakunde a(AMEE)** du erreferentzia nagusien artean. Organo horrek EAEko Epaitegi, Auzitegi eta Fiskaltzei laguntzen die, auzitegi-medikuko peritu-txostenak eginez. Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen barnean **Balorazio Forentse Integraleko Unitateak (BFIU)** daude, psikiatrian, psikologia klinikoan eta gizarte-lanean adituak diren auzitegi-medikuntzako langilez osatutako diziplina anitzeko taldeak. Unitate horren funtzioa da diagnosirako peritu-txostenak egitea bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriako, familia barneko indarkeriako eta sexu-indarkeriako kasuetan.

**Genero-indarkeriako** kasuetan BFIUko profesionalak peritu-laguntza ematen diote biktimari epaitegian edo fiskaltzan (eta hala dagokionean, bere seme-alabari eta erasotzaileari ere bai), osoko balorazio bat egiteko biktimari eragindako lesioen edo kalte psikiko eta fisikoaren eta lekukotzaren sineskortasunen inguruan, eta salatutako pertsonaren egozgarritasunari edo indarkeria-arriskuaren (etorkizunean indarkeria berriro agertzea) inguruan, eta txosten bat egiteko. Halaber, txostenak egiten ditu **sexu-indarkeriako** kasuetan. Jardute-eremu horretan, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko 10/2022 Legea indarrean sartzeak aldaketak ekarri ditu auzitegi-medikuntzaren jardunean, esate baterako, **auztegi-medikuak esku hartzeko eta lagin biologikoak jasotzeko biktimak salaketa ipintzeko betekizuna baztertuz**. Gaur egun, biktimaren baimena nahikoa da ekintza horiek abiarazteko.

AMEE espedienteak	2022		2023	
	Genero-indarkeria	Sexu-indarkeria	Genero-indarkeria	Sexu-indarkeria
<b>Araba</b>	-	-	316	73
<b>Bizkaia</b>	365	235	448	251
<b>Gipuzkoa</b>	333	101	339	110

13. taula: AMEEaren azken memoriatik (2023) lortutako datuak. Memorian bertan hiru lurraldeen arteko datuak parekatzeko eta alderatzeko garaian dauden mugak aitortzen dira. Beraz, lurralde historikoen artean egiten den edozein alderaketa zuhurtziaz begiratu behar da.

Indarkeria matxistaren aurkako borrokan eragina duten Zuzendaritza honetako beste baliabide batzuei dagokienez, nabarmendu behar da **Justiziako Zerbitzu Publikoaren Antolamendu Eraginkortasunari buruzko Legeak** eskuduntza berriak esleitzen dizkiela **Emakumeen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiei, sexu-delituen, jazarpenaren, sexualki ustiatzeko salerosketaren eta behartutako matrimonioen ikerketa** barne. Aldaketa horrek, ziurrenera, halako epaitegietan lan-karga handitzea ekarriko du. Beraz, funtsezkoa izango da premiak eta baliabide materialak zein giza baliabideak berriro ebaluatzea, lan-karga hori birbanatzeko edota, beharrezkoa balitz, langile-kopurua handitzeko. Halaber, langileek berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloan duten prestakuntza-ibilbidea berrikustea ekarriko du, prestakuntza-eskaintza langileen premiak estaltzera bideratzeko berdintasunaren Legea betez.

Epaitegi-kopurua Lurralde Historikoen arabera 2024				
Epaitegiak / ZULUPak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
1. auzialdia	9	23	8	39
Instrukzioa	4	13	5	23
1. Auz. eta Instrukzioa	2	16	17	35
Erregistro Zibila <sup>24</sup>	0+2	1+5	0+6	1+13
Adin txikikoak	1	2	1	4
Adm. Auz.	4	5	3	12
Epaitegiak / ZULUPak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Gizarte-arloa	4	12	6	22
Merkataritza-arloa	-	3	2	5
Penala	2	9	5	16

<sup>24</sup> 2023/01/01: Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegia, funtzionamenduari dagokionez, Bilboko Lan-arloko 12 zenbakiko epaitegi bihurtzen da. 2023/06/30: Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 4 zenbakiko Epaitegia funtzionamenduan sartzea. 2024/12/31 Bilboko Lehen Auzialdiko 17. zenbakiko Epaitegiaren sorrera eta eraketa

Emakumeen aurkako indarkeria	1	4	1	5
Espetxe-zaintza	-	1	-	1
Probintzia-az.	1	1	1	3
JAN	-	1	-	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>28+2</b>	<b>91+5</b>	<b>49+6</b>	<b>168+13</b>

14. taula: Epaitegi kopurua, lurralde historikoaren arabera, 2024ko ekainaren 30ean. Iturria: "Justiziaren egoera EAEn, zenbakitan (2025)" txostena.

Jarraian, Justizia Administrazioako Zuzendaritzaren jardute-eremuekin lotutako zenbait erronka azaltzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiarekin duten lotura adieraziz.

HELBURU ESTRATEGIKOA	LERROA	ERRONKAK
<b>I.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERTINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA</b>	<b>1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ EAeko Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen Bertintasunerako II. Plana (2022-2025) ebaluatzea, aurrerapenak, zailtasunak edo hobetzeko ildoak, gehien eta gutxien garatutako lan-ardatzak edo datozen urteetan begiratu beharreko fokuak identifikatuz, ondoren III. Plana prestatzeko.</li> <li>➤ Sexu-jazarpenera eta sexuaren ziozko jazarpenera prebenitzeko, sexu-orientaziorako, sexu- edo genero-identitaterako edo genero-adierazpenerako Protokoloaren jarraipena egitea, tresna baloratu eta hobetzeko xedez.</li> <li>➤ Justizia Administrazioako langileen artean protokoloaren hedapena eta prestakuntza areagotzea.</li> </ul>
	<b>3. ILDOA. BALIABIDE TEKNIKOAK ETA TREBAKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Genero-ikuspegia txertatzea Zuzendaritzan prestakuntza-premiei buruz egiten den galdetegi orokorrean.</li> <li>➤ Prestakuntza-premia espezifikoei buruzko diagnosia egitea berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan.</li> <li>➤ Bertintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan prestakuntza-ibilbide bat diseinatu eta txertatzea, kidego bakoitzaren zereginetara eta profiletara egokituta.</li> <li>➤ Indarkeria matxistaren arloko prestakuntza Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legean jasotako esparru berrira egokitzea.</li> <li>➤ Bertintasunaren arloan eskaintzen den prestakuntza orokorra areagotzea eta sakontzea.</li> </ul>
<b>I.2.- ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERTINTASUNA TXERTATZEA</b>	<b>5. ILDOA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Genero-ikuspegiarekin berrikustea Karrera Judizialera eta Fiskalera, eta Justizia Administrazioako Letraduen Kidegora sartzeko oposizioak prestatzeko laguntzen klausulak.</li> <li>➤ Karrera Judizialera eta Bake Epaitegietara sartzeko oposizioak prestatzeko laguntzak eskatzen dituzten pertsonen parte-hartzeari buruzko datuak jaso, eta sexuaren arabera banakatuta aztertzea.</li> <li>➤ Genero-ikuspegia gaineratzea lanpostuak berrantolatzean edo birbanatzean, eta lan-poltsak garatzean.</li> <li>➤ Genero-ikuspegia txertatzea hainbat udalerritarako Erregistro Zibiletako liburuak txertatzeko eta digitalizatzeako hobekuntza-planean.</li> <li>➤ Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako Gida eguneratzea dokumentazio judizialaren eredu normalizatuetan.</li> </ul>
<b>II.6.- EMAKUMEEK BEREN ESKUBIDEAK BENETAN ERABILTZEA BERMATZEA</b>	<b>13. ILDOA. OSASUNERAKO ESKUBIDEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Arrisku Psikosozialen ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzeko hasitako lanean aurrera egitea: emakumeen eta gizonen artean bereizitako arriskuak identifikatzea, etab.</li> <li>➤ Genero-ikuspegia sartzeko Prebentzio Zerbitzuko kontratuetan, bereziki, osasunaren zaintzarekin lotutakoetan.</li> </ul>

<b>IV.11.-EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA BULTZATZEA</b>	<b>25. ILDOA. IKERKETA ETA INFORMAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Genero-ikuspegia gaineratzen duten ebaluazio-adierazleak gaineratzea, langileak, espazio berriak eta EAEko judizio arloko eraikin guztietan egiteko obrak berrantolatzekeo premiak identifikatzeko aukera ematen dutenak, bereziki, indarkeria matxistaren aurkako borrokarekin zerikusia dutenetan.</li> <li>➤ Baterako irizpideak sortzea AMEEaren hiru zuzendariordetzetan, kasuei eta hitzorduei buruzko datuak jasotzeko.</li> <li>➤ AMEEaren urteko memorian datu guztiak sexuaren arabera banakatuta erakustea.</li> </ul>
	<b>27. ILDOA. TREBAKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Emakumeen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegietako EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren langileek berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dituzten prestakuntza-premia espezifikoa hautematea.</li> </ul>
<b>IV.12.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ERANTZUNA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK ETA HAIEN AHALDUNTZEA ESKU-HARTZEAREN ERDIAN IPINIZ EMATEN DELA BERMATZEA</b>	<b>29. ILDOA. LAGUNTZA INTEGRALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sexuaren arabera banakatutako datuen bilketa eta beste zenbait aldagai sistematizatzea, justizian sartu ahal izateko egon daitezkeen eragozpenak aztertzea.</li> </ul>

### 4.2.3. Justizia Zuzendaritzarekin lotutako esku-hartzea

#### Diagnostiko orokorra eta erronkak, Justizia Zuzendaritzari dagokionez

Justizia Zuzendaritzaren zereginak dira, besteak beste: justizia-sistema, defentsa eta babes judizial eraginkorra jasotzeko aukera, gatazkak ebazteko eta justizia errestitutiborako bitarteko egokien garapena eta erabilera eta hauren eta nerabeen babes egokia hobetzea justiziako zerbitzu publikoan. Halaber, delituen biktimak sistemaren erdigunean ipintzen saiatzen da, eta legearekin gatazkan diren adin txikikoen gizarteratzea bultzatzeaz, zein espetxerik gabeko bidea eta justizia errestitutiboa bultzatzeaz arduratzen da.

Esparru horretan, jarduketak honako hauetara bideratzen dira nagusiki: delituen biktimak, gazteen justiziaren mendeko adin txikikoak, preso eta zigortuta dauden pertsonak, indarkeria matxista eragin duten gizonak, Justizia Administrazioako epaitza, fiskaltza, prokuradoreak, gizarte-laneko graduatuak, Talde psikosozialak, Oñatiko Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundeko langileak eta, oro har, herritarrak.

**Indarkeria matxistarekin** lotutako kasu-kopuruen gorakadak eragin zuzena du Zuzendaritza honen politiken, jarduketan eta zerbitzuen garapenean, eta baita indarkeria horri aurre egiteko garatutako araudiaren bidez Zuzendaritzari esleitzen zaizkion zeregin eta eskuduntzetan ere. Bere jarduketak, sarritan, indarkeria matxistako kasuak prebenitu eta horietan esku-hartzearekin lotuta daude zuzenean edo zeharka, hala biktimen arretea integralaren eta erreparazioaren ikuspegitik, nola erasotzaileekin egiteko esku-hartzearen, edo gazteekin lantzeko prebentzioaren edo esku-hartzearen ikuspegitik.

Emakumeen aurkako indarkeriarengatiko biktimizazioak EAEn.								
		2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria	Araba	599	625	557	571	702	811	878
	Bizkaia	2.194	2.230	2.135	2.114	2.352	2.567	2.594
	Gipuzkoa	1.181	1.231	1.122	1.188	1.453	1.440	1.649
	<b>EAE</b>	<b>3.974</b>	<b>4.086</b>	<b>3.814</b>	<b>3.873</b>	<b>4.507</b>	<b>4.818</b>	<b>5.121</b>
Familia barruko indarkeria (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena salbu)	Araba	123	166	147	172	162	156	178
	Bizkaia	547	524	654	570	568	613	660
	Gipuzkoa	283	318	314	364	386	341	393
	<b>EAE</b>	<b>953</b>	<b>1.008</b>	<b>1.115</b>	<b>1.106</b>	<b>1.116</b>	<b>1.110</b>	<b>1.231</b>
Sexu-askatasuna	Araba	64	55	59	52	77	92	118
	Bizkaia	191	235	172	224	274	325	357
	Gipuzkoa	133	134	116	175	169	227	291
	<b>EAE</b>	<b>388</b>	<b>424</b>	<b>347</b>	<b>451</b>	<b>520</b>	<b>644</b>	<b>766</b>
<b>GUZTIRA</b>	Araba	786	846	763	795	941	1.059	1.174
	Bizkaia	2.932	2.989	2.961	2.908	3.194	3.505	3.611
	Gipuzkoa	1.597	1.683	1.552	1.727	2.008	2.008	2.333
	<b>EAE</b>	<b>5.315</b>	<b>5.518</b>	<b>5.276</b>	<b>5.430</b>	<b>6.143</b>	<b>6.572</b>	<b>7.118</b>

15. taula: Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko biktimizazioak EAEn 2018-2024. Iturria: Emakunde.

Zuzendaritzatik, arretoa eta laguntza ematen zaie delituaren biktimei **Biktima Laguntzeko Zerbitzuaren** (aurrerantzean, BLZ) bidez. Zerbitzu horren eginkizuna da biktimen eskubideak defendatzea, eta delitu baten biktima izan diren pertsonen sistema judizialarekiko harremanean laguntza ematea du xede, Delituaren Biktimaren Estatutua izenekoan jasotako berme guztiak betetzen direla bermatuz<sup>25</sup>. Zerbitzuak, aurrez aurre eta doan, gizarte-aholkularitza (informazioa eta izapidetzea, Doako Laguntza Juridikoa, babes-mekanismo teknikoaren jarraipena...) eta aholkularitza psikologikoa (esku-hartze psikoterapeutikoa, euskarri emozionala, epaiketarako prestaketa...) eskaintzen ditu. Lau dependentzia judizial ditu, Lurralde Historikoetako hiriburutan, eta Barakaldon. Eskusiboki indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako zerbitzu bat ez izan arren, datuek islatzen dutenez, batez ere, indarkeria mota hori da zerbitzua gehien artatzen dena.

2023an, BLZak guztira 2.642 espediente izapidetu zituen genero-indarkeriagatik, familia barruko indarkeriagatik eta sexu-askatasunaren kontrako delituengatik. Zenbaki hori 2022an erregistratu zena (2.059 espediente izapidetu ziren) baino % 28,3 handiagoa izan zen. 2024an 3.540 pertsona artatu zituen BLZak (biktima zuzenak zein zeharkakoak): 2.884 emakume (% 81) eta 656 gizon (% 19). Genero-indarkeriagatik 1.942 pertsona artatu ziren, horietako 1.912 emakumeak. Halaber, 2024an, 464 pertsona artatu ziren sexu-indarkeriaren delituengatik, 404 emakume eta 60 gizon. Zenbaki horiek islatzen dutenez, **2024an BLZak artatutako kasuen gutxienez % 67 indarkeria matxistako delituekin lotutakoak izan ziren** (2.406 pertsona), eta horietako 2.316 emakumeak izan ziren; hau da, 2024an halako delituengatik artatutako pertsonen % 96 emakumeak izan ziren (gainerakoak ingurunearekin zerikusia duten adin txikikoak, senideak edo pertsonak zian daitezke).

Lantaldea jurista, gizarte-langile eta psikologoz osatutako diziplina anitzeko taldeek osatzen dute. Aurreko legegintzaldian, zerbitzua **2022an 16 profesional izatetik 2023an 21 pertsona izatera pasa da, hiru Lurralde Historikotan banatuta**, beraz, lantaldea modu nabarian sendotu da. Profesional guztiak jaso dute prestakuntza berdintasunean edota emakumeen aurkako indarkerian. Zerbitzu horrek gizarte-aholkularitzako, aholkularitza juridikoko eta aholkularitza psikologikoko zereginak betetzen ditu, Delituaren Biktimaren Estatutuan ezartzen diren eginkizunak betetzeaz gain. Zenbaitetan, BLZak, egokitasunaren arabera, **akonpainamendu-zerbitzua** aktibatu du genero-indarkeriako edo sexu-erasoko eta familia

<sup>25</sup> 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena.

barneko indarkeriako biktimentzat prozesu judizialean (nahiz eta akonpainamendua ez den indarkeria matxistako biktimentzako zerbitzu eskusiboa). Halaber, **talde errestituratuaren Argiak programa** gauzatu da genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzat. Programa 2023an jarri zen martxan eta 2024an zehar garatu da.

Halaber, Biktima Laguntzeko Zerbitzuak, era berean, **prebentziozko espetxe-komunikazioekin** lotutako eginkizunak hartzen ditu beregain 2015az geroztik, eta aurreko legegintzaldian lan horrekin jarraitu du:

Urtea	Espetxetik ateratzearen prebentziozko komunikazioak zigortuaren egoeran izandako aldaketen ondorioz (espetxe-aldaketa, gradu-aldaketa, etab.).	Espetxetik ateratzearen prebentziozko komunikazio arruntak
2021	345 (263 genero-indarkeriagatik)	726 (412 genero-indarkeriagatik)
2022	451 (309 genero-indarkeriagatik)	1045 (644 genero-indarkeriagatik)
2023	568 (365 genero-indarkeriagatik)	1624 (713 genero-indarkeriagatik)
Guztira	1.364 (937 genero-indarkeriagatik)	3.395 (1.769 genero-indarkeriagatik)

16. taula. Espetxetik ateratzearen prebentziozko komunikazioak zigortuaren egoeran izandako aldaketen ondorioz.

Zuzendaritzaren beste zerbitzu bat **Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Euskadiko Koordinazio Zentroa** da (aurrerantzean EAIKZ), biktimari biktimaren egoera prozesalari buruzko informazioa etengabe ematea eta kautela-neurrien irismenaren eta indarraldiaren berri ematea bermatzeko; biktimari gizarte-baliabide eta -laguntzen berri ematen dio, eta gizarte-laguntza eta -babeseko neurriak koordinatzen ditu.

EAIKZ da EAEko koordinazio-puntua, eta epaitegiek genero-indarkeriarekin (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena), babes-neurriekin, kautelazko urruntze-neurriekin, epaiekin eta babes-neurriei buruzko likidazio edo informazioarekin lotutako neurriren bat jasotzen duten ebazpen judizial guztiak igortzen dituzte telematikoki (eguneko 24 ordutan, urteko 365 egunetan), adibidez: babes-neurrien hasierarekin eta amaierarekin lotutakoak. Bere zeregin nagusia EAEko Babes Agindua koordinatzea da, beharrezkoak diren laguntzak martxan jarri daitez. Zentroak, biktimari zuzendutako gutun baten bidez, BLZ zerbitzuaren eta BLZak artatua izateko bere eskubidearen berri ematen dio (aipatu zerbitzuak aholkatu eta lagundu egin dezake, behar badu).

2023an zentroak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatik irekitako 2.045 prozedura izapidetu zituen guztira, eta % 54 kasu berriak izan ziren (1.105). Kasu berrien kopuruak behera egin zuen 2022ko datuekin alderatuta, urte hartan 1.753 kasu berri erregistratu baitziren (% 36,3 gutxiago). 2024an 2.437 prozedura ireki ziren guztira.

Halaber, Justizia Zuzendaritzaren eginkizuna da herritarrei **Doako Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzua** antolatu eta kontrolatzea, eta zerbitzu horretarako irispidea kudeatzea, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeen bidez. Justiziako zerbitzu publikorako irisgarritasun unibertsalak pertsona bakar bat ere kanpoan ez geratzea eskatzen du, bereziki, zaugarritasun-egoera handiagoan egon daitezkeen pertsonak (adin txikikoak, indarkeria matxista pairatu duten pertsonak, pertsona desgaituak, txirotasun- eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonak, etab.). Horretarako, EAEko Administrazio Orokorrak eta Legelarien Euskal Kontseiluak 2024ko maiatzaren 15ean sinatutako **Hitzarmena** funtsezkoa da **emakumeen aurkako indarkeria-delituen, familia barneko indarkeria-delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima diren pertsonen, eta indarkeriaren biktima diren haur, nerabe eta pertsona desgaituei berehalako doako laguntza juridikoa emateko**, legezko azken aldaketekin bat etorritik, pertsona edota kolektibo onuradun gehiagotara iritsi dadin, adibidez, haur eta pertsona desgaituengana. **Hitzarmen hori urtebetez luzatu zen 2024ko abenduaren 20an, 2025eko abenduaren 31ra arte.**

Doako Lege Laguntzaren Zerbitzuak antolatzen eta kudeatzen ditu Legelarien Euskal Kontseilua osatzen duten hiru Elkargoak, elkargokide diren profesionalen artean Ofiziozko Txanda ezarritik. **Ofiziozko Txandaren** barruan hainbat txanda

espezifikoa daude, eta horietako bat da **emakumeen aurkako indarkeria matxistaren txanda espezifikoa**. Bertan daude inskribatuta arlo horretan hastapeneko eta etengabeko prestakuntza duten letradunak, prozesu judizialean arreta juridiko hobe eta egokiagoa bermatzeko. Txandak **24 orduko guardiako zerbitzua du** barruti judizial bakoitzean, eta lege-laguntza doakoa **berehalakoa, integrala eta espezializatua** eskaintzen die genero-indarkeriaren (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena), familia barneko indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren EAEko biktima guztiei, bertan bizi zein ez, eta haien diru-sarrerak gorabehera<sup>26</sup>.

Justizia Zuzendaritzak bermatu behar du **doako laguntza juridikoaren** derrigorrezko zerbitzuak ematen dituzten letradunek **indarkeriaren eta indarkeria matxistaren arloan** beharrezkoa den **prestakuntza eta espezializazioa** <sup>27</sup> dutela, eta laguntza juridiko hori abokatuen elkargoak hartu behar duela beregain. Horretarako, dirulaguntza izenduna eskaintzen dio Legelarien Euskal Kontseiluari, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako abokatuen elkargoetako letraduei prestakuntza espezializatua ematea bermatzeko.

Hurrengo taulan azken legegintzaldian egindako prestakuntzak jasotzen dira. Bertan prestakuntza-kopuruak, pixkanaka, gora egiten duela ikusten da. Prestakuntza horiek ez dira genero-indarkeriara mugatzen, eta beste indarkeria batzuk ere lantzen dira, esate baterako, sexu-indarkeria, indarkeria matxistaren biktimei arreta espezializatua emateko esparruan:

Urtea	Ikastaro-kopurua	Pertsona- eta ikastaro-kopurua
2021	<p>Guztira: 6</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Araba: 1</li> <li>• Bizkaia: 3</li> <li>• Gipuzkoa: 2</li> </ul>	<p>Arabako Abokatuen Elkargoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarkeriaren Jardunaldia (191 pertsona bertaratu ziren).</li> </ul> <p>Bizkaiko Abokatuen Elkargoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxeko Indarkeriako/Genero-indarkeriako Txandan sartzeko ikastaroa (135 pertsona bertaratu ziren, 74 emakume eta 61 gizon).</li> <li>• Etxeko Indarkeriako/Genero-indarkeriako Txandan mantentzeko ikastaroa (546 pertsona bertaratu ziren, 310 emakume eta 236 gizon).</li> <li>• Sexu-abusuen eta -erasoen delituen ikerketak (63 pertsona bertaratu ziren, 39 emakume eta 24 gizon).</li> </ul> <p>Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren edota sexu-erasoen ofiziozko txandan sartzeko ikastaroa (sartzea) (65 pertsona bertaratu ziren).</li> <li>• Genero-indarkeriaren mahai biribila: Azken jurisprudentzia aztertzeko mahai biribila (140 pertsona bertaratu ziren).</li> </ul>
2022	<p>Guztira: 6</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Araba: 1</li> <li>• Bizkaia: 2</li> <li>• Gipuzkoa: 3</li> </ul>	<p>Arabako Abokatuen Elkargoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarkeriaren Jardunaldia (172 pertsona bertaratu ziren, 90 emakume eta 82 gizon).</li> </ul> <p>Bizkaiko Abokatuen Elkargoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxeko Indarkeriako/Genero-indarkeriako Txandan sartzeko ikastaroa (66 pertsona bertaratu ziren, 42 emakume eta 24 gizon).</li> <li>• Etxeko Indarkeriako/Genero-indarkeriako Txandan mantentzeko ikastaroa (513 pertsona bertaratu ziren, 293 emakume eta 220 gizon).</li> </ul> <p>Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizakien salerosketaren biktimen jardunaldia (31 pertsona bertaratu ziren).</li> <li>• Genero-indarkeriari buruzko online mahai biribila (41 pertsona bertaratu ziren).</li> </ul>

<sup>26</sup> Prozedura zibiletan doakotasuna irekitako zigor-prozeduraren baitakoa da ("behin-behineko" biktimaren agiri judiziala). Hori bertan behera geratuz gero, eskaera izapidetu eta lotutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, hainbat betekizun betez (sarrera-maila, etab.)

<sup>27</sup> Dauden txanda guztietan, bereziki, berehalako laguntza juridikoaren guardia espezializatuko txandan eta genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimentzako ofiziozko txandan daudenei.

		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren edota sexu-erasoen txandako ikastaro aurreratua (82 pertsona bertaratu ziren).</li> </ul>
2023	<p>Guztira: 8</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Araba: 1</li> <li>• Bizkaia: 4</li> <li>• Gipuzkoa: 3</li> </ul>	<p>Arabako Abokatuen Elkargoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarkeriaren Jardunaldia (173 pertsona bertaratu ziren, 108 emakume eta 65 gizon).</li> </ul> <p>Bizkaiko Abokatuen Elkargoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxeko indarkeriako/genero-indarkeriako txandan sartzeko ikastaroa (67 pertsona bertaratu ziren, 34 emakume eta 33 gizon).</li> <li>• Etxeko Indarkeriako/Genero-indarkeriako Txandan mantentzeko ikastaroa (505 pertsona bertaratu ziren, 287 emakume eta 218 gizon).</li> <li>• Emakumeen aurkako indarkeria bikarioa eta instituzionala (236 pertsona bertaratu ziren, 195 emakume eta 41 gizon).</li> <li>• Sexu-askatasunaren aurkako delituen azken aldaketak (63 pertsona bertaratu ziren, 39 emakume eta 24 gizon).</li> </ul> <p>Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren edota sexu-erasoen ofiziozko txandako ikastaro aurreratua (114 pertsona bertaratu ziren).</li> <li>• Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko Lege Organiko berriari buruzko ikastaroa. (94 pertsona bertaratu ziren).</li> <li>• Indarkeriaren aurkako kafe juridikoa (29 pertsona bertaratu ziren).</li> </ul>
2024	<p>Guztira: 10</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Araba: 3</li> <li>• Bizkaia: 4</li> <li>• Gipuzkoa: 3</li> </ul>	<p>Arabako Abokatuen Elkargoa:</p> <p>Indarkeriaren Jardunaldia (158 pertsona bertaratu ziren, 107 emakume eta 51 gizon).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Adin txikikoei buruzko jardunaldia. 165 elkargokide bertaratu ziren, 102 emakume eta 63 gizon.</li> <li>• Familia jardunaldia. 59 elkargokide bertaratu ziren, 41 emakume eta 18 gizon.</li> </ul> <p>Bizkaiko Abokatuen Elkargoa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxeko indarkeriako/genero-indarkeriako txandan sartzeko ikastaroa (61 emakume eta 30 gizon).</li> <li>• Etxeko Indarkeriako/Genero-indarkeriako Txandan mantentzeko ikastaroa (302 emakume eta 216 gizon).</li> <li>• Adin Txikoen txandan mantentzeko ikastaroa. 492 pertsona bertaratu ziren, 287 emakume eta 205 gizon.</li> <li>• Genero-indarkeriaren biktimak babesteko aretoko fiskalaren azken irizpideak. 201 pertsona bertaratu ziren, 146 emakume eta 55 gizon.</li> </ul> <p>Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren edota sexu-erasoen ofiziozko txandan sartzeko ikastaroa (75 pertsona bertaratu ziren).</li> <li>• Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko Lege Organiko berriari buruzko ikastaroa. (94 pertsona bertaratu ziren).</li> <li>• Indarkeriaren aurkako kafe juridikoa (29 pertsona bertaratu ziren).</li> </ul>

17. taula: EAEko Abokatuen Elkargoetan ofiziozko txanda espezifikoetarako egindako prestakuntza 2021-2024.

Aurreko legegintzaldian funtzionamenduan izan den Justiziarekin lotutako beste zerbitzu bat **Talde Psikosozial Judiziala** da (aurrerantzean TPJ). TPJK epaitegi, auzitegi eta fiskaltzei aholkularitza teknikoa eta laguntza ematea du xede; bereziki, familien jurisdikzioari eta adin txikikoen zigor-jurisdikzioari.

TPJren zereginetako batzuek lotura estuagoa dute emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen kasuekin: familia-harremanak erregulatzea eta gurasoen eskuduntzak (zaintza, bisita-araubidea, etab.) ebaluatzea eskatzen duten gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak edo dibortzioak erregularizatzeko prozedura zibiletan ebaluazio psikosoziala egiteko peritu-txostenak egitea; haurren babesgabetasun-prozeduretan ebaluaziorako peritu-txostenak egitea (gurasoen eskuduntzak, Foru Aginduak aurkaratzea...); edo adin txikikoentzako edo desgaitasuna duten pertsona helduentzako aurrez eraturako probak egitea (aditu baten bidezko adierazpen judizialak), bereziki sexu-indarkeriaren biktima diren adin txikikoen kasuan.

Halaber, indarkeria matxistaren eta adin txikikoen babesaren esparruan, epaileak agindutako **Familia Elkarguneak** (FE) zeregin aktiboa betetzen duten zerbitzuak dira. Familia-elkarguneek gune neutral bat eskaintzen dute krisi-egoeran dagoen edo, egoera horretan egon ez arren, jarraipen eta gizarte- eta hezkuntza-laguntza jasotzearen zerbitzua behar duen familia bateko kideak elkar daitezen, diziplina anitzeko lantalde teknikoaren laguntzaz eta segurtasun- eta ongizate-berme guztiekin. Elkargune horien erabilera ebazpen judicial bidez erabakitzen da. Euskadin, guztira, bederatzi Familia Elkargune daude<sup>28</sup>.

Epaileak agindutako Familia Elkarguneei (FE) buruzko ebaluazio-txostenean jasotako azken datuen arabera, 2024an 1.167 adin txikiko artatu ziren EAEn: 577 mutiko (% 49,44) eta 590 neskatu (% 50,56); eta 1.750 pertsona heldu: 829 aita, 847 ama eta beste 74 senide (datuen arabera banakatu gabeko datuak); eta 854 familia-talde ezberdin. Haatik, FEen kasuan, nabarmendu behar da kasuen % 40 Emakumeen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiek agindutako kasuak izan zirela, eta guztira 287 babes-agindu zenbatu ziren. Azken kasu horretan, aginduen % 69 gizonen zuzenduak izan ziren, eta % 31 emakumeen zuzenduak. Gainera, FEetara jo zuten familia erabiltzaileen artean, gehienetan zaintza amari ematea erabaki zen (% 84), eta aitaren aldeko kasuak % 12a izan ziren<sup>29</sup>; datu hori EAeko banantze eta dibortzioei buruz EUSTAT (2021) erakundeak biztanleria orokorrari buruz erregistratutako datuen aurka doa, non zaintza partekatutako % 31 izan ziren (% 26,5 amaren alde, eta % 4,18 aitaren alde).

**Emakumeen aurkako indarkeria matxistako delituak egin dituzten adin txikikoekin eta helduekin esku-hartzeari** dagokionez, Justizia Zuzendaritzak hainbat baliabide izan ditu (eta ditu). Emakundek 2023an egindako *Zifren Txostena 2024* dokumentuan jasotzen diren datuen arabera, 2023an halako delituak egin zituzten 5.104 gizon (adin txikikoak tartean) identifikatu ziren guztira. Horrek, aurreko urtearekin alderatuz, % 7,7ko igoera suposatzen zuen. Erasotzaile horien % 78,7k 18 eta 50 urte bitartean zituen, eta % 18,1 adin-tarte aurreratuen zegoen (51 urtetik aurrera). Adin txikikoen portzentajea % 3koa izan zen horrelako delituen kasuan. Erasotzaileen adinaren arabera banaketak kontuan izateko zenbait datu azaleratu zituen. Gazteen artean (14 urtetik beherakoak), indarkeria-kasu gehienak emakumeen sexu-askatasunaren eta familia barruko indarkeriaren aurkakoak izan ziren (% 46,2 eta % 43,6, hurrenez hurren). Delitua egin zuten 14-17 urte arteko adin txikikoen artean, familia barruko indarkeria izan zen nagusi (% 50,9). 18 urtetik aurrera (65 urtera arte), indarkeria nagusia bikotekidearen edo bikotekide ohiaren testuinguruan agertu zen nagusiki.

Egoera horri erantzuteko, asko dira Justizia eta Giza Eskubideen Sailak aurreko legegintzaldian aipatutako problematika jorratzeko abiarazitako programak, jarduketak eta zerbitzuak.

Jadanik 2014-2018 bitartean, **Gazte Justiziako V. Planean** genero-indarkeria adin txikikoek gehien egindako bost delituen artean agertzen zen. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren urteko estatistiken datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2023an, adin txikikoek genero-indarkeriarekin lotutako 70 delitu egin zituzten, sexu-erasoekin lotutako 56 eta sexu-abusuen ondoriozko 24. 2024an sexu-erasoen ondoriozko delitu-kopurua ia bikoiztu egin zen (96), eta genero-indarkeriarekin lotutako delituek ere gora egin zuten (70). 2024an indarkeria matxistaren ondoriozko delituak EAEn esparru horretan fiskaltzak erregistratutako delitu guztien % 7,5 ziren jadanik.<sup>30</sup> Horregatik, Gazteen Justiziako ikastetxe-sareak eta bitarteko irekiko Zerbitzuak funtsezko zeregina betetzen dute berriz hezteari eta indarkeria matxistaren prebentzioari dagokionez, txertatzen dituzten hezkuntza-programetan berdintasuna eta beste maskulinitasun zenbait bultzatzeko proposamen indibidualak zein taldekoak, edo tresnak gaineratuz.

Legearekin gorabeherak dituzten 14 eta 18 urte bitarteko **nerabe gazteak gizarteratzeko justizia-zerbitzuei** dagokionez, aipatu ditzakegu **Gazteen Justiziarekin** lotutakoak, legea urratzea leporatu zaien adin txikikoak gizarteratzea duena xede. Justizia mota horrek ez du bakarrik zigor-legean eragiten; eta delitua prebenitzea ez ezik, beste hainbat alderdi lantzen ditu, esate baterako, legea aplikatzea, adin txikikoen epailek ezartzen dituzten hezkuntza-neurriak hartzea eta errehabilitatzea.

<sup>28</sup> Sei Bizkaian (Barakaldo, Portugalete, Zalla, Bilbo, Gernika, Durango), bi Gipuzkoan (Donostia eta Tolosa) beste bat Gasteizen.

<sup>29</sup> Nondik atera diren datuak: *Epaitegiek agindutako Familia-elkarguneei buruzko ebaluazio-txostena 2024*.

<sup>30</sup> 2025eko irailaren 24an egindako kontsulta [País Vasco - Fiscal.es](https://paisvasco.fiscal.es)

Botere judizialak pertsona horiek tratatzeko duen modua funtsezko faktorea da, beren familietan, eskolan eta erkidegoan berriro nola integratuko diren zehazten duena. Horretarako, Justizia Zuzendaritzak aurreko legegintzaldian **EAEko Gazte Justiziako V. Plana (2020-2024)** hedatu du. Honako helburu hauek izan ditu: adin txikikoen epaitegien ebazpenak garaiz betearaztea; kontziliazio eta erreparaziorako programetarako sarbidea erraztea eta erantzuna pertsona bakoitzaren arabera egokitzea, eskariari jarraikiz egokitzen diren programan bidez; adin txikikoen arau-hausteak prebenitzea eta murriztea; gazte-justizian parte hartzen duten agenteei prestakuntza ematea; informazioa biltzeko sistema hobetzea, eta gazte-justiziako sistemaren mekanismoak ebaluatzea. Halaber, Gazte Justiziako V. Planena “prestakuntza genero-berdintasunean eta harreman afektiboetan” jasotzen da adin txikiko bakoitzaren Hezkuntza Proiektu Indibidualizatuetan (aurrerantzean, HPI) gaineratzeko neurri gisa .

**Eraso matxistak egin dituzten gizon helduekin esku-hartzeari** begira (genero-indarkeria, sexu-indarkeria, etab.) Justizia Zuzendaritzak **Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzuan (ZKEZ)** dituen eskuduntzak mantentzen ditu. Zerbitzu horrek zigorra edo segurtasun-neurria betetzen dela zaindu behar du, zigorra bertan behera uzteko aukera egon dadin, komunitatearentzat lan egiteko zigor bat aplikatu dadin edo segurtasun-neurri bat aplikatu dadin.

Aurreko legegintzaldian, ZKEZek zuzeneko esku-hartzeko programa ugari burutu ditu indarkeria matxistako delituak egin dituzten gizonekin:

- **Gakoa:** emakumeen aurkako indarkeriagatik bi urte baino gutxiagoko espetxealdira kondenatu diren, eta aurrekaririk ez duten, gizonen zuzendutako errehabilitazio-programa. Bere helburua emakumeen osotasun psikiko eta fisikoa bermatzea eta zaintzea da, gizonak egindako gertaeren gaineko ardura hartzera bideratutako banakako esku-hartze baten bidez.
- **Aldatuz** hezkuntza-programa berritzaile eta espezifikoa, indarkeria matxistarekin lotutako delituengatik gizartearentzat lan egiteko zigorretara kondenatutako pertsonen zuzendua.
- **Sustatzen:** sexu-indarkeriarekin lotutako delituak egin dituzten pertsonen bideratutako programa.

URTEA	GAKOA		ALDATUZ		SUSTATZEN
2021	Banakako saioak	3669	Taldeko saioak	108	Parte hartzaileak 70.
	Taldeko saioak	103	Parte-hartzaileak	168	-
2022	Banakako saioak	3084	Taldeko saioak	144	Parte hartzaileak 88.
	Taldeko saioak	15	Parte-hartzaileak	287	-
2023	Banakako saioak	2923	Taldeko saioak	192	Parte hartzaileak 109.
	Taldeko saioak	94	Parte-hartzaileak	378	-
2024	Banakako saioak	2752 <sup>31</sup>	Taldeko saioak	216	Parte hartzaileak 138.
	Taldeko saioak	68	Parte-hartzaileak	409	-

18. taula: Gakoa, Aldatuz eta Sustatzen programen gaineko aurreko legegintzaldiko datuak. Iturria: ZKEZren urteko memoriak.

Aurreko zerbitzuez eta jarduketaz gain, Justizia Zuzendaritza eskuduna da **espetxe-establezimendu eta -zentroak kudeatu eta gainbegiratzeko, horietako barneko tratamendu-araubideari dagokionez**. Bere eskumena da prestazio hauek kudeatzea: hezkuntza, gizarte-ekintza, espetxe-lana, lanerako prestakuntza, gizarteratzea eta laneratzea, kultura- eta kirol-jarduerak sustatzea eta adikzioen prebentzioa eta tratamendua. Horretarako, koordinazioa erraztuko

<sup>31</sup> Taulan islatzen direnak baino 597 saio gehiago programatu baziren ere, ezinezkoa izan zen horiek gauzatzea absentez, gaixotasunek edo beste inguruabar batzuek eraginda.

du Aukerak Agentziarekin (Gizarteratzearen Euskal Agentzia), eta osasunaren, hezkuntzaren enpleguaren eta gizarte-zerbitzuen arloko administrazio eskudunekin.

2025eko iraileko azken datuen arabera, gaur egun, askatasunaz gabetutako 1.806 pertsona daude EAeko hiru espetxetan banatuta, 154 emakume (% 8,5) eta 1.652 gizon (% 91,5). Giltzapetutako pertsona gehienak 31 eta 60 urte bitartekoak dira. “Euskadiko espetxeen egoerari buruzko txostenean” jasotzen diren datuen arabera<sup>32</sup>, elkarriketatutako emakume preso gehienak (% 72) adierazi zuten gizonen baino zailtasun gehiago dituztela espetxera egokitzeko. Halaber, familia- eta gizarte-lotura galtzeak eragin handiagoa du emakumeengan, eta kondenaren eragina ere handiagoa da, besteak beste, familia-harremanetan eta mendeko senideen zaintzari eta arretari begira.

Espetxeratutako emakume-kopurua txikia zenez, iraganean emakume horiek ikusezin bihurtu ziren. Hain zuzen, horregatik, haien egoera bereziki zaindu beharrekoa da, izan ere, espetxeetako azpiegituren eta langileek beren premia espezifikoak erantzuteko prest egon behar dutela uste da, preso dauden emakumeen berdintasun formala eta materiala bermatze aldera. Horregatik, genero-ikuspegia oinarritzako printzipio gisa gaineratzen da, hiru helburu estrategiko dituen: emakume guztiak ikusezin egin eta homogeneizatu daitezela saihestea, beren arreta espezifikoak eta beren egoera bereziki (migrazio-ibilbidea, desgaitasuna, gaixotasun mentala) erreparatzea, genero arloko prestakuntza egitea espetxeetako langile guztientzako ezinbesteko tresna modura, eta zenbait arazo espezifikoak hiltzea, esate baterako, indarkeria matxista, sexu- eta ugaltze-osasuna, toxikoen kontsumoa, amatasuna eta aitatasuna eta preso dauden emakume askok jasaten duten laguntza-saririk eza prebenitzea eta jorratzea. Erronka horiek Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritzarekin partekatzen dira, azken hori arduratzen baita preso dauden pertsonen funtzionamenduan eragina duten langileen, materialaren eta azpiegituren kudeaketaz.

Aurreko legegintza zehar, **genero-ikuspegia gaineratzen duten bi ikerketa** egin dira: bat Euskadiko espetxetan askatasunaz gabetuta dauden emakumeen egoerari buruz (Emakunderekin lankidetzan), eta beste bat Euskadiko espetxe-politikaren genero-ikuspegia ebaluatzeko aukerari buruz (EHUekin lankidetzan).

Halaber, aurreko legegintza berdintasun arloko eta indarkeria matxistako kasuan prebenitu eta esku hartzeko helburu espezifikoak dituzten zenbait programa espezifiko burutu dira (berezkoak zein gizarte arloko hirugarren sektoreko erakundeek txertatuak). **Emakumea izatea** programa nabarmentzen da, espetxeetan genero-indarkeria prebenitzea duena xede.

Jardute-eremu horretan, Justizia Zuzendaritzak aurreko legegintzaldian zehar **PEEP**<sup>33</sup> programa (Preso dauden Erasotzaileak Errehabilitatzeko Programa) aplikatu du, genero-indarkeriarekin lotutako delituak egin dituzten iraupen labur eta luzeko presioei zuzendua. Gainera **SEKP**<sup>34</sup> (Sexu Erasoa Kontrolatzeko Programa) programa gauzatu da, sexu-erasoak egin dituzten presoei zuzendua, emakume helduak eta adin txikiak bereiziz. Sexu-erasoak egin dituzten pertsonen portaera jorratzeko diseinatutako esku-hartzea da, portaera oldarkorren probabilitatea gutxitu eta berriro gertatzeko arriskua prebenitzeko helburuarekin.

Jarraian, Justizia Zuzendaritzaren jardute-eremuekin lotutako zenbait erronka azaltzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiarekin duten lotura adieraziz.

<sup>32</sup> [Euskadiko espetxeen egoerari buruzko txostena](#)

<sup>33</sup> <https://www.inmujeres.gob.es/areasTematicas/AreaSalud/ProgramasActividades/docs/ViolenciaGeneroCentrosPenitenciarios/Manual.pdf>

<sup>34</sup> [https://www.interior.gob.es/opencms/pdf/archivos-y-documentacion/documentacion-y-publicaciones/publicaciones-descargables/instituciones-penitenciarias/El\\_control\\_de\\_la\\_agresion\\_sexual\\_Programa\\_de\\_intervencion\\_en\\_el\\_medio\\_penitenciario\\_126100334.pdf](https://www.interior.gob.es/opencms/pdf/archivos-y-documentacion/documentacion-y-publicaciones/publicaciones-descargables/instituciones-penitenciarias/El_control_de_la_agresion_sexual_Programa_de_intervencion_en_el_medio_penitenciario_126100334.pdf)

HELBURU ESTRATEGIKOA	LERROA	ERRONKAK
<b>I.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA</b>	<b>1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Zuzendaritzaren programa eta ekintza esanguratsuenak berrikustea, horietako bakoitzean genero-ikuspegia gaineratzeko aukera sakontasunez jorratu ahal izateko. Ekintza edo zerbitzu bakoitzaren berezitasunaren ondorioz, ezinbestekoa da xehetasunezko azterketa egitea honako hauek identifikatzeko: emakumeen premia espezifikokoak, zerbitzu edo programa batekin abiarazi daitezkeen jarduketak ugarietan genero-ikuspegia gaineratzeko moduak, etab.</li> <li>➤ Saileko berdintasunerako teknikariarekin baterako lan koordinatua bultzatzea, Zuzendaritzatik bultzatzen den arauaren garapenean genero-ikuspegia gaineratzeko.</li> <li>➤ Ekintza edo ekimen berri horiek martxan jartzeko aukera baliatzea hasiera batetik genero-begirada izateko. Begirada hori hasieran aktibatzen diren programa eta ekintzen eraikuntzan hori gaineratu behar da, eta programa horien ebaluazioan mantendu behar da.</li> <li>➤ Gazte Justiziako VI. Planean genero-ikuspegia eta generoaren eta Intesekzionalitatearen berezko adierazleak gaineratzea.</li> <li>➤ Sexu-jazarpenaren eta sexu arrazoien ondoriozko jazarpenaren aurreko protokolo bat egitea espetxeetarako.</li> </ul>
	<b>3. ILDOA. BALIABIDE TEKNIKOAK ETA TREBAKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Zuzendaritzako pertsona guztiek berdintasunaren arloan Zuzendaritzaren jardute-eremuetara egokitutako prestakuntza espezializatua izan dezatela sustatzea.</li> </ul>
<b>I.2.- ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA</b>	<b>5. ILDOA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ FE, BLZ eta Gazteen Justizia zentroetako kontratuetako edota hitzarmenetako klausula espezifikoak berrikustea, aldizka kontratua gauzatzen duten langileen prestakuntza-betekizunak (berdintasunaren, indarkeria matxistaren, sexu-indarkeriaren eta haurren eta nerabeen babesaren arloetan) eguneratuz, indarreko araudia betetze aldera.</li> </ul>
<b>I.3.-ERAKUNDEEN GOBERNANTZA-EREDUA ALDATZEA</b>	<b>8. ILDOA. BERDINTASUNAREN IKUSPEGI KONPLEXUAGOA POLITIKA PUBLIKOETAN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ HPIren helburuen artean beste maskulinitasun-eredu batzuk sustatzearekin lotutako jarduketak gaineratzea, indarkeria prebenitzeko tresna gisa.</li> </ul>
<b>II.6.- EMAKUMEEK BEREN ESKUBIDEAK BENETAN ERABILTZEA BERMATZEA</b>	<b>14. LERROA EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ERABILERA INTESEKZIONALITATEAREN IKUSPEGIA GAINERATUZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Desgaitasunaren esparruan aritzen diren erakundeekin lankidetzan, pertsona desgaituentzako bitartekarien misioan sakontzea, prozeduretan komunikazio eraginkorra ziurtatzeko.</li> <li>➤ Zaurgarritasun-egoera berezian dauden emakumeak laneratu eta gizarteratzeko ibilbide eta egitura espezializatuak diseinatzea.</li> </ul>
<b>IV.11.-EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA BULTZATZEA</b>	<b>25. ILDOA. IKERKETA ETA INFORMAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ BLZn laguntzaren kalitatea sistematikoki ebaluatzeko aukera ematen duten adierazle-sorta bat garatzea, zerbitzuak hobetzeko, eta artatzen dituzten herritarren premietara etengabe egokitu daitezten.</li> <li>➤ Justizia Zuzendaritzaren zerbitzuetako memoria guztiak berrikustea, sexuaren arabera banakatutako datuen bilketan eta azterketan indartzeko puntuak hautemateko.</li> <li>➤ BLZra sartzeko oztupoak ebaluatzea sekzio arteko ikuspegi batetik.</li> <li>➤ Oñatiko Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundearen bidez Ikuspegi praktikoa duten ikerketa gehiago bultzatzea, genero-ikuspegia eta sekzio artekoa gaineratzen dituztenak, eta horietako emaitzak herritarren artean plazaratzea.</li> <li>➤ Berdintasunarekin / indarkeria matxistaren aurkako borrokarekin lotutako programa guztietarako baterako sistema-ebaluazio bat prestatzea, espetxeetan aplikatzeko, horien eraginkortasuna eta</li> </ul>

		<p>helburuen betetze-maila ebaluatzeko xedez, erabiltzaileen gogobetetasun-adierazleak ere jasoz.</p>
	<p>26. ILDOA.                  SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Indarkeria matxistarekin lotutako delituak egin dituzten pertsona helduekin prebentzioa lantzea berriro halakorik egin ez dezaten, Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzuan dauden programak mantenduz eta programa berriak gehituz.</li> <li>➤ Espetxeetan preso dauden pertsona helduekin prebentzioa lantzea berriro delituak egin ez ditzaten, indarkeria matxista jorratzeko programen bidez (PEEP, SEKP eta txertatu daitezkeen beste zenbait).</li> <li>➤ Indarkeria matxistarekin lotutako delituak egin dituzten nerabeekin prebentzioa lantzea berriro halako deliturik egin ez dezaten, gazteen justizia zentroetan problematika hori jorratzeko programa espezifikokoak (banakakoak eta taldekoak) aplikatuz.</li> <li>➤ Gazteen justizia zentroetako adin txikikoen artean indarkeria matxistaren aurreko sentsibilizazio-programak sustatzea.</li> <li>➤ Preso dauden emakumeek ahalduntzea eta indarkeria matxistari aurre egiteko tresnak baitaratzea sustatzeko programak eskaintzea.</li> </ul>
	<p>27. ILDOA. TREBAKUNTZA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Doako laguntza juridikoko txandetan zerbitzua ematen duten letradunen eta ofiziozko txandan prokuradore modura aritzen diren langileen prestakuntza eta espezializazioa bultzatzen jarraitzea, beren jardunean genero-ikuspegia txertatu dezaten.</li> <li>➤ Prestakuntza espezializatua bermatzea, Talde Psikosozial Judizialek beren ezagutza eguneratu dezaten uneoro, sexu-indarkeriaren biktime diren haur eta nerabeen osoko arreta-ereduan duten parte-hartzea kontuan izanik.</li> <li>➤ Adin txikiko zentroetako langileen prestakuntza bermatzea berdintasunaren, indarkeria matxistaren, sexu-indarkeriaren eta haurren eta nerabeen babesaren arlotan, indarreko araudiarekin bat etorritik. Era berean, maskulinitasun berriekin lotutako prestakuntza sartzeta.</li> </ul>
<p><b>IV.12. - EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ERANTZUNA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK ETA HAIEN AHALDUNTZEA ESKU-HARTZEAREN ERDIAN IPINIZ EMATEN DELA BERMATZEA</b></p>	<p>29. ILDOA.                  LAGUNTZA INTEGRALA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Indarkeria matxistaren biktimei buruzko Justiziaren alorreko jarduketaplana eguneratzea.</li> <li>➤ BLZaren bidez biktimei osoko akonpainamendua emateko eginkizuna sartzeko betekizunak eta modua aztertu eta zehaztea.</li> <li>➤ Indarkeria matxistako kasuetan osoko arreta emateko jarduketa-protokolo bat prestatzea, espetxeetan preso dauden pertsonentzat.</li> <li>➤ Emakumeek justiziara iristeko dituzten zailtasunak hautematea genero-ikuspegia eta sekzio arteko ikuspegia kontuan izanik, eta desberdintzak (baleude) ezereztzeko ekintzak aktibatzea.</li> </ul>
	<p>30. ILDOA.                  ERREPARAZIOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Talde errestitutiboaren bilakaeraren gaineko luzetarako azterketa egitea, genero-ikuspegitik errehabilitazioarako tresna gisa: parte-hartzea, inpaktua, premien aurreko erantzuna eta gogobetetasun-maila.</li> <li>➤ Emakunderekin elkarlanean aritzea bizirik dauden biktimek laguntza-neurriak edo laguntza ekonomikoak jaso ahal izateko, delitutik eratorritako indemnitazioak, ebazpen judizial bidez ezarriak, ordaintzen ez direnean.</li> </ul>

## 4.2.4. Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea

### Diagnostiko orokorra eta erronkak, Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritzari dagokionez

Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritza berriki sortu da, eta Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuaren ondorioa da. Beraz, oraindik ez dago luzetarako ibilbide bat erakusten duen diagnosi bat egiteko nahikoa datu, berdintasun arloan erronkak hauteman diren arren. Bere eskumenen barruan dauden espetxeetako giza baliabideak planifikatu eta kudeatzea; langile horien premiak aztertzea; plantilla eta lanpostu-zerrendak prestatzeko proposamenak egitea; prestakuntza- eta hobekuntza-planak egitea, bai eta gizarte-prebentzioko eta lan-arriskuen prebentzioko planak ere; arrisku horietarako berezko prebentzio-zerbitzua kudeatzea; sindikatuekiko harremanak izatea, indarrean dagoen negoziazio-egiturak adierazten duen eremuan. Halaber, bere ardura da espetxe-azpiegiturak eta - ekipamenduak kudeatzea, besteak beste, zentro berriak sustatzea, aurretiaz daudenak handitu, zaharberitu eta birgaitzea eta espetxe-establezimendu eta -zentroen funtzionamendurako ezinbestekoak diren bitarteko materialak eta ekonomikoak planifikatzea, hornitzea, antolatzea eta kudeatzea.

Desagertuta dagoen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Eusko Legebiltzarraren mandatuarekin bat etorritik, eta espetxe arloko gaia EAera transferitu ondoren, onartutako **Euskadin Espetxe Eredua Ezartzeko Oinarriak** (2021) dokumentuko lehentasunezko jardute-ildoen artean emakumeen akonpainamenduan genero-ikuspegia eta emakumeen pairatu duten zaurgarritasun- eta diskriminazio-egoera ikusarazteko jarduketa egokiak gaineratu ziren. Azken helburua da desberdintza horiek desagerrarazteko neurri egokiak proposatzea, sexu- eta genero-identitatetik eratorritako premia espezifikoak kontuan izanik.

EAEko espetxeetako funtzionarioei buruzko azken datuen arabera (2025eko uztailako datuak), gaur egun, 412 emakumek eta 702 gizonek egiten dute lan espetxe-esparruan. Datu horretatik ondorioztatu daiteke oraindik **aski maskulinizatutako lana dela**, lan hori egiten duten emakume-kopuruak gora egin duen arren. Egoera objektibo horrek agerian uzten du espetxeetako funtzionarioei zuzendutako berdintasun-politikek duten garrantzia berezia. Horregatik, **2024-2025 ekitaldian langileen artean berdintasunaren arloan dauden premiak hautemateko aurretiko diagnosis egin da.**

Jarraian, Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritzaren jardute-eremuekin lotutako zenbait erronka azaltzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiarekin duten lotura adieraziz.

HELBURU ESTRATEGIKOA	LERROA	ERRONKAK
I.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA	1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA	➤ Sexu-jazarpenaren eta sexu arrazoen ondoriozko jazarpenaren aurreko protokolo bat egitea espetxeetarako, Justizia Zuzendaritzarekin elkarlanean.
	3. ILDOA. BALIABIDE TEKNIKOAK ETA TREBAKUNTZA	➤ Espetxe Zerbitzuetako langileentzako prestakuntza-pan bat egitea, berdintasunaren arloko prestakuntza barne hartzen duena.
	5. ILDOA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK	➤ Kontziliazio-neurriak txertatzeko aukera aztertzea, genero-ikuspegia gaineratuz, esparru horretan egiten den txandakako lana eta dauden lan-baldintza espezifikoak kontuan izanik.

<p><b>I.2.- ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA</b></p>		<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Zuzendaritzako kontratuetan genero-ikuspegia sartzea, berdintasun-klausulen bidez, eta kontratuaren xedearen arabera gizonen eta emakumeen artean egon daitezkeen aldeak aintzat hartuz.</li> </ul>
<p><b>II.6.- EMAKUMEEK BEREN ESKUBIDEAK BENETAN ERABILTZEA BERMATZEA</b></p>	<p>14. ILDOA. EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ERABILERA INTESEKZIONALITATEAREN IKUSPEGIA GAINERATUZ</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Genero-ikuspegia eta sekzio arteko ikuspegia gaineratzea espetxeetako azpiegituren diseinuan eta hobekuntzan eta espazio eksklusiboen eta baterako erabileran, preso dauden emakumeen premia espezifikoak kontuan izanik.</li> </ul>
<p><b>IV.11.-EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA BULTZATZEA</b></p>	<p>27. ILDOA. TREBAKUNTZA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Bertako langileek genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren aurkako prestakuntzan parte hartu dezatela bermatzea, indarreko araudian ezarritakoarekin bat etorritik.</li> </ul>
	<p>29. ILDOA. LAGUNTZA INTEGRALA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Espetxeetan indarkeria matxistako kasuen aurrean jarduteko neurrien protokolo bat sortzea.</li> </ul>

#### 4.2.5. Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea

## Diagnostiko orokorra eta erronkak, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzari dagokionez

Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzari dagokio justiziaren digitalazioa bultzatzea, Egoitza Judicial Jasangarrien Plan bat (2022-2030) sustatzea eta pertsoneri begirako justiziaren arloko administrazio-eredu baterantz jotzea. Halaber, lotura estua du Justizia Administrazioa modernizatzeko eta informatika-sistemak emateko programak eta planak gauzatzearekin.

Zuzendaritza horrek, gainera, **Justiziaren Plan Estrategikoaren, <sup>35</sup>2022-2028 (JPE)** koordinazioa eta jarraipena egiten du. Estrategia horretan ezartzen da proiektu eta estrategia guztietan honako gai hauei dagokienez egoera eta premia bereziak aintzat hartu behar direla: eskubidearen erabilera, aukera-berdintasuna eta baliabide ekonomikorako irisgarritasuna, denboraren baliabidea, hezkuntza eta maila kulturala, lan-merkatua, teknologia berriak, administrazio elektronikoa, Interneten erabilera aurreratua, teknologia aurreratuenak, herritarren partaidetzarako bideak, herritar-kolektiboan edo erakunde-organoen kategorian ezberdinak, etab. Era berean, berdintasunaren arloan aplikatzeko indarreko legeria eta berdintasun-politikekiko konpromiso politikoa kontuan izatearen, eta Emakunderen, Eusko Jaurlaritzaren eta EHUren baliabideen orrialdeetan erabilgarri dauden baliabideak eta tresnak (hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista erabiltzeko gida, bideoak, azterketa-tresnak, berdintasun-klausulak, dirulaguntzak eta hitzarmenak, desberdintza-egoera testuinguruan jartzeko materialak, etab.) erabiltzearen garrantzia adierazten da, genero-ikuspegia gaineratu ahal izateko.

JPEaren ekintza-planaren barruan, 2. ildo estrategikoan, *“Pertsona zaurgarrien irisgarritasuna erraztu eta haiek laguntzen dituen justizia”* izenekoan, berdintasunarekin lotutako programetako asko jaso dira. Alde batetik, **Justizia eta Emakumeak programa** egitea ipini da helburutzat, emakumeen gutxiagotasun- eta mendetasun-egoera antzematera eta, hala badagokio, zuzentzera bideratua; auzitegietan beren eskubideak eskatzeko duten zailtasun handiagoak erakusten du egoera hori, bai eta haiei uziei emandako erantzunek guztiz edo zati batez ez gogobetetzeak. Beste alde batetik, **Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen alboan egonez programa** ere gaineratu da. Bertan *Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei buruzko jarduera-plana* eguneratu eta garatuko da, Istanbulerako Adierazpenean indarkeria horri buruz jasotzen den definizioaren ildotik. Azkenik, **“Biktima Artatzeko Zerbitzua Sendotuz” programa dago**. Bertan BAZaren funtzionamendua aztertzea proposatzen da.

JPEaren koordinazioaz gain, Zuzendaritza honek jarraian aipatzen diren plan hauek koordinatzen ditu:

- **Justizia Digitalaren Plana, 2021-2026<sup>36</sup>**, Justiziaren Plan Estrategikoaren (2022-2028) lehentasunezko ildoetako bat. Plan honek teknologia digitala txertatzea dakar sistema judizialeko arlo guztietan, gatazkak konpontzeko lanak hobeto eta eraginkortasun handiagoarekin egin ahal izateko; horretarako, justiziaren antolamendua aldatzen da, bai eta justizia herritarrekin harremanak izateko modua ere, eta pertsonen eskubideei sortzen zaizkien arriskuak eta berme prozesalak kudeatzen dira.
- **Desgaitasuna duten Pertsoneri Justiziarako Sarbidea Errazteko Plana (2023-2027)<sup>37</sup>**; hau ere JPEaren barruan. Bere helburua da pertsona desgaituak Justiziarira iristea bermatzea, eraginkortasunez eta gainerako herritarren baldintza berdinetan. Ekintza-plana 4 ildo estrategikoren eta 13 proiekturen bidez zehazten da, datorren 4 urteetan egitekoak. Planean genero-ikuspegia barneratzeko JPEn jasotzen diren jarraibide berdinak jasotzen dira.

Aipatutako plan guztietan horietako ildo estrategikoetako proiektuak eta ekintzak nola txertatzen diren jarraitzen da. **Desgaitasuna duten Pertsoneri Justiziarako Sarbidea Errazteko Planaren (2023-2027)** kasuan, Justizia Zuzendaritzak du hura txertatzeko eta haren jarraipena egiteko ardura.

<sup>35</sup> [https://www.justizia.eus/contenidos/documentacion/2022\\_2028\\_inter\\_pej/es\\_def/adjuntos/20230124-cae-plan-estrategico-justicia-2022-2028.pdf](https://www.justizia.eus/contenidos/documentacion/2022_2028_inter_pej/es_def/adjuntos/20230124-cae-plan-estrategico-justicia-2022-2028.pdf)

<sup>36</sup> [https://www.justizia.eus/contenidos/informacion/jus\\_justicia\\_electronica/es\\_def/adjuntos/Plan\\_Justicia\\_Digital\\_2021-2026\\_RE.pdf](https://www.justizia.eus/contenidos/informacion/jus_justicia_electronica/es_def/adjuntos/Plan_Justicia_Digital_2021-2026_RE.pdf)

<sup>37</sup> [https://www.justizia.eus/contenidos/informacion/jus\\_plan\\_justi\\_21\\_26/es\\_def/adjuntos/Plan-de-acceso-a-la-justicia-para-las-personas-con-discapacidad.pdf](https://www.justizia.eus/contenidos/informacion/jus_plan_justi_21_26/es_def/adjuntos/Plan-de-acceso-a-la-justicia-para-las-personas-con-discapacidad.pdf)

Aurreko legegintzaldian, eta Justiziako Plan Estrategikoaren ildo estrategikoak egoitza jasangarrietan garatzearen barruan, prozedura horiek beregain hartzen dituzten **Emakumearen aurkako Indarkeriako Epaitegien eta Epaitegi Mistoen egokitzapena** bultzatu da, justizia-zerbitzua behar bezala ematea, eta biktimak eta horien ardurapeko adin txikikoak babesteko eta haien intimitatea eta erosotasuna bermatzeko espazioak eta ekipamenduak izan ditzaten. Horrela, eraberritzeko, hornitzeko eta altzariak ipintzeko jarduketak gauzatu dira Euskadiko emakumearen aurkako indarkeriako 15 epaitegitan, **Emakumearen aurkako Indarkeriako Espazioetako Premien Estandarrak** betetze aldera. Estandar horiek 2020an garatu zituen agintariz eta gaian adituak diren teknika osatutako Lantalde espezifikoak.

Ikuspegi horretatik, Zuzendaritzak **espazio aldetiko premia berriak eta espazioak hornitzeko kudeaketak** aztertzen ditu egungo plangintzaren arabera (Desgaitasuna duten Pertsonen Justiziarako Sarbidea Errazteko Planaren (2023-2027), Egoitzak Antolamendu Eraginkortasunari buruzko Legearen eredu berrira egokitzeko plana, Energia Jarduketarako Plan Espezifiko). Gainera, eraikuntza judizialeko segurtasun aktibo eta pasiboko instalazioetan esku hartu da.

Jarraian, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzaren jardute-eremuekin lotutako zenbait erronka azaltzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiarekin duten lotura adieraziz.

HELBURU ESTRATEGIKOA	LERROA	ERRONKAK
<b>I.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA</b>	<b>1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Zuzendaritzatik koordinatzen diren planak eta strategiak berrikustea, eta bere helburuetan genero-ikuspegia gaineratzen dela bermatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Genero-ikuspegia txertatzea Justiziako Plan Estrategikoaren helburuetan eta neurketa-adierazleetan.</li> <li>- Genero-ikuspegia txertatzea Justizia Digitalaren Plana (2021-2026) ebaluatzean.</li> <li>- Genero-ikuspegia txertatzea Desgaitasuna duten Pertsonen Justiziarako Sarbidea Errazteko Plana (2023-2027) ebaluatzean.</li> <li>- Genero-ikuspegia txertatzea Egoitza Judizial Jasangarrien Plana (2022-2030) ebaluatzean.</li> </ul> </li> <li>➤ Berdintasunerako Unitatearekin ohiko lankidetzak sustatzea planen inguruan aholkatu eta araudia prestatzeko.</li> </ul>
<b>I.2.- ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA</b>	<b>5. ILDOA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Kontratuak egitean (azpiegiturakoak eta baliabide digitalekoak) genero-ikuspegia eta berdintasun-klausulak gaineratzea.</li> </ul>
<b>II.6.- EMAKUMEEK BEREN ESKUBIDEAK BENETAN ERABILTZEA BERMATZEA</b>	<b>14. LERROA EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ERABILERA INTESEKSIONALITATEAREN IKUSPEGIA GAINERATUZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Desgaitasuna duten Pertsonen Justiziarako Sarbidea Errazteko Plana (2023-2027) txertatzea, sekzio arteko ikuspegia ere gaineratuz.</li> <li>➤ Justiziaren digitalizazioa garatzea oso kontuan izanik pertsona desgaituek justiziara iristeko dituzten zailtasunak eta irisgarritasun horretan desberdintzak sortzen dituzten beste zenbait ardatz (arrakala digitala, hizkuntza, baliabideak...).</li> </ul>
<b>IV.11. - EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA BULTZATZEA</b>	<b>25. ILDOA. IKERKETA ETA PREBENTZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Justiziaren urteko txostena Zenbakitan dokumentuan sexuaren arabera banakatuta jasotzen diren datu-kopurua pixkanaka areagotzea beste Zuzendaritza batzuekin lankidetzan (datu horietako asko Zuzendaritza horietako zerbitzuen memorietatik lortzen dira).</li> </ul>
	<b>27. ILDOA. TREBAKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Zuzendaritzako langileek genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren aurkako prestakuntzan parte har dezatela bermatzea.</li> </ul>
<b>IV.12.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ERANTZUNA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK ETA HAIEN AHALDUNTZEA ESKU-HARTZEAREN ERDIAN IPINIZ EMATEN DELA BERMATZEA</b>	<b>29. ILDOA. LAGUNTZA INTEGRALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Epaitegietan azpiegituren inguruko edozein aldatetetan edo azpiegitura horien sorreran emakumeen eta adin txikikoen eskubideak behar bezala erabiltzea bermatzen dela berrikustea, indarkeria matxistaren biktimen babesa bereziki bermatuz, eta beti pertsona desgaituen dituzten irisgarritasun-premiak aintzat hartuz.</li> <li>➤ Emakumeek justizia digitalaren baliabideak behar bezala ezagutzen dituztela bermatzea.</li> </ul>

## 4.2.6. Zerbitzuen Zuzendaritzari lotutako esku-hartzea

### Diagnostiko orokorra eta erronkak, Zerbitzu Zuzendaritzari dagokionez

Zerbitzu Zuzendaritzaren egitekoak dira langileen arloa, aurrekontuen kudeaketa eta kontrola, kontratazioa eta hizkuntza-normalizazioa, bai eta oro har sailari babesa ematea ere (estatistika-organoa, informatika, genero-berdintasuna, etab.). Halaber, saileko aholkularitza juridikoko zeregina betetzen du, eta haren eskumenekoak diren gaien inguruko arauak garatzeko ardura du. Zuzendaritza horrek izapidetzen ditu xedapen orokorrei buruzko espedienteak, eta berdintasunaren printzipioa araudian txertatzeko egiten da lan.

Aurreko legegintzaldian Zerbitzu Zuzendaritzak oraingo legegintzaldian bi sail ezberdinetan (Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailean eta Justizia eta Giza Eskubideen Sailean) garatzen den edukia jorratu du. Gobernu Onaren atalean dagoeneko eskaini den informazio kuantitatiboa ez errepikatzeke, atal honetan Zerbitzu Zuzendaritzaren zeregin nagusien laburpen kualitatibo bat jasoko da eskusiboki.

Zerbitzu Zuzendaritzaren barnean, **Berdintasunerako Administrazio Unitatea** (BAU) da gainerako lan-eremuei berdintasunaren arloan garatzen duten jarduerari buruzko kontuak eskatzeaz arduratzen dena: klausula espezifikoko kontratazioan, prestakuntza, araudia genero-inpaktua ebaluatzeko txostenekin eta sexuaren arabera banakatutako beste zenbait datu jasotzen dituzten txostenekin. Horrenbestez, BAUren zeregina da **Gobernu Onaren** helburuekin zerikusia duten alderdi guztietan (4.2.1. atalean deskribatu direnak) genero-ikuspegia modu zeharkakoan lantzea, eta EAEko berdintasun-planekin (aurreko legegintzaldian Berdintasunerako VII. Plana eta, gaur egun, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategia) lotutako gainerako helburuak betetzea. Halaber, bere zeregina da berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren arloan Saileko gainerako zuzendaritzei laguntza eta aholkularitza ematea, eta Sailean berdintasunaren arloan garatzen diren jarduketan bilakaerari eta horiek betetzeari buruzko orientazioa ematea eta horren jarraipena egitea.

II. legegintzaldian desagertuta dagoen Sailak Berdintasunerako Administrazio Unitatearen (BAU) laguntza izan du, lanaldi osoan aritu den eta berdintasunaren arloan egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia duen teknikari batekin (plaza 2008an sortu zen). Plaza horren izena emakumeen eta gizonen berdintasun arloko teknikari da, eta Zerbitzu Zuzendaritzan mantendu da, izan ere, berdintasunaren arloko eskumenak Zuzendaritza horri esleitzen zaizkio, Eusko Jaurlaritzako sailetan, organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten administrazio unitateak arautzeko azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuan ezartzen den eran.

Horrenbestez, Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio XIII. legegintzaldirako Sailaren **plangintza estrategikoa** egitea berdintasunaren arloan, BAUren lanaren bidez eta zuzendaritza guztiekin elkarlanean; era berean, zuzendaritza horri dagokio Saileko **teknikariei eta politikariei berdintasunaren arloko aholkularitza tekniko eskaintzea**. XII. Legegintzaldian, Berdintasunerako Administrazio Unitateak Saileko teknikariei eta politikariei aholkularitza eta laguntza metodologikoa emateko dokumentuak prestatu ditu<sup>38</sup>. Dokumentu espezializatuaz gain, aholkularitzarako eta laguntza metodologikorako bilkurak egin dira Saileko politikariekin eta teknikariekin sektoreko gaietan.

<sup>38</sup> BAUren beste zeregin nagusi zenbait:

- Sailak, berdintasunaren plangintzari dagokionez, egin beharreko dokumentuak prestatzea.
- Saileko araudian eta genero-inpaktua neurtzeko egiteko ebaluazioetan genero-ikuspegia barneratzea.
- Dirulaguntzetan/kontratuetan berdintasunarekin lotutako klausulak barneratzeko proposamen teknikoak egitea.
- Sailak egindako jarduketan urteko emaitzen ebaluazioa egitea.
- Ebaluazio-eredua hobetzeko proposamenak aztertzea, urteroko erkaketak egitea eta Eusko Jaurlaritzako sailetan berdintasunaren arloko jardunari buruz Emakundek egiten dituen jarraipenerako txostenetan ekarpenak egitea.
- Aurreko legegintzaldian Sailaren mende zeuden enpresa publikoetara bideratzeko berdintasunaren arloko plangintzak proposatzea.
- Aholkularitza eskaintzea aurrekontu-programetako generoaren (PGEN) inguruko azterketen inprimakiak betetzean.

Gainera, Zuzendaritzari dagokio (Berdintasunerako Unitatearen bidez, gaiarekin lotutako gainerako ekintzetan bezala) Sailaren berdintasunerako **Saileko Talde Teknikoa koordinatzea** (STT). XII. Legegintzaldian Saileko Talde Teknikoa (STT) eratu zen, Zuzendaritzetan eta, hala badagokio, erakunde autonomoetan, berdintasunaren arloko planak eta programak betez ekintzak gauzatu behar dituzten pertsonak koordinatzeko xedez, modu horretan, informazioa eta laguntza jasotzea ahalbidetzeko berdintasun-politikak garatzeko prozesuaren fase bakoitzean.

Saila artean berdintasunaren arloan eskumena duten erakunde, organo eta unitateekin **elkarrizketa tekniko eta koordinazio** izatea funtsezko eginkizuna da berdintasunari begira. Desagertuta dagoen Sailaren Berdintasunerako Administrazio Unitateak, aurreko legegintzaldian, hainbat lantaldetan parte hartu du EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen arreta koordinatzeko Erakundearen arteko III. Akordioaren erakunde arteko Talde Teknikoaren, sail arteko Talde Teknikoaren eta Talde Teknikoaren barruan.

Azken legegintzaldian zehar, Zuzendaritza hori, gainera, **aurrekontuen** aurreproiektua prestatzen, kudeatzen eta haren gauzapeanaren jarraipena egiten aritu da, gastuaren azterketa genero-ikuspegitik bultzatzeko lankidetzazko-prozesu baten bidez (2021-2022-2023-2024). Aurrekontu-programak genero-ikuspegitik aztertzen dituzten formularioek urtez urte hobekuntzak sartu dituzten, eta jarduera-eremuaren edo barnean hartzen dituzten neurrien edota zerbitzuen eraginaren azterketa zehatzagoak egin dira. Hori guztiori, horiek eratzeko epeek, sailen egituretan eta antolatketan izaten diren aldaketek eta langileen joan-etorriek zeregina zaildu arren.

Nahiz eta Administrazioiko **giza baliabideen plangintza, zuzendaritza eta koordinazioa** eta bere araubide juridikoa eta ordainsari-erregimena Funtzio Publikoari dagozkion zereginak izan, Zerbitzu Zuzendaritzak, beste alderdi batzuen artean, prestakuntza, hornikuntza-prozeduretako espedienteen sustapena eta lan-egutegia betearazteko kontrola kudeatzen ditu. Halaber, Zuzendaritza horren zeregina da Sailak langile-beharrizanei buruz egiten dituen aurreikuspenak ebaluatzea, eta proposamenak egitea plantilla eratzeko eta lanpostu-zerrendak egiteko, Justizia Administrazioiko langileei eta espetxeetako langileei buruzkoak salbu. Azken legegintzaldian, lorpen nagusietako bat izan da , berdintasunaren arloan Justizia Administrazioiko Zuzendaritzara atxikitako beste plaza tekniko bat sortzea.

Gainera, Zerbitzu Zuzendaritza arduratzen da Saileko langileek berdintasunaren arloan **prestakuntza** izan dezaten bultzatzeaz, prestakuntza hori langileek garatzen duten jarduerara ahalik eta gehien egokitu dadin saiaturaz, lanpostu bakoitzari esleitutako lanketak hobetu betetze aldera. Berdintasunerako Legeak ezartzen du euskal botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituztela haien langile guztiei emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloan derrigorrezko oinarritzko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra eskaintzeko, haien jardunean genero-ikuspegia benetan txertatzea ahalbidetuko duen jakintza praktikoa bermatzeko (18. artikulua). Arau orokor modura, Sailera atxikitako pertsonak urtean bi prestakuntza egin ditzakete gehienez. Haatik, Sailak **ekintza positiboko neurri bat** ezarri du, zeinaren arabera IVApek, Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako Sailek antolatutako **berdintasunaren arloko ikastaroak zenbaketa horretatik salbuetsita geratzen baitira**. Neurri hori finkatuta, Saileko langileek arlo horretan prestakuntza sakondu ahal izan dute, beste prestakuntza batzuei muzin egin gabe.

Halaber, Zuzendaritzari dagokio, BAUren bidez, **berdintasunaren arloan prestakuntza antolatzea eta eskaintzea**, Saileko teknikariei eta politikariei zuzenduta. Plan honetako Gobernu Onari buruzko atalean adierazten zen eran, 2020an Berdintasunerako Administrazio Unitateak berdintasunaren arloko prestakuntza-premiei buruzko diagnostia egin zuen Sailean, eta 2021ean lau urtera begirako prestakuntza-plan bat hedatu zuen, osorik gauzatu ez zena, egituretan izandako aldaketan eta antolamendu aldetik izan ziren zailtasunen ondorioz. Hala eta guztiz ere, Sailaren barnean zenbait prestakuntza antolatu dira 2021., 2022. eta 2023. urteetan, Berdintasunerako Administrazio Unitateak bultzatuta. Azken legegintzaldian berdintasunaren arloko Saileko Talde Teknikorako izendatutako pertsonak arlo horretan gaitzeko premia azpimarratu da, Zuzendaritzek beren langileek prestakuntza jasotzea bermatzeko duten konpromisoa uneoro oroitaraziz. Horri dagokionez, hauteman den eragozpen nagusietako bat da, Zuzendaritzak prestakuntza horiek ahalbidetzeko borondatea izan arren, bertako langileak aldi baterakoak izaten direla, eta lan-karga gero eta handiagoa dela eta sailak berregituratu egin direla kontuan izanda, parte-hartzea ez dela nahi bezain handia izan.

2030 Estrategiak kontratazio arloan duen helburuetako bat da eragin positiboko berdintasun-klausulak barne hartzen dituzten **kontratuen, dirulaguntzen eta hitzarmenen** portzentajea handitzea, diskriminazio ugariri aurre egin behar izaten dieten emakumeen egoera aintzat hartuz, eta hori betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak ezarriz (Gobernu Onaren 2.6. neurria). Zerbitzu Zuzendaritza da **kontratu** txikietako espedienteen berri eman eta horiek izapidetzeko ardura duena, eta bere eskumenekoak diren kontratuen kudeaketa egiten du Kontratazio Batzorde Nagusiaren aurrean. Aurreko legegintzaldian, desagertuta dagoen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak **berdintasunaren arloko zenbait klausula gaineratu zituen kontratuetan** sistematikoki, eta urtero, Sailak formalizatzen dituen kontratuetan gaineratzen diren berdintasunaren arloko klausula-kopuruari eta horien tipologiari buruzko informazioa helarazi dio BAUK Emakunderi (ikus Gobernu Onaren atala, 8. taula). Gainera, kontratazio arloko langileek zein aholkularitza juridikoko langileek parte hartu dute administrazio orokorrerako irizpide orokorrak finkatzeko Ogasunak bultzatutako prestakuntza-prozesuan, kontratuetan eta dirulaguntzetan klausulak gaineratzeko xedez. Halaber, kontratuetan berdintasun-klausulak kontratua egiten duen Zuzendaritzak gaineratu behar dituen arren, BAUK parte hartu du Emakundek arlo horretan eskainitako kontratazioari buruzko prestakuntza espezifikoa (2024), arlo horretan eta hitzarmen zein dirulaguntzei buruz gainerako zuzendaritzak aholkatu ahal izateko.

Azkenik, aipatu behar da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak sexuaren aldagaia sistematikoki gaineratu duela sailaren **estatistikak ustiatu eta interpretatzeko orduan**; hala ere, adierazten da, sexuaren aldagaia eta askotariko desberdintasun-egoerak (hala nola adina, errenta, jatorria, desgaitasuna) eragiten dituzten beste aldagai batzuk gurutzatzeari dagokionez, informazioaren ustiapena eta interpretazioa garrantzitsua denean egin dela soilik, betiere dimentsio orokorra duten estatistika-eragiketak aurkezteko txosten orokorren diseinuaren mugen barruan.

Atal honetan Zerbitzu Zuzendaritzarekin lotuta berdintasun arloan hautemandako erronkak ez errepikatzearen alde egin da, horiek Gobernu Onaren atalean dagoeneko islatuta geratu direla ulertuta.

## 4.2.7. Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzari lotutako eskuhartzea

### Diagnostiko orokorra eta erronkak, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzari dagokionez

Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzari dagokio **Sailak hedabideekin duen harremana kudeatu eta herritarrek jakinaraztea zer jarduera garatu dituzten** Saileko Zuzendaritzek eta horietako erakunde autonomoek. Horrek berekin dakar Saileko eremu ezberdinen artean **komunikazio- eta gardentasun-**premiak koordinatzea, irudi koherente eta osagarria eskaintze aldera. Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza, gainera, Saileko titularraren den **Sailburua zuzenean laguntzeko** organoa da, eta **Sailak Eusko Legebiltzarrekin dituen harremanekin** arduratzen da, legebiltzarrean egiten diren galderei erantzunez, dokumentazio-eskaerei erantzunez, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko galderei erantzunez, Batzordeak eskatuta edo bera kabuz agerraldiak eginez, Batzordean ahoz erantzuteko ihardespenez eta galderei erantzunez, beste erakunde publiko batzuetatik (adibidez, Arartekotik) datozen kontsultei Siletako Zuzendaritzaren erantzunak emanez (dokumentatuta), etab. Zuzendaritza hori berria da Justizia eta Giza Eskubideen Sailean, izan ere, aurreko legegintzaldian Kabinete Zuzendaritza nahiz Komunikazio Zuzendaritza independenteak ziren.

Komunikazio arloan, nabarmendu behar da Saileko web-atariko edukiak eguneratu direla, eta urtero **Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren arloan babesten dituen kanpainak** bultzatu direla: besteak beste, Emakumeen Nazioarteko Eguna (martxoak 8); Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna (azaroak 25); Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko eguna (maiatzak 17); LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna (ekainak 28).

Gobernu Onaren atalean adierazten zen eran, aurreko legegintzaldian berdintasunaren inguruko atal bat sortu zen desagertutako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren webgunean<sup>39</sup>, eta logotipo bat diseinatu zen atal hori errazago identifikatzeko. Webguneko atal horretan berdintasun arloko arau-esparrua, saileko planak eta programak, berdintasunaren arloko koordinazio-organismoak eta Sailak partzen hartzen duen lantaldeak eta lankidetzeta-taldeak zehazten dira. Halaber, gaiari buruz material eta informazio interesgarria jasotzen da. Sailak gainera erabilgarri ditu erakundearen webgunea eta Justiziako webgunea<sup>40</sup>, non, besteak beste, biktimei begirako zerbitzuei (BAZ, etab.) buruzko informazioa eta zerbitzuetako memoriak, sexuaren arabera banakatutako datuekin, jasotzen batira.

Aurreko legegintzaldian jasotako jarduketa esanguratsuenetako batzuk dira, gaur egun, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren barruan, zuzendaritzen eta zerbitzuen baitan geratu diren jarduketak. Haatik, aipagarri dira, aurreko legegintzaldiko jardunbide egokien adibide gisa:

- Satevi 900 840 111 (indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak artatzeko telefonoa) Zerbitzuaren inprimakiak prestatzea, indarkeria matxista pairatzen duten emakumeek erabilgarri dituzten baliabide guztiei buruzko informazio eguneratua jasotzen dutenak. Irakurterraza eta hizkuntza argia erabiliz. Hizkuntzak: gaztelania, euskara, portugaleria, frantsesa, errumaniera eta arabiera. Gizarte Zerbitzuetan, Ertzaintzan, udaltzaingoa, anbulatorioetan, farmazietan... banatu da.
- Indarkeria matxistaren biktimek artatzeko telefonoaren (900 840 111) kanpainarekin batera, kartelak inprimatu ziren telefono-tirekin, eta inprimakiak banatu ziren EAEko farmazia guztietan. Farmazia Elkargo Ofizialarekin akordio bat sinatu zen sendagaien txartelean SATEVI zerbitzuaren telefono-zenbakia agertu zedin.
- Eraberean Sarearen jarduerari buruzko 2023ko txostena argitaratu zuten.

<sup>39</sup> <https://www.euskadi.eus/berdintasunaempleo/web01-s2enple/es/>

<sup>40</sup> <https://www.justizia.eus/>

- “Ijito herria aitortu eta haiekin bizitzeko eta ijitoen aurkako jarreraren kontra borrokatzeko Euskadiko Adierazpen Instituzionala” argitaratu zuten.
- Zeuk Esan zerbitzuko materiala inprimatzea (inprimakiak, informazioak, kartelak, itsasgarriak, merchandisinga...), 116 111 telefono-zenbakia, hurrei eta nerabeei laguntzeko zerbitzua.
- Zerbitzuan aldizkari espezializatuak argitaratzen jarraitu du, baita desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela inprimatzen ere.

Azken legegintzaldian, Foru Aldundiek, hiru hiriburuetako udalek eta Eusko Jaurlaritzak akordio instituzional bat ere sinatu zuten, etorkizunean Zaintzen aldeko Herrialdeko Ituna erdiesteko, kontziliazioarekin lotura estua duena, eta horren harira, Kongresu bat antolatu zen, Kongresuko liburu bat argitaratu zen eta erdietsitako akordioak jasotzen dituen inprimaki bat prestatu zen (Emakunde, Elkarrizketa Zibileko Mahaia, etab.).

Halaber, desagertutako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko sailburuak berdintasunarekin lotuta Emakundek antolatutako hainbat ekitalditan parte hartu zuen.

Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzaren jardute-eremuekin lotutako zenbait erronka azaltzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiarekin duten lotura adieraziz.

HELBURU ESTRATEGIKOA	LERROA	ERRONKAK
I.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA	1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sailak egiten duen lana EAeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiarekin, Gobernu Programarekin, Berdintasun Legearekin eta Soldata Arrakalaren Estrategiarekin lerrotzen jarraitzea.</li> <li>➤ Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzaren eta Berdintasunerako Administrazio Unitatearen artean, barne-komunikaziorako estrategia bat eratzea, sail osoa politika instituzionalaren eta berdintasunaren arloko jarduketan inguruan sentsibilizatzeko eta arlo horiek hedatzeko.</li> </ul>
	3. ILDOA. BALIABIDE TEKNIKOAK ETA TREBAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Zuzendaritzak berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan duen prestakuntza sakontzea, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista aldizka eguneratzearekin batera.</li> </ul>
I.2.- ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA	5. ILDOA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Kontratazioan berdintasun-klausulak txertatuz, egiten diren komunikazio-guztien diseinuan eta hedapenean genero-ikuspegia sartu dadila bermatzea.</li> <li>➤ Sailaren atarian eta webgune espezifikoetan berdintasunaren arloan eguneratutako informazioa gaineratzea (araudia, gidak, ikerketak, etab.).</li> </ul>
I.3.-ERAKUNDEEN GOBERNANTZA-EREDUA ALDATZEA	7. ILDOA. PARTE-HARTZEA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sailean, oro har, egiten diren aurrerapenak erakusten dituzten jarraipen-adierazleak eta berdintasun arloan funtsezkoak diren informazioak jasotzea, herritarrei bideratutako komunikazio-kanaletan horiei kontuan izate aldera.</li> </ul>

## 4.2.8. Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritzarekin lotutako esku-hartzea

### Diagnostiko orokorra eta erronkak, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritzari dagokionez

Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren Sailburuordetzak Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritza hartzen du beregain. Memoriarekin, biktimekin, bakearekin, bizikidetzarekin, giza eskubideekin eta kooperazioarekin lotutako politika publiko guztiei batasun zentzua emateko xedez sortu zen.

Politika horri dagokio Giza Eskubideak bultzatzeko eta bizikidetzak-kultura sustatzeko politika publikoa bultzatzea, biktimekiko elkartasuna bultzatzeko eta arlo publikoan zein sozialean haien aitortpena egiteko Eusko Jaurlaritzaren politikak koordinatzea, eta pertsonen guztien tratu-berdintasuna eta diskriminazioaren aurkako borroka bultzatzeko politikak abiaraztea.

Biktimekiko elkartasunari, aitortpenari eta arretari dagokienez, Zuzendaritza hori dagokio **Terrorismoaren Biktimen Aitortpena eta Erreparazioa Egiteko** ekainaren 19ko 4/2008 Legean aurreikusitako osoko laguntza-sistema koordinatzea, biktimen eskubideak bultzatzeko ekimenak bultzatzea eta, azkenik, gizarte zibileko erakundeekin (biktimak laguntzeko sortuak) eta arloan eskumena duten beste erakunde publiko batzuekin lotuta dauden eta haiekin elkarlanean garatzen diren zeregin batzuk burutzea.

Zuzendaritza arduratzen da indarreko araudian (4/2008 Legea eta hura garatzeko Erregelamendua azaroaren 9ko 290/2020 Dekretuan) jasotzen den edozein laguntza motako **espedienteak izapidetzeaz**. Horien artean, <sup>41</sup> etxebizitzarako laguntzak, eta terrorismoaren biktimak aztertu eta laguntza psikologikoa emateko laguntzak nabarmendu behar dira. Bere aplikazio-eremuan sartzen dira ekintza terroristetako biktima zuzenentzat eta haien familiakoentzat edo hurbilekoentzat aitortutako eskubideak eta prestazioak, kasu bakoitzerako adierazten den moduan. 290/2010 Dekretuak biktimei babes eta laguntza integrala emateko aurreikusten den sisteman ekintza terroristen kalteak erreparatzeko prestazioak eta neurriak arautzen dira, eta lehengoratu daitezkeen guztia erabat lehengoratuko dela eta biktimei beren bizitza sozial normalizatua berreskuratzeko beharrezkoak diren alderdi guztietan laguntza integrala emango dela ziurtatu nahi da.

Aurreko legegintzaldian 194 arreta egin dira guztira. Halaber, Zuzendaritza **biktima horiek aitortzeko eta haiekiko elkartasuna erakusteko topaketak, jardunaldiak edo ekitaldiak kudeatzeaz edo antolatzeaz** arduratzen da, eta egon daitezkeen beste ekitaldi batzuetan parte hartzen du.

Urtea	Terrorismoaren biktima aitortuak		
	Arretak	Emakumeak	Gizonak
2021	44	22	22
2022	64	21	43
2023	50	15	35
2024	36	18	18

19. taula: Terrorismoaren biktimei buruzko aurreko legegintzaldiko datuak.

<sup>41</sup> Dekretuan jarduketa hauetara bideratutako prestazioak eta neurriak arautzen dira: kalte materialak eragin izanaren ordaina ematea, laguntza juridikoa, osasun eta psikologiaren esparrua, irakaskuntzaren esparrua (akademia-zerbitzuen prezioak ordaintzeko ikasketa-laguntzak, espedientearen lekualdaketa, beste gastu akademiko batzuk ordaintzea, laguntza psikopedagogikoa), enplegu-politika aktiboen esparrua (enplegurako orientazioa eta prestakuntza), etxebizitzaren esparrua (etxebizitza egokitzeko gastuak, babes ofizialeko etxebizitzak, etxebizitza libreak, behin-behineko etxebizitzaren alokairu-gastuak), etab.

Zuzendaritzak, era berean, **Justizia errestitatiboko programa bat garatzen du<sup>42</sup> Euskadiko Birgizarteratze Institutuarekin (Irse-ebi)**. Programa horren metodologiaren oinarria da ETAre indarkeria pairatu zutenen eta, Zaballa, Martutene eta Basauriko espetxetan kondena betez, erakunde horretako militante izan zirenen arteko gogoeta-elkarrizketa. Programan erregimen arruntean, erregimen irekian edo erdi-askatasun erregimenean sailkatutako 80 presio baino gehiagok eta 15 biktima baino gehiagok parte hartu dute.

Zuzendaritzari dagokio, gainera, 1978 eta 1999 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran **giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari** buruzko uztailaren 28ko 12/2016 Legean xedatzen dena garatzea eta txertatzea. Gobernutik kanpoko **adituen balorazioarako Batzordeak** Giza Eskubideen urraketen biktimak aitortzeko<sup>43</sup> eskaerak baloratzen ditu, arrazoi politikoen ondoriozko indarkeriaren testuinguruan. Batzorde hau arduratzen da aurkeztutako eskaerak baloratzeaz eta, lege honen babespean, honako hauek proposatzeaz: eskaerak ez onartzea; hala dagokionean, biktima izaera aitortzea eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak ipintzea; edo aurkeztutako eskaerak ezezte. Zuzendaritzak, gainera, **Aitortzeko eta erreparatzeko programa** bat du erabilgarri, **Egiari zor<sup>44</sup> fundazioak** bultzatua. Bertan Giza Eskubideen urraketen biktimen akonpainamendua egiten da. Halaber, Zuzendaritza **biktima horiek aitortzeko eta haiekiko elkartasuna erakusteko topaketak, jardunaldiak edo ekitaldiak kudeatzeaz edo antolatzeaz arduratzen da**, eta egon daitezkeen beste ekitaldi batzuetan parte hartzen du.

Urtea (ekainetik ekainera)	Giza Eskubideen urraketen biktimak <sup>45</sup>						
	Ebatzitako espedienteak	Ezetsiak	Atzera botatakoak	Ez onartuak	Onetsiak	Emakumeak	Gizonak
2021-2022	573	2	2	523	46	6	40
2022-2023	131	64	1	-	66	11	55
2023-2024	96	1	2	-	93	20	73
2024-2025	87	33	10	-	5	1	4

20. taula: Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimen espedientei buruzko aurreko legegintzaldiko datuak.

Ateratako datuetan ikus daitezkeen eran, motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimak zein terrorismoko biktimak zenbatzean **errekonozimendu horretan sartzen diren gizonen portzentajea emakumeena baino handiagoa da**. Dena den, terrorismoko biktimen kasuan, emakumeen portzentajea eta gizonena, zenbaitetan, berdina da. Planteatu daiteke horrek zerikusia ote duen, funtsean, araudiak terrorismoko biktima modura edo giza eskubideen urraketen biktima modura aitortzen duenarekin eta, aurrerantzean, datuak sexuaren arabera banakatuta aztertu behar diren hala ezetsitako espedienteetan, nola onartu gabekoetan, biktimizazioaren historia motan zein laguntzan eta erreparazioan sartzeko egon daitezkeen aldeak aztertze aldera.

Bestalde, biktima hezitzaileen lekukotasunei buruzko **Adi-adian** programaren bidez lekukotzak, giza eskubideen arloko hezkuntza sustatzeko eta bizikidetzarako hezkuntzan memoriaren dimentsio etikoa sartzeko, hezkuntzari begira izan dezakeen ahalmenean sakondu nahi da. Proiektu hau bereziki pentsatuta dago DBHko laugarren mailako eta Batxilergoko ikasleekin lantzeko, eta unibertsitate-mailan ere hedatu da. Berriki programa hau ebaluatu egin da, hobekuntzak gaineratze aldera. Halaber, **Zirkuluak** daude, biktimekin elkartzeari begiratzen diona.

Zuzendaritzari dagokio, era berean, Giza Eskubideak eta Bakearen Kultura defendatzeko eta sustatzeko ekintzak eta kanpainak garatzea, sentsibilizaziorako eta gaikuntzarako ildo estrategikoen bidez. Halaber, bere zeregina da tokiko,

<sup>42</sup> Euskadiko Justizia Errestitatiboko estrategia (2022-2025).

<sup>43</sup> 12/2016 legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran Giza Eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko.

<sup>44</sup> <https://egiarzor.eus>

<sup>45</sup> Zenbaki hauek Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aitortza eta erreparazioa emateko Balorazio Batzordearen urteko txostenetatik atera dira.

probintziako, erkidegoko, Estatuko eta nazioarteko elkarte, fundazio, gizarte-mugimendu eta erakunde publikoekin Giza Eskubideen sustapenerako eta defentsarako lankidetzaren harremanak indartzea.

**Elkarrekin Bonu Programaren**<sup>46</sup> bidez dirulaguntzak jasotzen dituzte bizikidetzako eta gizarte elkartzeko kultura berria sustatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera bultzatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek (horiek dira proiektuen erakundea hartzaileak): hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea. Horrela, ikastetxeetarako, udaletxeetako, proiektuen garapena garatzen da tokiko bizikidetzaren sustapenaren esparruan, eta baita herritarren parte-hartzearekin interesa duten beste erakunde batzuentzat ere.

Giza Eskubideen arloak Nazio Batuen sisteman jasotzen den guztia hartzen du barne, **emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako** borroka barne. Ildo horretatik, zuzendaritzak arlo horretan esku-hartzeko ildo espezifiko zuzenik ez badu ere, bere jarduketara askotan printzipio horiek lantzen ditu zeharka.

Adibidez, Elkarrekin Bonuen Programa arautzeko Dekretuaren oinarrietan ezartzen da ezingo dutela laguntzen deialdira jo sexu arrazoen ondoriozko diskriminazioagatik zigortutako pertsona juridikoek. Gainera, erakundea sexu arrazoen ondoriozko diskriminazioagatik administrazio-zigorra edo zehapena ez dela betetzen ari, eta ez dagoela zigortuta, egiaztatzeko adierazpen arduratsua eskatzen da. Gainera, eskatzen da erakundeak berdintasunaren arloan prestakuntza edota ibilbidea duten pertsonak dituen adieraztea, eta erakunde onuradunei hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko eskatzen zaie, emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexistak saihestuz.

Zuzendaritzatik bakearen, Giza Eskubideen eta bizikidetzaren inguruan diseinatzeko eta gauzatzen diren gizarte-sentsibilizazioko kanpaina edo ekintza hauek aipatu behar dira:

- **Giza Eskubideetako «René Cassin» sari-banaketa**, irabazi asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek, publikoek zein pribatuek, Giza Eskubideen esparruan, horiek sustatzeko, defendatzeko eta hedatzeko hartutako konpromisoa erakusten duten jarduerara nabarmenak aitortzekoa.
- Bizikidetzaren aldeko Bilboko **Zinexit** zinemako urteroko erakusketa. Zinema eta Giza Eskubideak uztartzen dituen erakusketa horretan giza eskubideen esparruan eztabaida eta gogoeta kolektiboak sortzeko berariaz hautatutako filmak ikusten dira.
- Donostiako **Giza Eskubideetako Zinemaldiak** gizateriaren erronka handien gaineko ikuspegi kritiko, anitz eta konprometituta eskaintzen du eta, irudiaren eta eztabaidaren bidez, horiek lotutako balioak hedatzen ditu.
- Hainbat kontratu daude irekita, esate baterako, 12/2016 legean jasotzen diren giza eskubideen **urraletaren biktimen lekukotzaren grabazioa**, Giza Eskubideen alorrean **proiektu dokumental edota sentsibilizaziokoekin** kolaboratu nahi duena.

Zuzendaritzak, era berean, herritarren partaidetzarako ekimenak bultzatzen ditu gizarte-erakundeekin eta instituzioekin lankidetzan. Horri dagokionez, lankidetzaren akordioak daude abian Elkarrekin Foruarekin, DEMOSPAZ elkartearekin, Bakearen Kultura Fundazioarekin, AIPAZ elkartearekin, etab. Orobat, Deustuko Unibertsitatearekin akordio bat dago martxan Euskadin Memoriari, Heziketa Historikoari eta Bakearen Eraikuntzari buruzko Ikaskuntza Komunitateak garatzeko. Bizikidetzaren hobetzen laguntzeko Euskadiko hiru unibertsitateetan partekatutako lan-programa bat da.

Gazteen artean Giza Eskubideak eta Bakearen Kultura defendatu eta sustatzeko xedez, Zuzendaritzak lankidetzan da **Euskadiko Gazte Kontseiluarekin (EGK)**.

Bizikidetzaren eta Bakearen kultura sustatzeko **Laguntzen Deialdiak** egiteko bi programa kudeatzen dira:

<sup>46</sup> Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duen ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuak arautua.

- Bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko proiektuetan **udalerrriak eta tokiko erakundeak** laguntzeko deialdien programa, 57/2018 Dekretuak arautua<sup>47</sup>. Laguntza horiek hiru alderditan egituratzen dira: bizikidetzari eta Giza Eskubideak; biktimak eta gizartea; eta aniztasuna eta elkartasuna.
- Bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko proiektuetan irabazi asmorik gabeko **erakundeei eta entitateei** zuzendutako laguntzen deialdiarako programa, Dekretu berak arautua.

Aurreko legegintzaldian **Udaberri Plana (2021-2024)** garatu zen. Planaren helburuen artean sarritan aipatzen da helburuak betetzeko genero-ikuspegia eta sekzio arteko ikuspegia gaineratzeko premia. Plana ETA erakundearen terrorismo-zikloaren eta beste indarkeria-adierazpen batzuen amaieratik aurrera sortzen da, eta aitortutako eskubideak bultzatzea du xede. Planari jarraipena eman zaio, ebaluatu eta hurrengo plana prestatu arte. Gainera, luzapen horretan Aniztasunari buruzko atala Zuzendaritza honen agendatik kendu da; izan ere, egitura berrian hori Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailari dagokio. Ondoren, hurrengo plana eratuko da, aurrekoan aurreratu denari jarraipena emango diona.

Zuzendaritzak **hainbat ekintza burutzen ditu UNetxea elkartearekin eta Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordearekin (CIDH) elkarlanean** gazteak prestatzeko, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisioaren Bulegoak egiteko beken bidez. Helburua Nazio Batuen funtzionamendua ezagutaraztea eta, are, ekarpena aurkezteko bide bat ahalbidetzea da.

Gainera, **Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi baterako Babesteko Programa** gidatzen du Zehar elkarteak<sup>48</sup>. Elkartasun politikoko tresna bat da, eta bere helburua da jaioterrian gauzatzen duten jarduera dela-eta beren bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan duten giza eskubideen defendatzaileak babestea, Euskadin sei hilabeterako hartuta. Hau da Euskal Autonomia Erkidegoko egonaldian egindako lanaren helburua: pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionalki eta politikoki babesteko nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea. Era berean, lan horrek giza eskubideen defentsan diharduten erakundeek pairatzen duten mehatxu-egoeraren inguruan sentsibilizatzeko, eta Euskadiko herritarren eta erakundeen aurrean agerian uzteko eta salatzeo aukera ematen du, arlo horretan aldarrikapenak egiteko aukerarekin batera. Beren jaioterrira itzultzean, euskal ordezkariak batek bisita egiten du herrialdera, beren egoera pertsonal eta komunitarioaren jarraipena egiteko, beren babes- eta segurtasun-sarea indartzeko, eta euskal gobernuaren, legebiltzarraren eta erakundeen babesak erakusteko.

Azken legegintzaldian **emakume liderrak** ikusarazi dira bereziki, eta programan jatorri eta gizarte-egoera ezberdineko 9 emakumek eta 2 gizonek parte hartu dute 2021-2024 bitartean.

Jarraian, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritzaren jardute-eremuekin lotutako zenbait erronka azaltzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiarekin duten lotura adieraziz.

HELBURU ESTRATEGIKOA	LERROA	ERRONKAK
I.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA	1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA	➤ Genero-ikuspegia zeharka lantzea Zuzendaritzaren planen eta programen garapenean (Udalerrri).
	2. ILDOA. ANTOLAKETA-BALIABIDEAK: BERDINTASUNERAKO UNITATEAK	➤ Berdintasunerako Administrazio Unitatearekin ohiko lankidetzari sustatzea estrategien, planen eta programen sorkuntzari begira, eta araua eratzean genero-ikuspegia txertatzeko.

<sup>47</sup> Apirilaren 24ko 57/2018 Dekretua, bizikidetzaren eta Giza Eskubideen arloko proiektuetarako dirulaguntzak arautzekoa (aldaketa-fasean)

<sup>48</sup> <https://zehar.eus>

<p><b>I.2.- ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA</b></p>	<p>5. ILDOA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek lantzen duten edukiarekin emakumeak, beren premia espezifikoak eta eskubideen urraketaren testuinguruan bizi duten egoera ikusaraztea bermatzea.</li> <li>➤ Bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko proiektuetarako, udalerrietara eta tokiko erakundeetara bideratutako dirulaguntzen edukia genero-ikuspegiarekin aztertzea, eta bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko proiektuetarako, irabazi asmorik gabeko erakundeetara eta entitateetara bideratutako laguntzak aztertzea.</li> </ul>
<p><b>II-5. EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA ESPARRU GUZTIETAN EGITEN DITUZTEN EKARPENAK AITORTZEA ETA BALIOESTEA</b></p>	<p>11. ILDOA. PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Iraganari buruzko gogoeta kritikoa garatzeko ekintzak burutzea, emakumeen memoria historikoa erdian jarriz, eta eskubideen urraketaren testuingurua edo aldeak genero-ikuspegi batetik ikusaraziz.</li> <li>➤ Emakumeek pairatutako eskubideen urraketaren testuinguruaren berri emateko txosten espezifikoak edo, genero-ikuspegia gaineratuta, emakumeen kolektiboa, beren bizipenak edota beren premia espezifikoak ikusarazteko txostenak egitea.</li> </ul>
	<p>12. ILDOA. LIDERGO FEMINISTAK ETA EMAKUMEEN ARTEKO ALIANTZAK BERDINTASUNARI BEGIRA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Giza eskubideak (bereziki, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin eta sexu-askatasunarekin lotutako eskubideak) defendatzen dituzten emakumeen ekarpenak balioan jarri eta zabaltzea (ahal den heinean).</li> </ul>
<p><b>II.6.- EMAKUMEEK BEREN ESKUBIDEAK BENETAN ERABILTZEA BERMATZEA</b></p>	<p>14. LERROA EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ERABILERA INTESEKZIONALITATEAREN IKUSPEGIA GAINERATUZ</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Giza eskubideen arloan lider diren emakumeen lekukotzei eta lorpenei beste desberdintza-ardatz batzuetara (komunitate indigenetako emakumeak, txirotasun-egoeran edo gizarte-bazterkerian dauden emakumeak, guda-eremuetatik datozen emakumeak, etab.) hurbiltzeko aukera ematen duen sekzio arteko ikuspegi batetik erreparatzea.</li> </ul>
<p><b>III.8. - ERAKUNDEEN KULTURAN ETA PRAKTIKAN BERDINTASUNA GAUZATZEA ETA FINKATZEA</b></p>	<p>18. ILDOA. KULTURA, KIROLA ETA HEDABIDEAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Emakumeek Giza Eskubideen aldeko borrokan erdietsitako lorpenak ikusarazten saiatzea, «René Cassin» sariaren bidez.</li> <li>➤ Emakumeek pairatu duten giza eskubideen urraketaren testuinguruak ikusaraztea, Zinexit erakusketaren eta Giza Eskubideen Zinemaldiaren (kartelak, zuzendariak, genero-ikuspegia txertatzen duen programazioa, etab) bidez.</li> </ul>

## 4.2.9. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarekin (Gogora) lotutako esku-hartzea

### Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren (Gogora) diagnostiko orokorra eta erronkak

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (aurrerantzean, Gogora) organismo autonomo administratiboa Justizia eta Giza Eskubideen Sailari atxikita dago, Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren Sailburuordetzaren bidez<sup>49</sup>, institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2014 Legean ezarritakoaren arabera. Gogorak nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa du, bete behar duen lan administratiboa deszentralizazio-erregimenean gauzatzeko.

Organismo autonomo honi dagokio honako hauetan datzan politika publikoa garatzeari buruzko administrazio-jarduna: **giza eskubideak bermatu, bultzatu eta garatzea, memoria sustatzea, eta bizikidetzaren demokratikoa garatzea**. Gogora institutuaren zeregin nagusia memoria kritikoa mantendu eta transmititzea da, helburu dibulgaziozko eta pedagogikoekin. Horretarako, memoriaren eta Giza Eskubideen sustapenean lan egiten duten beste gizarte-instituzio eta -erakunde batzuekiko kooperazioa eta lankidetzaren bultzatzen du, eta baita hezkuntzaren arloarekin ere, gizartearekin ahalik eta harreman gehien izateko aukera bermatuz.

2023an onartu zen **9/2023 Legea, irailaren 28koa, Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoari buruzkoa**<sup>50</sup>. Lege horretako mandatuak hertsiki lotuta daude Gogora institutuaren zereginekin eta jardunarekin. Lege honen xedea da Euskadiko memoria historikorako eta demokratikorako politika publikoak arautzea, biktimen erreparazio integrala sustatzeko, eta arrazoi politiko, sindikal edo ideologikoengatik edo beren sinesmenengatik, sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik, edo bestelako arrazoi diskriminatzaile eta bidegabeengatik, Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen memoria pertsonala eta kolektiboa, familiarra eta soziala, berreskuratzea sustatzeko. Horrez gain, balio eta printzipio demokratikoak bultzatu nahi dira, barne hartzen duen denbora-tartean (Gerra Zibilean eta diktadura frankistan) izandako gertaeren eta inguruabarren ezagutza erraztuz.

Adierazi behar da Lege horren printzipioen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aipatzen dela, eta horretatik harago, genero-ikuspegia gaineratzearekin eta emakumeen errealitate espezifikoarekin lotutako aipamen ugari jasotzen direla. Horrela, bertan ezartzen denez, **beharrezkoa da genero-ikuspegitik ere berreskuratzea memoria historikoa**, testuinguruan kokatutako ikuspegi osoa izateko, emakumeek pairatu zuten indarkeria guztia aztertu eta erreparatu ahal izateko, giza eskubideen kultura inklusiboa eraikitzeko xedez. Gainera, azpimarratzen denez, bereziki garrantzitsua eta beharrezkoa da azaltzea memoria historikoa berreskuratzean genero-ikuspegia txertatu izanak eman duela bidea jakiteko gizonak eta emakumeak **indarkeria-mota desberdinen mende daudela gatazka- eta gatazka-osteko egoeretan** eta, indarkeria berdinen biktima izan arren ere, indarkeria horiek beren bizitzetan eragin desberdinak dituztela, gizartean betetzen dituzten rolagatik, une horretan nagusi den gizarte-ereduaren arabera. Horri gehitzen badizkiogu, gatazkaren aurretik, emakumeen eta gizonen artean zeuden botere-harremanak, desberdintza ezaugarri dutenak, egiaztatuta geratzen da, gatazka-egoeretan, emakumeen zaugarritasuna nabarmen handiagoa dela.

Bere artikuluetan, hartzaile diren pertsonen dagokienez, berariaz aipatzen dira Bigarren Errepublikan, beren askatasuna baliatzeagatik, edo besterik gabe, emakume izan eta beste biktima batzuekin zerikusia izateagatik, umiliazioa, indarkeria edo zigorra pairatu zuten emakumeak. Bestalde, **Euskadin Gerra Zibilean eta frankismoan (1936-1978 bitartean) giza eskubideen urraketa buruzko txostenaren sorrera aipatzen duen artikuluetan, txostena genero-ikuspegiari**

<sup>49</sup> 326/2024 DEKRETUA, azaroaren 5koa, Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

<sup>50</sup> [https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora\\_dokumentuak/es\\_def/Ley-de-Memoria-Historica-y-Democratica-de-Euskadi.pdf](https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora_dokumentuak/es_def/Ley-de-Memoria-Historica-y-Democratica-de-Euskadi.pdf)

**erreparatuz egin beharko dela zehazten da.** Modu berean jardun beharko da memoriaren historikoa edozelan dibulgatzean. 9/2023 Legean, gainera, emakumeen memoria historikoari buruzko artikulua espezifikoa jasotzen da<sup>51</sup>.

Esparru horretan garatu da Gogora institutuaren jarduna, aurreko legegintzaldiaren bigarren erdian bederen. 2023ko Legea berdintasunarekin lotutako bere mandatuei dagokienez esplizitua bada ere, duela gutxira arte indarrean egondako Gogora institutuaren **2021-2024 Jarduketa Planean** <sup>52</sup> ez zen emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko aipamenik agertzen, ez zen berdintasuna eta emakumeak ikusaraztea lortzeko helburu edo ekintza espezifikorik jasotzen, eta genero-ikuspegia ere ez zen aipatzen. Aurreko planaren ebaluazioan ere (indarrean den egungo Planera gaineratzen da) ez zen horren inguruko aipamenik egiten. Beraz, berdintasunaren arloan, erronka nagusietako bat zen Gogora institutuak alderdi horiek jasotzea 2025-2028 Jarduketa Plan berria eratzean. Azken plan horretan ez da genero-ikuspegia txertatzeari buruzko aipamenik zehatzik egiten, baina berdintasunarekin lotutako hainbat helburu jasotzen dira, eta horiek legegintzaldi berri honetan garatzea aurreikusten da.

Gogoraren dokumentazio-zentroa, **Gogora Liburutegia**, memoria demokratikoan espezializatutako zentroa da, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen (EIPS) baitakoa, eta liburutegiak eta artxibo-dokumentuak osatzen dute. Euskadin memoria historikoarekin eta demokratikoarekin lotutako gaiak gorde eta kontsultatzeko erreferentziazko espazioa da. Aukera eskaintzen du online kontsultak egiteko edo aretoan bertan kontsultatzeko. Liburutegien arteko mailegu-zerbitzua eskaintzen du, memorian demokratikoan espezializatutako katalogoa kontsultatu daiteke, terrorismoaren biktimen eta bidegabeko polizia-indarkeriaren ikus-entzunezko funtsa behatu daiteke, eta Euskadin Gerra Zibileko (1936-1945) heriotza-biktimen datu-basera sartzeko aukera ematen du. Diagnosi hau ezin zen unean ez dago daturik, gizonen prestatutakoekin alderatuz, emakumeek prestatutako materialen inguruko dokumentuen kopuruari buruz. Haatik, erakunde autonomiak bere dokumentazio-zentroan emakumeek ekoiztutako material kopurua handitzeko interes argia erakutsi du.

Erakundea, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan 1936-1977 aldiko memoria historikoa eta demokraziaren eta askatasunaren alde egindako lana berreskuratu, ikertu eta zabaltzeko proiektu espezifikotarako, **elkarteei eta fundazioei emateko dirulaguntzez** arduratzen da. Halaber, Memoria Historikoa berreskuratzeko eta frankismoaren ikurrak kentzeko proiektu espezifikotarako, **udalei eta tokiko erakundeei dirulaguntzak** emateaz arduratzen da. Aurreko legegintzaldian, Gogora institutuak Dirulaguntzen Plan estrategikoa bat (2021-2024) izan du erabilgarri. Dena den, plan honetan ez da genero-ikuspegia edo sekzio arteko ikuspegia berariaz txertatzeari buruzko aipamenik. Beraz, hori da etorkizunean izan dezakeen beste erronka bat.

Gogora, gainera, **era guztietako terrorismoaren biktimen lekukotzen dokumentuen eta ikus-entzunezkoen**, legez kanpoko errepresioaren biktimen eta beste kolektibo batzuen, eta, oro har, herritarren lekukotzen funtsa handituz arduratzen da. Halaber, Euskadiko artxibategiekin eta dokumentazio-zentroekin hitzarmenak, lekukotzak grabatzeko programa eta dokumental eta liburuetarako dirulaguntzak bultzatzeko zeregina betetzen du (fikziozkoak ez diren liburu argitaragarriak editatzeko, eta Gerra Zibiletik hasi eta gaurdaino Euskadiren memoria demokratikoa berreskuratzeko, zinema, telebista edota multimedia plataformetarako dokumentalak egiteko dirulaguntzen urteroko deialdia).

<sup>51</sup> 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek behar diren neurriak eta ekintzak onartuko dituzte emakumeek, bereziki, gerran eta diktaduran, pairatu zituzten murriztapenak eta diskriminazioak (hezkuntzakoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) ezagutzeko eta zabaltzeko, bai eta murriztapen eta diskriminazio horiek pairatu zituzten emakumeei aitorza egiteko ere.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek beharrezko neurriak eta jarduerak onartuko dituzte emakumeek bitzita intelektual eta politikoan, eta balio demokratikoen eta oinarriko eskubideen sustapenean, aurrerabidean eta defentsan duten zeregin aktiboa aitzortzeko.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte emakumeek gerran eta diktaduran izandako jarduerak publiko, politiko, sindikal edo intelektualaren ondorioz, edo beste errepresaliatu edo eraildako pertsona batzuekin izandako lotura pertsonalaren ondorioz, pairatutako errepresio- edo indarkeria-modu bereziak erreparatzeko; bereziki, diktadurako Emakumeak Babesteko Patronatuak egindako zigor eta errepresioei dagokienez.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek jarduerak burutuko dituzte, gerran eta diktaduran, adulterioarekin eta haurdunaldia borondatez etetearekin lotutako delituen ondorioz, askatasun-gabetzea edo beste zigor batzuk pairatu zituzten emakumeei aitorza eta erreparazioa emateko.

<sup>52</sup> [https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora\\_dokumentuak/es\\_def/Plan-de-Actuacion-2021-2024-version-web.pdf](https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora_dokumentuak/es_def/Plan-de-Actuacion-2021-2024-version-web.pdf)

Berak egiten ditu, era berean, **Memoriari buruzko ikerketak**, eta 1936-1978 bitartean izandako giza eskubideen urraketari buruzko oinarritzko txostena garatzen du. Ildo horretan, Gogora institutuak dirulaguntza ematen dio Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen Katedrari eta Aranzadi Zientzia Elkarteari, desagertutako eta errepresaliatutako pertsonak bilatu eta ikertzeko beren zeregina garatu dezaten.

Gogora institutuak **emakumeen ekarpenak ikusarazten** saiatzeko egindako ekintza zehatzei dagokionez, nabarmendu behar da 2021ean oinarritzko eskubideen urraketari buruzko txostenaren (1936-1978) lehen fasea amaitu zuela, Gerra Zibilean eta frankismoaren lehen aldian izandako heriotza-biktimak ardatz hartuta, eta datu-base bat argitaratu zen zenbakiak sexuaren arabera banakatuta, emakume biktimak ikusgai ipiniz.

2022an Gogora institutuak solasaldia antolatu zuen Santoñako fusilamenduaren 85. urteurrena zela eta. Bertan emakumeen espetxeen gaia ere jorratu zen. Halaber, EHUko Giza Eskubideen Katedrak antolatutako **Frankismoko genero-errepresioari buruzko mintegian** parte hartu zuen 2022an, gainera, **“Morir en Euskadi: estudio prosopográfico de las mujeres ejecutadas y fallecidas en prisión en el país vasco (1937-1945)”** artikulua argitaratu zuen, «Giza Eskubideen urraketa Euskadin, 1936-1978» proiektuaren barruan, GOGORA (Eusko Jaurlaritzako Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua), Giza Eskubideen UNESCO Katedraren eta EHUko Botere Publikoen eta Aranzadi Zientzia Elkartearen arteko lankidetzaren ondorioz.

2023an organismo autonomoak **“Emakumeak aberria eginez. Emakume Abertzale Batza 100 urte”** liburuaren aurkezpenean parte hartu zuen. Lan horrek Gogora institutuaren lankidetzaren izan zuen, eta elkartearen (emakumez osatutako Estatuko lehendabiziko erakunde politiko nazionalista, 1922ko maiatzean sortua) ibilbidea ikustarazi eta aztertzen du. Halaber, 2023an, Edurne Portelak **“Maddi y las fronteras”** liburua aurkeztu zuen Gogora institutuan, Bigarren Mundu Gerran erresistentziarekin konprometitutako emakume horri eta klandestinitatean garatu zuen jardunari ikusgarritasunez emanez.

Gogorak arreta berezia eman dio hezkuntza arautuko ikasleen parte-hartzeari. Webgunean ikastetxeetan zabaltzeko **Memoria berri** bat dago eskuragarri<sup>53</sup>. Gogorak bildutako terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen lekukotzak jasotzen dituen gordailua eskaintzen du. Ikastetxeetan eta aldez aurretik Gogorarekin adostutako ekimenetan eskusiboki erabiltzeko materiala da. Webgunean, era berean, mota ezberdineko dokumentalak jasotzen dira, ikasgeletan proiektatzeko. Bestalde, Herenegun programak Unitate Didaktikoen webgunea du erabilgarri, ikasleekin lantzeko. Material horietan arreta berezia eman zaio hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistari.

Jarraian, Gogora institutuaren jardute-eremuekin lotutako zenbait erronka azaltzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiarekin duten lotura adieraziz.

HELBURU ESTRATEGIKOA	LERROA	ERRONKAK
<b>I.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA</b>	<b>1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoari buruzko irailaren 28ko 9/2023 Legean emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez ezartzen diren betebeharrak genero-ikuspegia txertatuta egitea, neurri horiek Institutuaren jardunera gehitzeko plan bat diseinatze aldera.</li> <li>➤ Gogoraren Kudeaketa Planean genero-ikuspegia eta genero-adierazleak sartzea.</li> <li>➤ Saileko berdintasun-planean Gogorarekin lotutako ildoak gaineratzea.</li> <li>➤ Etorbizunari begira, Gogoraren berezko berdintasun-plana eratzea.</li> </ul>

<sup>53</sup> [https://www.gogora.euskadi.eus/webgog00-progogor/es/contenidos/recurso\\_tecnico/educational\\_videos\\_pub/es\\_def/media\\_pub/videos-ataria.html](https://www.gogora.euskadi.eus/webgog00-progogor/es/contenidos/recurso_tecnico/educational_videos_pub/es_def/media_pub/videos-ataria.html)

	<p>2. ILDOA. ANTOLAKETA- BALIABIDEAK: BERDINTASUNERAKO UNITATEAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Gogoragunearen eta BAUren arteko ohiko harremana indartzea.</li> <li>➤ Etorkizunari begira, Gogoran berdintasunerako teknikaria gehitzea.</li> </ul>
<p>I.2.- ADMINISTRAZIO- JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA</p>	<p>5. ILDOA. ADMINISTRAZIO- PROZEDURAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Emakumeen memoria historikoa berreskuratzen, ikertzen eta hedatzen jarraitzea eta puntu horietan gehiago sakontzea, elkarteei eta fundazioei zein udalei eta tokiko erakundeei zuzendutako dirulaguntzen bidez.</li> <li>➤ Diruz lagundutako erakundeek beren ikerketetan genero-ikuspegia sartu dezatela bermatzea, dirulaguntzetan klausula espezifikoak ezarri.</li> <li>➤ Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista aplikatzea, eta gizarte-imaginarioa memoria historikoaren gainean horren androzentrikoa ez den ikuspegi bat erabiltzeko joera dagoen berrikustea.</li> </ul>
<p>II-5.- EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA ESPARRU GUZTIETAN EGITEN DITUZTEN EKARPENAK AITORTZEA ETA BALIOESTEA</p>	<p>11. ILDOA. PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Memoria historiko demokratikoa eraikitzean emakumeen ekarpenak eta ahotsak gaineratzea.</li> <li>➤ Memoriaren lekuen, espazioen eta ibilbideen katalogoan emakumeen memoriarekin lotutako alderdi esanguratsuak gaineratzea.</li> <li>➤ Dokumentalen eta ikus-entzunezkoen funtsa emakumeen memoria historikoa ezagutzeko aukera ematen duen materialarekin areagotzen jarraitzea.</li> </ul>
<p>II.6.- EMAKUMEEK BEREN ESKUBIDEAK BENETAN ERABILTZEA BERMATZEA</p>	<p>14. LERROA EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ERABILERA INTESEKZIONALITATEAREN IKUSPEGIA GAINERATUZ</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ LGTBI+ kolektiboaren diskriminazioak desagerrarazteko eta sexu- eta genero-aniztasuna bultzatzeko ekimenak garatzea.</li> <li>➤ Ikusezin mantendutako emakumeen kolektiboen gaiei buruzko ikerketa espezifikoak egitea.</li> </ul>
<p>III.8. – ERAKUNDEEN KULTURAN ETA PRAKTIKAN BERDINTASUNA GAUZATZEA ETA FINKATZEA</p>	<p>18. ILDOA. KULTURA, KIROLA ETA HEDABIDEAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Gogoraguneak berdintasunaren legearen mandatuek betetzen dituela bermatzea.</li> <li>➤ Hezkuntza-proiektuetan genero-ikuspegia gaineratzen jarraitzea (gordailua, materiala, ekimena eta ikasmateriala).</li> </ul>
<p>IV.12. - EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ERANTZUNA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK ETA HAIEN AHALDUNTZEA ESKU- HARTZEAREN ERDIAN IPINIZ EMATEN DELA BERMATZEA</p>	<p>30. ILDOA. ERREPARAZIOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Gerran eta diktaduran adulterioarekin eta haurdunaldia borondatez etetearekin lotutako delituen ondorioz askatasun-gabetzea edo beste zigor batzuk jasan zituzten emakumeei aitortza eta erreparazioa emateko jarduketak garatzea.</li> </ul>

## 4.2.10. Aukerak-Gizarteratzearen Euskal Agentziarekin lotutako esku-hartzea

### Diagnostiko orokorra eta erronkak, Aukerak-Gizarteratzearen Euskal Agentziari dagokionez

Aukerak-Gizarteratzearen Euskal Agentzia (aurrerantzean, Aukerak) Justizia Sailburuordetzaren bidez Justizia eta Giza Eskubideen Sailera atxikitako **zuzenbide pribatuko erakunde publikoa** da, Aukerak-Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko irailaren 30eko 3/2021 Legean ezarritako baldintzetan<sup>54</sup>. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Euskal Enplegu Zerbitzuko (Lanbide) berezko bitarteko eta zerbitzu teknikoa da.

Euskadiko espetxe-establezimendu eta -zentroetan preso dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzearekin lotutako eskumena eskualdatzearen ondorioz sortu zen, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak erabakitakoaren arabera, zeina dekretu hauetan jaso baitzen: 474/2021 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, Espetxe-erloto estatu-legeak betearazteko esparruan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzkoa, eta 169/2021 Dekretua, uztailaren 6koa, zeinaren bidez onartzen baita eskualdatze hori.

Aukerak erakunde publikoari dagokio EAEko espetxe-establezimendu eta -zentroetan barneratuta dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztea, espetxe horietan enplegurako eta lan produktiborako lanbide-heziketa sustatuz, antolatuz eta kudeatuz. Helburu horren barruan hainbat ekintza jasotzen dira, esate baterako, jarduerak planifikatzea eta plan estrategikoak edo kudeaketa-planak garatzea.

Espetxeetan preso dauden pertsonen prestakuntza da Aukerak agentziaren ardatz nagusietako bat. Esku-hartzea modu zabalean ulertzen da. Beraz, jarduera terapeutiko eta laguntzakoak, prestakuntzakoak, hezigarriak, lan arlokoak, soziokulturalak, aisialdikoak eta kirol arlokoak barneratzen dira. Aukerak agentziak antolatzen dituen prestakuntza-ekintzen programak kualifikatzekoak eta zeharkakoak dira, eta oinarritzko kompetenziak lantzekoak.

Eskuragarri dauden **prestakuntza-datuek** erakusten dutenez, prestakuntza bat hasten duten pertsona-kopurua areagotu egin da pixkanaka, bai gizonen kasuan, eta baita emakumeen artean ere. EAEn preso dauden biztanleei buruzko datuei erreparatzen badiegu,<sup>55</sup> % 47 inguruk prestakuntza-ekintzak hasten dituzte, eta prestakuntza horietan emakumeen presentzia, proportzioan, handiagoa da (preso dauden emakumeen % 66k hasten du prestakuntza, eta preso dauden gizonen % 46k). Adierazi behar da prestakuntza bat amaitzen duten emakumeen portzentajea % 75ekoa dela, prestakuntza bat amaitzen duten gizonen portzentajea baino apalagoa (hamar gizonetik bederatzik amaitzen dute prestakuntza).

	Urtea	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Prestakuntza-ekintzak hasten dituzten pertsonak	2021	84	21	105
	2022	227	29	256
	2023	358	39	378
	<b>2021-2023 GUZTIRA</b>	669	89	749
Prestakuntza-ekintzak amaitzen dituzten pertsonak	<b>2021-2023 GUZTIRA</b>	604	67	671
Prestakuntza amaitzen duten pertsonak (%)	<b>2021-2023 GUZTIRA</b>	% 90,3	% 75	% 89,6

21. taula: EAEko espetxeetan preso dagoen biztanleriaren prestakuntzari buruzko datuak, Aukerak agentziaren eskutik.

<sup>54</sup> <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/10/2105096a.pdf>

<sup>55</sup> Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren arabera, preso dagoen biztanleriari buruzko datuak 2023ko abenduan.

Aukerak agentziaren helburua da espetxeetan preso dauden langileen lanbide-orientazioa eta horiek berriro kualifikatu ahal izatea bultzatzea, bai ekoizpen-tailerreko jarduerarekin lotutako profil profesionalen kasuan, bai eta gizarteratzeko eta lan-merkatu arruntean laneratzeko aukera gehiago dituzten lan-esparruekin lotutako kasuan ere.

*Bi urteko espetxe-kudeaketaren balantzea Euskadin 2021-2023 txostenaren arabera, 2023an, batez beste, 575 pertsona laneratu ziren. Tailerretan 200 pertsona gehiago daude, eta gaur egun, espetxean dauden pertsonen % 47 laneratzen dira tailerretan, gutxi gorabehera. Tailerretan parte hartzen duten emakumeen ratioek altuak izaten jarraitzen dute (preso dauden emakumeen % 56 daude lanean; gizonen kasuan portzentaje hori % 45ekoa da). Haatik, ezinbestekoa da gizonen eta emakumeek zer prestakuntza mota egiten duten, eta soldatapeko zer lan motan aritzen diren xehetasunez aztertzea, preso dauden emakumeen eta gizonen artean egon daitekeen soldata-arrakalan sakontzeko xedez.*

Tailer motaren arabera banaketari dagokionez, Aukerak agentziak helarazitako datuen arabera (2024), laguntza-tailerretara jotzen dute pertsona gehienek, emakume zein gizonen. Sexuaren arabera banaketari erreparatzen badiogu, emakumeen % 43k parte hartzen du tailer horietan, eta gizonen kasuan portzentaje hori % 38koa da. Gainera, proportzioan, emakumeak gehiagotan agertzen dira arropa-garbitzean, garbiketean, suizidioen prebentzioan, ikus-entzunezkoetan, lorezaintzan edo liburutegian.

Tailerra	Guztira (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba)		Guztira (%) (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba)	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonen ehunekoa (%) gizon guztiak kontuan izanda	Emakumeen ehunekoa (%) emakume guztiak kontuan izanda
Sukaldea	50	3	8,03	4,11
Okindegia	10	0	1,61	0,00
Ekonomatua	37	1	5,94	1,37
Mantenu-lana	38	2	6,10	2,74
Tailer osagarriak	240	32	38,52	43,84
Anoak	42	6	6,74	8,22
Arropa-garbitzea	18	5	2,89	6,85
Garbiketa	71	4	11,40	5,48
Hondakinen kudeaketa	5	0	0,80	0,00
Menpekoa	14	2	2,25	2,74
Lorezaintza	2	2	0,32	2,74
Biltegia eta logistika	2	1	0,32	1,37
Suizidioen prebentzioa	57	9	9,15	12,33
Mendekotasunaren arreta	10	0	1,61	0,00
Ikus-entzunezkoak	10	3	1,61	4,11
Liburutegia	3	2	0,48	2,74
Barneko irakaslea	5	1	0,80	1,37
Kirola	5	0	0,80	0,00
Ile-apainketa eta estetika	4	0	0,64	0,00

22. taula: EAEko espetxeetan tailerretan banatutako presoiei buruzko datuak, Aukerak agentziaren eskutik.

2025ean, Aukerak agentziak eta “la Caixa” fundazioak Euskadiko espetxeetan askatasunaz gabetuta dauden 150 pertsonen gizarteratzea eta laneratzeko ahalbidetzeko lankidetzeta-hitzarmena berri dute. **Reincorpora programaren** helburua da askatasunaz gabetutako pertsonen lan arloan etorkizun egonkor eta kalitatekoa eduki ahal izateko beharrezkoak diren tresnak ematea. Horretarako, ibilbide pertsonalizatua egin dezatela aurreikusten da, egoera horretan dauden gizonen eta emakumeen prestakuntza jasotzeko, eta laneratzeko eta gizarteratzeko aukera berdina izan ditzatela bermatze aldera, diseinatutako jarduerekin, fase guztietan ikuspegi inklusiboa txertatuz. Nabarmendu behar da, 2021ean martxan jarri zenetik, programan 170 pertsona aritu direla (27 emakume eta 143 gizon), eta bertan parte hartu duten pertsonen % 68k laneratzeko lortu dutela (17 emakume eta 98 gizonen) Reincorpora programak ikuspegi integrala du, parte hartzen duten pertsonen lan arloan etorkizun egonkorra eta kalitatea izateko beharrezkoak diren tresnak ematen dizkiena.

Azken urtean, Aukerak agentziaren lantaldea modu esanguratsuan hazi da, eta 50 langile baino gehiago daude. Horrek zuzenbide pribatuko erakunde publiko hori berdintasun arloan beste antolaketa-eszenario batean kokatzen du, izan ere, berdintasunari buruzko legearen 11. artikuluan <sup>56</sup> ezartzen denez, 50 langile baino gehiago dituzten erakunde publikoek berezko administrazio-egitura edo -unitateak izan behar dituzte berdintasunaren arloko jarduketak bultzatzeko. Horrenbestez, egitura hori sortzea izango da legegintzaldi honetan Aukerak agentziak berdintasunaren arloan duen erronka handiena, eta hori izango da gainerako jardueren diseinua aldatzeko giltza.

HELBURU ESTRATEGIKOA	LERROA	ERRONKAK
I.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA	1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Berriki onartutako LPZ sendotzea eta berdintasunaren arloan bere diagnosia egitea.</li> <li>➤ Preso dauden pertsonen eta Aukerak agentzian lan egiten dutenei zuzendutako jarduera nagusiak jasotzen dituen berdintasun-plan bat prestatzea.</li> <li>➤ Genero-ikuspegia eta sekzio arteko ikuspegia kontuan izanik, jarraipenera-adierazle gehiago sortzea, Aukerak agentziak burutzen dituen jardueren inpaktua ebaluatzeko.</li> </ul>
	2. ILDOA. ANTOLAKETA-BALIABIDEAK: BERDINTASUNERAKO UNITATEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Aukerak agentziaren barnean berezko Berdintasunerako Unitatea sortzea, berdintasunerako legea betez, eta unitate horri aurrekontu bat ematea.</li> </ul>
I.2.- ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA	5. ILDOA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ziurtagirien prestakuntzak ematen dituzten profesionalentzako lizitazioetan genero-ikuspegia gaineratzeko modua aztertzea, horien ezaugarriak kontuan izanik (iraupen laburrekoak dira, pertsona bakarreko enpresak aurkeztu ohi dira, etab.).</li> <li>➤ Preso dauden emakumeen prestakuntza-garapeneraren berri eman dezaketen funtsezko adierazleei erreparatzea.</li> <li>➤ Prestakuntzan eta enpleguan dauden emakumeen portzentajea jasotzea, espexxeetako ordezkartza-zenbakiak kontuan izanik.</li> </ul>
	8. ILDOA. BERDINTASUNAREN IKUSPEGI KONPLEXUAGOA POLITIKA PUBLIKOETAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Emakumeen ordezkartza txikiegia den esparruetan (prestakuntzari /lanari dagokionez) haien parte-hartzea baldintzatu dezaketen bestelako desberdintza-ardatzak aztertzea.</li> </ul>
II.4.- POLITIKA PUBLIKOETATIK EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOARI LAGUNTZEA.	9. ILDOA. ENPLEGU DUINA ETA BALDINTZA BERDINETAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Reincorpora programan emakumeen parte-hartzea indartzea, eta haien gizarteratzea areagotzea, emakumeek eta gizonen irisgarritasunari so aurrez aurre dituzten desberdintzak kontuan izaten dituzten laneratzeko eta gizarteratzeko ibilbideak diseinatuz.</li> <li>➤ Preso dauden emakumeek prestakuntza-programetara eta ekoizpen-tailerretara iristeko aurrez aurre izan ditzaketen oztopoak identifikatu eta desagerraraztea.</li> </ul>
II.6.- EMAKUMEEN BEREN ESKUBIDEAK BENETAN ERABILTZEA BERMATZEA	14. LERROA EMAKUMEEN ESKUBIDEN ERABILERA INTESEKZIONALITATEAREN IKUSPEGIA GAINERATUZ	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ekoizpen-tailerretan genero-ikuspegia gaineratzea, emakumeen presentzia txikiegia den sektoretan haien parte-hartzea sustatzeko. Horretarako, emakumeek ekoizpen-tailerretara sartzeko zer egoeran dauden aztertzea proposatzen da.</li> <li>➤ Ematen den lan arloko orientazioa genero-ikuspegitik eta sekzio arteko ikuspegitik aztertzea, preso dauden emakumeen zailtasun gehigarriak kontuan izanik.</li> </ul>

<sup>56</sup> 11.3. Autonomia Erkidegoko Administrazioari atxikitako edo lotutako organismo autonomo eta bestelako erakunde publikoek, 50 langile baino gehiago badituzte, egokitu egin beharko dituzte beren egiturak, administrazio-unitateak izan ditzaten lege honetan eta 16. artikulua 1. paragrafoan zehaztutako berdintasun-planean jasotzen diren neurriak betearaztea bultzatzeko eta koordinatzeko.

## 5. JUSTIZIA ETA GIZA BALIABIDE SAILAREN PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	SAILBURUORDETZA EDO ZUZENDARITZA ARDURADUNA	Kronograma				BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA					GOBERNU-PROGRAMA		BERDINTASUN LEGEA (art.)	SOLDATA-ARRAKAL ARI BURUZKO PLANA	III. AKORDIOA
			2025	2026	2027	2028	1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA	4. ARDATZA	JOMUGAK	HELBURUAK	KONPROMIS OAK			
1. Sailean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromiso politikoa bermatzea	1.1. <b>Sailaren Berdintasun Plan</b> berria bultzatzea, eta plana gauzatzen dela eta bere jarraipena egiten dela bermatzea.	Zuzendaritza guztiak Zerbitzu Zuzendaritza - BAU	X	X	X	X	X				3	26	130	16. art.	-	-
	1.2. Sailean <b>genero-ikuspegia</b> gaineratzen duten <b>arau</b> onartuen kopurua handitzea (legeak, dekretuak, aginduak, etab.)	Zuzendaritza guztiak	X	X	X	X	X				1	-	-	3. art. 5. art. 6. art. 7. art.	-	-
	1.3. Sailera atxikitako <b>erakunde berrien</b> eta emakumeen eta gizonen <b>berdintasunerako planak berezko diagnosiak</b> egiten dituzten <b>zuzendaritzen</b> kopurua handitzea.	Aukerak. Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritza		X	X		X				1	26	130	16. art.	-	-
	1.4. <b>Justizia Administrazioaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana</b> ebaluatzea, eta III. Plana egin eta gauzatzea.	Justizia Administrazioiko Zuzendaritza		X	X	X	X				1	26	130	5. art. 41. art. 43-44. art. 46-47. art. 53. art.	X	-
	1.5. Saiak eta bere erakunde atxikiek <b>sexu-jazarpenera eta sexu arrazoien ondoriozko jazarpenera prebenitzeko eta jorrazeko</b> garatzen dituzten jarduketaren kopurua handitzea.	Zerbitzu Zuzendaritza- BAU Administrazioaren Zuzendaritza Justiziarena Justizia Zuzendaritza Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritza		X	X	X	X				1-5	26	130	43. art.	-	-

HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	SAILBURUORDETZA EDO ZUZENDARITZA ARDURADUNA	Kronograma				BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA					GOBERNU-PROGRAMA		BERDINTASUN LEGEA (art.)	SOLDATA-ARRAKAL ARI BURUZKO PLANA	III. AKORDIOA	
			2025	2026	2027	2028	1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA	4. ARDATZA	JOMUGAK	HELBURUAK	KONPROMISOAK				
1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromiso politikoa bermatzea	1.6. <b>Berdintasunerako Administrazio Unitatea</b> (BAU) indartzea.	Zerbitzu Zuzendaritza - BAU	X	X	X	X	X					3	-	-	5. artikulua 11. art.	-	-
	1.7. Departamentura atxikitako <b>erakunde publikoek berdintasuna bultzatzeko berezko egitura sortzen dituztela</b> bermatzea, araudian aurreikusitako baldintzetan.	Aukerak.		X			X					3	-	-	5. artikulua 11. art.	-	-
	1.8. Sailean <b>berdintasun arloko prestakuntza eta gaikuntza</b> duten kargudun publikoen eta langileen kopurua handitzea, administrazioaren jardunean genero-ikuspegia sartzeko.	Zerbitzu Zuzendaritza - BAU Justizia Administrazioiko Zuzendaritza	X	X	X	X	X					4	26	130	18. artikulua	-	-
	1.9. <b>Prestakuntza-ibilbidearen</b> diagnostia eta diseinua egitea, eta ondoren kidegoetara eta berdintasunaren arloan prestakuntzari dagokionez langileek dituzten premietara egokituta garatzea.	Justizia Administrazioiko Zuzendaritza Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritza	X	X	X		X					4	26	130	18. artikulua	-	-
	1.10. Justiziaren langileen atarian, Sailearen webgunean eta <b>Justiziaren Intranetean</b> edukikopurua handitzea, berdintasunaren arloan erabilgarri dauden baliabide guztiak ezagutarazteko, langileei eta, oro har, herritar guztiei zuzenduta.	Zerbitzu Zuzendaritza Justizia Administrazioiko Zuzendaritza	X	X	X	X	X					4	26	130	18. artikulua	-	-

HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	SAILBURUORDETZA EDO ZUZENDARITZA ARDURADUNA	Kronograma				BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA					GOBERNU-PROGRAMA		BERDINTASUN LEGEA (art.)	SOLDATA-ARRAKALARI BURUZKO PLANA	III. AKORDIOA	
			2025	2026	2027	2028	1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA	4. ARDATZA	JOMUGAK	HELBURUJAK	KONPROMIS OAK				
	1.11. Beren <b>aurrekontu-partidetan</b> urtero Sailaren berdintasun-politikak garatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak adierazten eta zehazten dituzten zuzendaritzen kopurua handitzea.	Zuzendaritza guztiak	X	X	X	X	X					2	-	-	15. artikulua	-	-
2. Administrazio-jardueran berdintasuna txertatzea	2.1. Informazioaren bilketan, tratamenduan, azterketan eta hedapenean <b>genero-ikuspegia</b> gaineratzen duten <b>estatistika</b> ofizialen, ez ofizialen, <b>memorien eta ikerketen</b> kopurua handitzea.	Zuzendaritza guztiak	X	X	X	X	X					1-9	-	-	3. artikulua 17. artikulua	-	-
	2.2. Sailaren kanpoko eta barneko jakinarazpen eta dokumentu guztietan berdintasuna gaineratzea eta <b>irudien eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista</b> bermatzea.	Zuzendaritza guztiak	X	X	X	X	X					1-9	-	-	3. artikulua 19. artikulua 26. artikulua	-	-
	2.3. Emakumeen eta gizonen <b>ordezkaritza orekatua</b> duten zuzendaritza-organoen, batzordeen, foroen, epaitegien eta auzitegien, ehunekoak handitzea.	Zuzendaritza guztiak	X	X	X	X	X					1	-	-	21. artikulua 26. artikulua 28. artikulua	-	-

HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	SAILBURUORDETZA EDO ZUZENDARITZA ARDURADUNA	Kronograma				BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA					GOBERNU-PROGRAMA		BERDINTASUN LEGEA (art.)	SOLDATA-ARRAKALARI BURUZKO PLANA	III. AKORDIOA
			2025	2026	2027	2028	1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA	4. ARDATZA	JOMUGAK	HELBURUAK	KONPROMISOAK			
2. Administrazio-jardueran berdintasuna txertatzea	2.4. Berdintasunerako klausula eraginkorrak jasotzen dituzten <b>kontratuen, dirulaguntzen eta hitzarmenen</b> ehunekoa handitzea, diskriminazio anitzei aurre egin behar dieten emakumeen egoera aintzat hartuz, eta horiek betetzen direla egiaztatzeko mekanismoak ezarriz.	Zuzendaritza guztiak	X	X	X	X	X				4-5	-	-	22. art. 23. art. 24. art.	-	-
	2.5. Plangintzaren fase guztietan (diagnosia, diseinua, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa) genero-ikuspegia txertatzen duten Saileko <b>plan estrategiko eta sektorialen</b> kopurua handitzea.	Zuzendaritza guztiak	X	X	X	X	X				1	26	129	25. art.	-	-
3. Gobernantza-eredua eraldatzea	3.1. Sailean, berdintasuna lortzeko <b>koordinazio-egiturak</b> indartzea, sendotzea eta areagotzea.	Zuzendaritza guztiak		X	X	X	X				3	-	-	3. art. 11 art.	-	--
	3.2. Berdintasunerako <b>erakunde arteko eta sail arteko koordinazio-egiturak</b> indartzea, sendotzea eta areagotzea.	Zuzendaritza guztiak		X	X	X	X				3	-	-	12. art. 13. art.	-	-
	3.3. Saileko <b>programen eta zerbitzuen ebaluazioan erabiltzaileen parte-hartzea</b> handitzea, bereziki indarkeria matxistaren biktimei laguntzekoetan (zuzenean edo zeharka).	Justizia Sailburuordetza		X	X	X	X				9	29	140	3. art. 5. art. 14. art. 27. art.	-	X

HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	SAILBURUORDETZA EDO ZUZENDARITZA ARDURADUNA	Kronograma				BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA					GOBERNU-PROGRAMA		BERDINTA SUN LEGEA (art.)	SOLDATA-ARRAKAL ARI BURUZKO PLANA	III. AKORDIO A	
			2025	2026	2027	2028	1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA	4. ARDATZA	JOMUGAK	HELBURUAK	KONPROMISOAK				
3. Sailaren gobernantza-eredua eraldatzea	3.4. Genero-ikuspegia eta sekzio arteko ikuspegia gaineratzen duten ebaluaziorako tresnak garatzea, Saileko politika publikoen, programen eta zerbitzuen eragina neurtzeko.	Zuzendaritza guztiak		X	X	X	X					1	26	125	3. artikulua	-	-
	3.5. Genero-ikuspegia eta sekzio arteko ikuspegia gaineratzen duten, eta sexuaren eta generoaren eta botere edo jazarpeneko beste ardatz batzuen arteko elkarrekintza kontuan izaten duten programen eta proiektuen kopurua handitzea.	Zuzendaritza guztiak	X	X	X		X				1-2	26	129 130	3. artikulua	-	-	
	3.6. Maskulinitasunen ikuspegia zeharkako moduan eta ekintza espezifikoek bidez gaineratzea, eta berdintasunaren aldeko eta berdintzaleak ez diren maskulinitasunak desagerrarazteko Saileko gizonen inplikazioa bultzatzeko neurri-kopurua handitzea.	Zuzendaritza guztiak		X	X		X				9	26	125 127	3. artikulua	-	-	
	3.7. Berdintasunarekin lotuta euskaraz egindako jarduketan kopurua handitzea.	Zerbitzu Zuzendaritza	X	X	X	X	X				1	29	140	3.16 artikulua	-	-	

HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	SAILA EDO ZUZENDARITZA ARDURADUNA	Kronograma				BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA					GOBERNU-PROGRAMA		BERDINTASUN LEGEA (art.)	SOLDATA-ARRAKALAR I BURUZKO PLANA	III. AKORDIO A	
			2025	2026	2027	2028	1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA	4. ARDATZA	JOMUGAK	HELBURUAK	KONPROMIS OAK				
4. Politika publikoetatik preso dauden emakumeen autonomia ekonomikoari laguntzea.	4.1. <b>Lanbide-bereizketa hausteko ekimenen</b> kopurua areagotzea, eta enplegurako eta lan produktiborako lanbide heziketa sustatuz, antolatuz eta kudeatuz, Euskadiko espetxeetan dauden <b>emakume preso</b> en gizarteratzea eta laneratzea ahalbideratzea.	Aukerak.		X	X	X		X				5	26 29	125 126 141	3. artikulua 39. artikulua	X	-
5. Emakumeen protagonismoa sustatzea, eta memoria demokratikoaren kontakizunean egiten dituzten ekarpenak aitortzea eta balioestea	5.1. <b>Emakumeen</b> zereginari <b>ikusgaitasun</b> handiagoa ematea paradigma feministatik, <b>memoria demokratikoaren kontakizunean</b> emakumeen errealitatea jasotzeko ekintzen bidez.	Gogora Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritza		X	X			X				1	26 27	129 133	3.12. artikulua 28. artikulua	-	-
6. Emakumeek beren eskubideak benetan erabiltzea bermatzea sekzio arteko ikuspegitik	6.1. <b>Osasunaren zaintzari eta laneko arriskuen prebentzioari</b> buruzko balorazioetan genero-aldagaiak sartzea, eta arlo horretan berdintasuna bultzatzeko neurriak txertatzea-	Justizia Administrazioiko Zuzendaritza Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritza	X	X				X				1	-	-	47. artikulua 48. artikulua	X	-

HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	SAILA EDO ZUZENDARITZA ARDURADUNA	Kronograma				BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA					GOBERNU-PROGRAMA		BERDINTASUN LEGEA (art.)	SOLDATA-ARRAKALAR I BURUZKO PLANA	III. AKORDIOA
			2025	2026	2027	2028	1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA	4. ARDATZA	JOMUGAK	HELBURUAK	KONPROMISOAK			
6. Emakumeek beren eskubideak benetan erabiltzea bermatzea sekzio arteko ikuspegi batetik	6.2. Emakume presoan eta preso-ohien egoera, baldintza eta premia zehatzei erantzutea, bereziki zaurgarritasun gehiagoko egoeran eta gizarte-bazterkeriaren arriskuko egoera larrian daudenei.	Justizia Zuzendaritza Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritza Aukerak.		X	X			X			1	29	140 141	3. artikulua 49.5 artikulua	-	-
	6.3. Desgaitasuna duten emakumeek justiziara iristeko dituzten eskubideak bultzatzea eta babestea, gaikuntzaz aparteko ikuspegi batetik.	Justizia Zuzendaritza Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza		X				X			1	26 29	125 140	3. artikulua 64.2d artikulua	-	-
	6.4. LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako errepresioa eta giza eskubideen aldeko borroka kolektiboa ikusarazteko ekimenak garatzea.	Gogora		X				X			9	26	128	3. artikulua 54.2 artikulua	-	-
7. Erakundeen kulturaren eta praktikan berdintasuna gauzatzea eta finkatzea	7.1. Oroitzapenerako ekitaldietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea, eta genero-ikuspegia gaineratzea memoria historiko, kultural eta sozialaren eraketan eta berreraikuntzan, ahalduntzea eta erreparazioa abiapuntutzat hartuz.	Gogora Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritza		X	X	X		X		9	27	133	3.12 artikulua 28.3. artikulua	-	-	

HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	SAILA EDO ZUZENDARITZA ARDURADUNA	Kronograma				BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA					GOBERNU-PROGRAMA		BERDINTASUN LEGEA (art.)	SOLDATA-ARRAKALAR I BURUZKO PLANA	III. AKORDIO A
			2025	2026	2027	2028	1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA	4. ARDATZA	JOMUGAK	HELBURUAK	KONPROMIS OAK			
8. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko ikerketa, sentsibilizazioa, prebentzioa eta prestakuntza espezializatua bultzatzea	8.1. Emakumeen aurkako <b>indarkeria matxistari</b> buruzko informazioa jasotzeko, aztertzeko, trukatzeko eta hedatzeko <b>tresnak</b> hobetzea.	Justizia Sailburuordetza		X	X	X				X	10	26	125	3. art. 55. art.	-	x
	8.2. Justizia Sailburuordetzak emakumeen aurkako <b>indarkeria matxistaren</b> arloan erabilgarri dituen <b>baliabideen eta programen eskuragarritasuna, irisgarritasuna eta kalitatea</b> aldizka ebaluatzea.	Justizia Sailburuordetza		X	X	X				X	10	26	125	3. art. 55. art.	-	x
	8.3. Emakumeen aurkako <b>indarkeria matxista</b> eragin duten edo <b>portaera sexistak</b> dituzten adin txikiko, nerabe eta helduek portaera oldarkor hori berriro hartu ez dezaten <b>prebentzioa</b> lantzea.	Justizia Zuzendaritza	X	X	X	X				X	10	26	129 127	3.3. art. 56. art. 57. art.	-	x
	8.4. <b>Biktimak hauteman, artatu eta babestearekin</b> zerikusia duten langile guztien artean <b>indarkeria matxistaren</b> arloko <b>prestakuntza derrigorrezko eta jarraitua ematea</b> , hurrekin eta gazteekin lan egiten duten langileak eta indarkeriari aurre egitearekin lotutako politikak eta programak diseinatzeko aritzen diren langileak barne.	Justizia Sailburuordetza	X	X	X	X				X	10	26	127	18. art. 40. art.	-	x




HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK	SAILA EDO ZUZENDARITZA ARDURADUNA	Kronograma				BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA					GOBERNU-PROGRAMA		BERDINTASUN LEGEA (art.)	SOLDATA-ARRAKALAR I BURUZKO PLANA	III. AKORDIOA
			2025	2026	2027	2028	1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA	4. ARDATZA	JOMUGAK	HELBURUAK	KONPROMIS OAK			
9. Emakumeen aurkako indarkeriaren erantzuna emakumeen eskubideak eta ahalduntzea esku-hartzearen erdian ipiniz ematen dela bermatzea	9.4. <b>Esparru juridikoan eta judizialean baliabideak hobetzea</b> (Ofiziozko txanda, BAZ, FE, AMEE, BFIU, Lantalde Psikosozialak), emakumeak, adin txikikoak eta nerabeak, eta indarkeria matxistaren eraginpeko zeharkako beste biktima batzuk berriro biktimizatu daitezela ekidinez.	Justizia Zuzendaritza Justizia Administrazioiko Zuzendaritza Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza		X	X	X				X	10	26 29	125 139	64 artikulua	-	X
	9.5. Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea indarkeria matxistaren ondoren bizirik daudenentzako, ebazpen judizial bidez, delituaren ondoriozko indemnitazioak ezarri eta <b>ordaintzen ez diren kasuetan laguntza-neurriak edo laguntza ekonomikoak</b> ematea ahalbidetzeko.	Justizia Zuzendaritza		X	X					X	11	26	125	65 artikulua	-	X
	9.6. <b>Kaltearen erreparazio kolektiboko</b> neurriei buruzko baterako <b>gidak eta protokoloak</b> prestatzen laguntzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gaitzespen publikoa eta bizirik dauden eta ez dauden biktima guztien aitortza ere jasoz.	Justizia Zuzendaritza		X	X					X	9	26	125	65. artikulua	-	X
10. Indarkeria matxistaren aurrean esku hartzen duten erakundeen artean esku-hartze koordinatua bultzatzea	10.1. <b>Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arretaren koordinazioa hobetzeko Erakundearteko III. Akordioa</b> garatzea Justizia eta Giza Eskubideen Sailari dagokion guztian.	Justizia Zuzendaritza	X	X	X	X				X	10	26	125	66. artikulua	-	X

## 6. KUDEAKETA-EREDUA

### HEDAPENERAKO EGITURA INSTITUZIONALAK

Justizia eta Giza Eskubideen Saileko emakumeen eta gizonen berdintasunerako Administrazio Unitateari (BAU) dagokio legegintzaldiko berdintasun Plana **bultzatzea**. Hori da plana egikaritzeaz, haren jarraipena egiteaz eta ebaluatzeaz arduratzen den unitatea, eta Saileko organoei eta langileei aholkularitza eskaintzen diena.

Egitura horrez gain, plana hedatzeko **koordinazio** handia dago, eta horrek hainbat eragile eta egitura inplikatzeko ditu, bai sailetakoak bai kanpokoak:



### PROGRAMAZIOA/PLANGINTZA

Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren legegintzaldiko berdintasunerako Plana ezartzeko sistema **urteko planak** eginez garatzen da. Plan horiek, sailaren legegintzaldiko berdintasunerako Planaren ezarritako helburu estrategikoekin lotuta, urtero gauzatu beharreko ekintzen berri ematen dute. Urteko plan bakoitzean, dagozkion jarduerak eta horiek garatzeko arduradunak zehaztuko dira, baita jarduera horiek gauzatzeko kronograma eta horietara bideratutako zenbatekoa ere, aurrekontua esleituta dagoen kasuan.

Emakunderi urteko planen sorburu den legegintzaldiko berdintasun Planaren berri ematen zaio, onartu baino lehen, haren edukiak Legearen xedatutakora eta berdintasunerako 2030 Estrategian adierazitako esku hartzeko ildoetara eta jarraibideetara egokitzen diren balioztatzeko, berdintasunerako Legearen 16.6 artikuluan ezartzen den bezala.

## JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- Planen jarraipena egiteko, **urteko jarraipena** egiten da, eta horietako bakoitzean aurreikusitako jardueren betetze-maila aztertzen da. Horri esker, aurrerapenak eta lorpenak neurtu ahal izango dira, eta hobekuntzak eta erronkak identifikatu ahal izango dira, hurrengo urteko planetan lantzeko, legegintzaldiko helburu estrategikoak ahantzi gabe.

Urteko planaren jarraipenerako, hurrengo definitzeko, erkatzeko eta jakinarazteko, honako urrats hauek emango dira:

- Berdintasunerako Administrazio Unitateak, sailtako sustapen- eta koordinazio-egiturekin batera, Planaren ezarpenaren jarraipena egingo du urtean zehar, eta, urtearen amaieran, hurrengo urterako plan operatiboa zehaztuko du.
  - Bai plan operatiboaren urteko jarraipena, bai hurrengo urterako plan operatiboa, politikoki erkatuko dira Berdintasunerako Administrazio Unitatearen arduradun politikoarekin edota Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen arduradunarekin.
  - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeko ordezkari politikoak emango du (beharrezkoa bada) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen urteko jarraipenaren berri.
- **Legegintzaldi-planaren jarraipena** egiteko, bigarren eta laugarren urteen amaieran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeko saileko ordezkariak eta Emakundeak bilera bat egingo dute, egin diren aurrerapenak eta garatzen jarraitzeko ekintza-ildoak identifikatze aldera
  - Horrez gain, Berdintasunerako Administrazio Unitateak legegintzaldiko Berdintasunerako Planaren **azken ebaluazioa** egingo du, agintaldiaren balantze orokorra egiteko.
  - **Berdintasunerako 2030 Estrategiaren jarraipenerako** informazio egokia emateko, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak, urtero, Emakunderi helburu estrategikoen betetze-mailari dagokion informazio zehatza ematen jarraituko du.
  - EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arretaren koordinazioa hobetzeko Erakundearteko III. Akordioaren kontuak ematearen barruan, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak ekintzen garapenari buruzko informazioa ematen jarraituko du, Akordio horretan zehazten den moduan.
  - **Soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiako** kontuak ematearen barruan, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak garatzen dituen ekintzei buruzko informazioa eman beharko du aurrerantzean, urteko jarraipenerako txostenaren bidez.

## AURREKONTU ARLOA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legeak ezartzen duenaren arabera, autonomia-, foru- eta toki-administrazioek, urtero, arau honetan jasotako eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak esleituko eta zehaztuko dituzte beren aurrekontuetan. Bestalde, administrazio autonomikoak arian-arian sustatuko du aurrekontuaren gutxienez % 1 emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiketara bideratzea, 2030erako aurrekontu orokorretan esleitutako guztizko gastuaren % 1,5 izan

dadin gutxienez, hargatik eragotzi gabe aurrekontu-helburu hori lehenago gauzatzea (Berdintasunerako Legearen Seigarren Xedapen Gehigarria).

Planari loturiko baliabide ekonomikoak modu xeheagoan esleitu beharko dira urteko planetan, legegintzaldi-plan hau horietan zertuko baita. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da honela banatuko dela aurrekontua: batetik, Berdintasunerako Administrazio Unitaterako partida espezifikoak, eta, bestetik, urteko planetan aurreikusitako ekintzak ezartzeko berezko aurrekontua.

## ADIERAZLE-SISTEMA

Berdintasunerako 2030 Estrategiak adierazle-sistema bat eskaintzen du, Plan honen garapena aztertzeko neurketa-oinarria dena.

Halaber, jarduketa espezifikoek urteko plangintzan adierazle zehatzen atal bat jasotzen da, bere aurrerapen- eta betetze-maila behar bezala jarraitzeko.





## **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA**

### **XIII. legegintzaldia**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA ETA GIZA  
ESKUBIDEEN SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y  
DERECHOS HUMANOS